

puntua

Arrasateko lur azpiko ondarea katalogatu egin dute

Mikel de la Fuente, Zuzenbidean doktorea, pentsioez



LANTEGI AURRERATUENA NEURRI HANDIKO MAKINETARAKO

Bergarako Mekolalde auzoan dagoen Soraluze kooperatibaren lantegian, ateak ireki dizkiete egunotan hornitzaileei.

Soraluce kooperatibak 9 milioi euro inbertitu ditu Bergarako Mekolalde auzoko fabrian / 7

ALEX ABRIL

Puntaik Punta jaia Eskoriatzan aurten

Maiatzaren 1etik 5era bitartean, mendi ibilaldiak, musika emanaldiak –Maidar Zabalegi, McOnak, Foisis Jaunak...– eta beste izango dira / 2



Kulturgileak eta tabernariak Arrasaten egindako agerraldian. IMANOL SORIANO

Kontzertuak herrietan, kulturaz goatzeko, dekretuaren aurka / 40



ON EGIN EZKONTZETAN! / 23

SINADURAK

| | |
|--|--------------------------------|
| | MANEX ARRIOLABENGOA / 22 |
| | JOXAN LARRAÑAGA / 10 |
| | JOSUNE ODRIOZOLA / 35 |
| | IBON ARRUPE / 12 |
| | MIKEL IRIZAR / 48 |

Eskoriatzan egingo dute aurten Puntaik Punta

Asteon aurkeztu dute Debagoieneko Mankomunitateko, Eskoriatzako Udaleko eta Foru Aldundiko ordezkariak Debagoieneko Bidezidorren Jaialdiaren laugarren aldia; maiatzaren 1etik 5era egingo dute kultura, kirola eta turismoa uztartzen dituen jai

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Maiatzeko lehen bost egunetan mendi irteerak, ibilaldiak, bisita gidatuak, ikastaroak, kontzertuak eta askoz gehiago izango dira Eskoriatzan, Puntaik Punta jaialdiaren baitan. Egitasmo horren garrantzia azpimarratu du Denis Itxasok, Aldundiko Kultura, Turismo eta Kirol diputatuak. "Oso ideia interesgarria da kirolaren, kulturaren eta turismoaren ikuspegitik begiratuta. Lurraldearen barnealdeko turismoa sustatzea izan da orain arte gure asmoa, eta egitasmo hau gustu handiz hartzen dugu", dio. "Gure herrian hain errotuta dagoen xendazaletasunari jaialdi forma bat ematea da. Txango ezberdinak egingo dira eta, hori baliatuz, beste ekitaldi kultural batzuk ere egingo dira", gaineratu du.

Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkate eta Mankomunitateko Garapen eta Turismo Sailako presidenteak azaldu duenez, jaialdiaren helburu nagusiak bi dira: "Batetik, gure bailaran ditugun GR eta PR guztien erakusleho bat zabaltea, barnealdeko turismoa sustatuz. Eta, horrekin batera, jaialdi orokor bat antolatzen dugu, zeinak adin guztietako herritarrei zuzendutako zenbait ekintza kultural



lax moduan, aurten ere hainbat tailer egingo dituzte. GOIENA.

eskaintzen dituen". Horrekin batera, adierazi du "aukera paregabea" dela Debagoiena ezagutzeko, "turismo zein gastronomia aldetik".

Aurten, aurreko urteetan baino luzeagoa izango da, maiatzaren 1eko jaieguna aprobetxatuz. Era berean, Atxorrotx egunean emango diote bukaera jaialdiari, hilaren 5ean, han bertan.

Erakusketa eta azoka

Egitarauan agertzen diren ekintzez gain, beste bi ere nabarmendu behar dira: batetik, Kar-

melo Oñateren *Ura, lurra, bizitza margotzen!* erakusketa egongo da ikusgai Ibarraundin, maiatzaren 3tik 5era.

Bestetik, maiatzaren 4ean eta 5ean, Xendazaletasun Azoka egingo dute –artisautea azoka, rokodromoa, oreka tailerrak, ohe elastikoa, eta abar–.

Zerbitzu publikoa

Gainera, autobus gehiago egongo dira, eta Zubizarretak zerbitzu publikoa erabiltzeko gomendioa egin die herritarrei, "antolaketa errazte aldera".

Jaialdiaren egitaraua

MAIATZAK 1, EGUAZTENA

- **08:00** Arrasate-Atxorrotx-Eskoriatza mendi ibilaldia.
- **12:00** Bisita gidatua: *Arantzazu, euskal arte garaikideen gunea.*
- **17:00** Bisita gidatua: *Oñati, muino ugariko tokia.*

MAIATZAK 2, EGUENA

- **Egun osoan zehar** Jardunaldi teknikoak.

MAIATZAK 3, EGUBAKOITZA

- **09:00** Latabide, PR-GI 170 mendi ibilaldia.
- **10:00** Arrasate: Karraskain-Lizueta-Lezetxiki mendi ibilaldia.
- **16:00** *Sendabelarrak ezagutzen* mendi ibilaldia eta tailerra.
- **17:30** *Kantu kolore, Honolulu* ikuskizun musikala, haurrentzat.
- **18:30ean hasita** Rocka kalean: The Potes eta Roba Estesa taldeen emanaldiak.

MAIATZAK 4, ZAPATUA

- **08:00** Trenbidea, PR-GI 100.
- **08:30** Eskoriatza-Aranguren-Leizargarate-Eskoriatza ibilaldia.
- **08:30** Arrasate-Eskoriatza- Gr12-Latabide ibilaldia.
- **09:30** *Nordic walking* ikastaroa.
- **09:30** Aretxabaleta-Larrino elizatea-Urkulu-Aretxabaleta ibilaldia.
- **10:00** Mandobide PR-GI 99 ibilaldia.
- **10:00** *Aitzulo, Debagoieneko leihoa* mendi ibilaldia.
- **10:00** Orientazio tailerra.
- **11:00** *Ortu bertikalak* tailerra, Ibarraundin.
- **11:30** *Serigrafia begetala* tailerra, Ibarraundin.
- **13:00** Olatz Salvadorren emanaldia.
- **16:00** Orientazio proba.
- **16:00** *Sendabelarrak ezagutzen* mendi ibilaldia eta tailerra.
- **17:00** *Txantxariak* haurrentzako emanaldia.
- **17:00** Tailerrak: heraldika, eskujokoak, Erdi Aroko jolasak...
- **18:00etatik aurrera** Jason, Foisis Jaunak, McOnak taldeen eta DJ Motoren emanaldiak.

MAIATZAK 5, DOMEKA

- **07:30** Arrasate-Atxorrotx Vasco-Navarro ibilaldia, bide berdetik.
- **08:30** Eskoriatza-Leintz Gatzaga-Atxorrotx ibilaldia.
- **09:00** Kalejira txistulariekin.
- **09:30** Espeleoabentura Arrikruz-Oñatiko Kobetan.
- **10:00** Elgeta 1936-1937: Intxortako ibilbide gidatua.
- **10:30** Atxorrotxera igoera
- **12:00** Maider Zabalegiren emanaldia.
- **16:00** Plastilina ekologikoa tailerra, plazan.
- **16:30** Haurrentzako jolasak harearekin, Gernika plazan.
- **18:30** Joselu Anaiak taldearen emanaldia.

* Izen-emateak: puntaikpunta.turismodebagoiena.com helbidean.

X. Koben Eguna egingo dute domekan Arrikruz kobetan

Lurpea elkarteak osatzen duten Euskal Herriko zortzi kobetan mota guztietako ekintzak egingo dituzte

E.A. DEBAGOIENA

Lurpea elkarteak Koben Eguna ospatuko du domekan, hamargarrenez, eta elkarteak osatzen duten koba guztiek bisita bereziak, erakustaldiak, zozketak eta beharpenak eskainiko di-

tuzte. Koba horietako bat da Arrikruz, eta asteburu osoan izango dituzte ekintzak. Batetik, bihar, 53. galerian egiten diren ohiko bisitez gain, *Espeleotxiki* bisita osatuak egingo dituzte, haurrei eta familiei zuzenduta-

koak. "Haurrak ikertzaile lanetan jarriko ditugu eta kobazulo ezezagun baina era berean ezinbestekoa den fauna ere ikertu beharko dute. Historiarreko animalien erreplikak ikusi ondoren, eta pasabidea albo batera utziz, kobazuloa bere egoera naturalean ezagutzeko aukera izango dute bisitariak", azaldu dute. 10:30ean hasiko dute saioa, eta bi ordu eta erdi inguru iraungo du. Parte hartzeko, erreserba egitea beharrezkoa da, 943 08 20 00 telefonora

deituz edo arrikruz@onati.eus helbidera idatziz.

Bestalde, domekan, Arrikruztzeko 53. galeriako bisita turistikoa erdi prezioan egiteko aukera egongo da, baina, horretarako, aurrez erreserba egin beharko da.

Urteurren borobila

Esan moduan, hamargarren edizioa izango du aurten Koben Eguna. EHUko Geologiako doktore Arantza Aranburuk azaldu duenez, koba horiek du-

ten garrantzia euren baitan gordetako informazioan datza, ikuspuntu ezberdinetatik analiza daitekeena.

Geologoak zortzi kobak bereizi, eta guztiak goreski ditu. "Bakoitzak bere bitxikeriak ditu: Pozalaguako kristaltxoak edonora begira hazten direnak, Arrikruzen lehoiaren hezurak ditugu, Ekainen eta Isturitzen gizakion aztarnak agertu ziren... Zortzietara joan gintezke libreki, bisitan, ikastera eta gure sentazioen gozamenera".

Espainiarako zerrendak, gertu; udaletakoak, egiten

Hauteskunde udaberrian bete-betea eta alderdi politikoen makineria jo eta su. Lau alderdi nagusiek gertu dituzte Espainiako Kongresuko eta Senatuko hauteskundeetarako zerrendak; eta udal hauteskundeetarakoak osatzen ari dira

Eneko Azkarate ARRASATE

Espainiako Kongresuko eta Senatuko hauteskundeetarako, EAJren kasuan Joseba Agirretxea izango da zerrendaburua Kongresurako eta Maribel Vaquero Senaturako –oraingoan ez doa Victoriano Gallastegi senatari ohi bergararra–. Vaqueroren lehen ordezkotza moduan Rafa Uribarren arrasatearra ageri da; bestalde, Mertxe Gardemdia izango da Senaturako bigarrena eta horren lehen ordezkotza Josu Ezkurdia zinegotzi eskoriatzarra ageri da. Kongresurako seiko zerrendan, bestalde, Miren Elgarresta zinegotzi oñatiar eta Diputazioko Berdintasuneko zuzendaria agertzen da lehen ordezkotza moduan.

EH Bildun, Nerea Zubia zinegotzi oñatiarra –bosgarren– eta Esther Larrañaga –hirugarren– eta Juan Ramon Garai –seigarren– arrasatearrak daude Mertxe Aizpurua buru duen zerrendan. Larrañaga (EA) sailburua izana da eta Garai zinegotzi Arrasaten. Senaturako, Gorka Elejabarrieta da zerrendaburua.

Elkarrekin Ahal Duguren Gipuzkoako zerrendaburua Kongresurako Pilar Garrido izango da; zerrenda ixten joango da Ezker Anitza ko koordinatzailea eta azken legegaldian honetan Espainiako Kongresuan diputatu izan den Isabel Salud bergararra.

Sozialistek dagokienez, Espainiako Senatuko lehen hautagaia Miren Gallastegi eibartarra eta Antzuolako alkategai eta gaur egungo zinegotzi dena izango da. Kongresurako, Odon Elortza da zerrendaburua.

Elkarrekin Ahal Dugu, batera?

Udal eta foru hauteskundeetan, Markel Olano izango da EAJren diputatugai nagusia eta Deba-Urola barrutian, Maria Eugenia Arrizabalaga zerrendako burua eta Aintzane Oiarbide hirugarrena. Zerrendan, Xabier Otxoa

aretxabaletarra ageri da zazpigarren eta Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkatea hamalaugarren, zerrenda ixten.

EH Bilduri dagokionez, Juan Karlos Izagirre Donostiako alkate ohi izango da diputatugai nagusia. Deba-Urola barrutitik, berriz, Mikel Biain izango da zerrendaburua; laugarrena, Aitor Arantzabal bergararra eta seigarrena Iker Intza bergararra.

Foru hauteskundeetarako ez da debagoiendarririk ageri PSE-EEren zerrendako lehen postuetan. Bestalde, oraingo astean eman dute aditzera sozialistek Debagoieneko alkategaiak: Arrasaten, Oscar Garcia; Bergaran, Alberto Alonso; Oñatin, Aitziber Fernandez; Aretxabaletan, Miren Lorea Lana; Eskoriatzan, Anabel Legaz; Antzuolan, Miren Gallastegi, eta Elgetan, Elias de Castro. Aramaion eta Leintz Gatzagan ez dute zerrendarik aurkeztuko.

Elkarrekin Ahal Duguk joan zen astean eman zuen aditzera batera aurkeztuko direla udal eta foru hauteskundeetara. Eskualdeko herri nagusietan aurkeztuko dira, Oñatin izan ezik, eta Antzuolan zerrenda osatzeko "ahaleginetan" ari dira. Oraingoz, erabakita dute Igor Urizar (Ahal Dugu) izango dela Arrasateko alkategaia eta litekeena da Bergaran bananduta aurkeztea. Ahal Duguk oraingo astean iragarri du Jose Mari Sasieta izango dela zerrendaburua. Irabazik egungo zinegotzi Aiert Lizarralde aurkeztuko luke zerrendako buru. Dena den, batera aurkezteko "negoziatzen" daudela esan dute bi aldeek.

ORAINGOAN NEKEZ IZANGO DA DEBAGOIENDARRIK KONGRESUAN EDOTA SENATUAN



Gipuzkoako foru hauteskundeetarako EH Bilduren hautagaiak. GOIENA



Gure ikasleen ahotan



Datuak, big data... guztion ahotan dabilzan gaiak dira. Zertan datza iraultza berri hau?

Une oro konektaturik bizi garenez, gure gailu elektronikoen, gure enpresek eta gure etxeek egunero datu pila bat sortzen dituzte. Gauzak horrela, enpresak, datu horiek ondo kudeatzeko, balioa eman dezaketela konturatu dira.

Izan ere, datuez ari garenean, informazioaz eta ezagueraz ari gara. Informazio horri esker, enpresek orainaldia hobeto ezagutuko dute, eta, are gehiago, etorkizuna iragartzeko gai izango dira, datu hauek kausa-efektu erlazioak ezagutzen lagunduko baitira.

Adibideren bat?

Osasun sektorean oso argi ikusten da. Denok jabetzen gara oso garrantzitsua dela

“Datuen zientzialarien beharrari erantzuteko, Business Data Analytics gradu berria sortu dugu”

Bi hamarkadaz banku-sektorean jardun ondoren, datuen analisisian dihardu orain, buru-belarri, Leire Legarretak. Datuen zientzialari hau Mondragon Unibertsitateko Business Data Analytics gradu berriaren koordinatzailea da. Bilbon emango den gradu hau aitzindaria da Euskal Herrian.

gaitz jakin bat hartzeko joera izateko eragiten dizkiguten faktoreak zeintzuk diren jakitea. Ezagutza hori gaitz horri aurre egiteko erabiliz, gure osasuna hobeto zaindiko dugu. Baina hau adibide bat baino ez da: marketinean, industrian, energia- edo finantza-sektorean datuen analisisiek gure bezeroen edo industria-prozesuen joerak identifikatzen lagunduko digute.


Eta zeintzuk dira erabiltzen diren erremintak analisiak burutzeko?

Informazio hori jaso eta maneiatzeko erreminta teknologikoak behar ditugu: batetik, programazioko erreminta teknologikoak eta datu baseak; eta, bestetik, erreminta matematikoak,

joera horiek modelizatu ahal izateko, estatistikako teknikak eta adimen artifiziala erabiliz. **Adimen artifiziala entzutean, roboten munduan datorkigu gogora.** Adimen artifiziala esatean, makina bati pentsatzen erakusten dioten teknikez ere ari gara.

Esparru honetan aritzeko datuen zientzialaria izan behar duzu, ezta?

Bai, hala da. Datuen zientzialariok makinei zenbait prozesu modu eraginkorrago batean egiten irakasten diegu. Baina esparru honetan beste lanbide berri gehiago ere sortzen ari dira: datuen analista, datuen ingeniari eta arkitektoak, bisualizazio-adituak, eta abar.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

Komunikabideen balorazioa

EZIN TXARRAGOA

OSO TXARRA

TXARRA


ONA

OSO ONA


BIKAINA

KONTSUMITZEN DITUZTEN MEDIOEN GAINEAN BAKARRIK ERANTZUTEKO ESKATU ZITZAIEN GALDETUTAKOEL.


ITURRIA: GOIENAREN INKESTA



EUSKADI IRRATIA



BERRIA



RADIO EUSKADI

Gertu-gertukoa, plurala eta oso ondo baloratua

1.800 laguni galdetgia bidali die Goienak komunikazio taldearen gaineko iritzia ezagutzeko, eta heren batek erantzun du. Emaitzari dagokionez, "oso datu onak" direla dio Iban Arantzabal zuzendari nagusiak: "Egiten dugunak badu babes"


Julen Iriando ARRASATE

Goienaren hedabideen kontsumitzaile diren 1.800 lagunek jaso zuten galdetgia erantzuteko gonbidapena, eta erantzun kopurua bera izan da pozteko aurreko arrazoiak, Arantzabalen arabera; izan ere, 597 lagunengandik iritsi dira erantzunak: "Ehuneko handia da, halako inkestetan %10era ez da iristen erantzuten dutenen kopurua". Lagina, beraz, "baliagarria" eta emaitza "fidagarria" dira, zuzendari nagusiaren esanetan.

Are balio handiagoa hartzen dute, honela, inkestak emandako emaitzek. Goienan egiten denak "babesa baduen edo ez" jakitea zen, besteak beste, helburua, eta erantzuna baiezkoa izan da, neurri handi-handi batean. Eta bilakaera ikusteko ere balio izan du ariketak; izan ere, orain baino lehen galdetegi eredu bera egin ez den arren, hainbat gauza, pluraltasunarena, adibidez, galdetu izan zaie erabiltzaileei aurrez ere, eta jendeak Goienarekiko duen iritzia bilakaera baikorra da: "Aurrera egin dugu; are gehiagok diote pluralak garena".



Goienako hedabide bi. JOKIN BEREZIARTUA



'Politikoki plurala al da Goiena?'

ITURRIA: GOIENAREN INKESTA

Oso datu garrantzitsua

Oraingo galdeketa jasotako emaitzei begiratuta, gehiengo handi batek uste du Goiena ez dela joera politiko konkretuekin lerrotzekin; %13,9 baino ez dira plurala ez dela diotenak, %66,9k diote baietz, plurala dela, eta %19,2k ez dakitela: "Inkestaren emaitzetatik gehien nabarmendu nahiko nukeena eta gehien poztu gaituena horixe da", dio komunikazio taldeko edukien arduradun Eneko Azkaratek. Azkaratek azpimarratzen du, gainera, plurala ez dela dioten horien artean ere erdibanakoa dela emaitza –eta hala da; izan ere, 39 lagunek erantzun dute Goiena EH Bildurekin lerratzen dela eta 34k EAJren aldera egiten duela: "Oso argigarria da. Goienan inportantzia handia ematen diogu pluraltasunari: helburu sozial garbia duen eta, horregatik, dirulaguntza publikoak jasotzen dituen hedabidea gara. Eta, guretako, kolore guztietako herritarrak berdina dira. Goiena jasotzen dute etxean aitajaun-amandreek; aita-amek; seme-alabek; anai-arrebek... familia osoak. Eta familia guztie-

tan daude modu batera eta bestera pentsatzen dutenak, hau edo bestea gustuko dutenak. Guk ez dugu honendako edo bestearendako informatzen, guztindako baizik. Eta, horregatik, batzuetan, pentsaera batzuetakoak haserretzen zaizkigu eta hurrengoan bestelako pentsaerakoak". Hori berresten du Arantzabalek ere: "Horrela izan behar du. Eta orekaren bila ere ez goaz horretan, goaz kazetaritza egitera"; informazioaren lanketan iparra kazetaritza irizpideak behar duela dakar gogora.

Arantzabalek dio hau horrela izatea, Goienako kazetaria nagusiki pentsaera bat duen jendearentzat ez aritzea, alegia, "zailtasun gehigarria" dela bere jardunean, eta balioa ematen dio horri; aldi berean, ez du ezkututzen erabiltzaileek masiboki duten pluraltasun pertzepzioarako lagungarri dela Debagoienean gaur egun dagoen boterearen banaketa: "Ziurrenik, datuak desberdinak lirateke udal guztietan balego EH Bildu edo denetan balego EAJ. Udalean dagoenak eta botereguneetan dagoenak askoz informazio gehiago sortzen du; askoz proiektu gehiago ditu saltzeko; eta askoz eraginkorragoa da, gainera –liberazio gehiago du horretarako, horretan pentsatzen dihardu".

Kontuak kontu, zuzendari nagusia pozik mintzo da, zenbaitek izan ditzakeen usteen aurrean zenbakiak daudelako: "Pertzepzioei erantzuten zaie datuetatik", dio, batekin edo bestearekin lerratzea egotzita une jakinetan kazetariengan presioa eragiten dutenen argudioei aurre egiteko moduko datuak direla gehituz: "Kazetaritza egiten jarraitzeko datu onak dira".

Goiena kontsumitzeko arrazoiak
Inkestako beste galdera bat Goiena kontsumitzeko arrazoiak

ezagutzera bideratuta zegoen; aukeran emandakoen artean nahi beste hauta zitzaketen galdekateuek, eta hona: %94,9k gertuko informazioa ematen duelako jarraitzen du Goiena; euskaraz delako, %60,8k; kalitatezko informazioa ematen duelako, %38,1ek; eta sinesgarria delako, %34,6k –dohainik izatea ere erabakigarria da %23,4ren zatik–.

"Goienaren altxor nagusia, indargune nagusia, marka, horixe da, gertuko informazioa; beste hedabideek kontaktzen ez duten hori kontaktzen duela, edo beste inork baino hobeto jorra

Inkestatik, ondorio gehiago

ARRAKASTATSUENAK

Goienaren hedabideetan, aldizkaria eta webgunea dira kontsumituenak eta baloratuenak. Telebista ez da haien neurria iristen, baina gero eta gehiago Interneten kontsumitzen dira ikus-entzunezkoak.

AGENDA


Inportantzia handia ematen dio jendeak aldizkariro atal honi, eta oso ondo baloratua dago.

PUBLIZITATEA


Inkestarek diote kasu egiten zaiola Goienako publizitateari. Datu ona da Debagoieneko komertzioei begira.

BANAKETA


Salbuespenik izaten den arren, harpidedunak oso gustura daude, oro har.




ETB2




ETB1



GARA



VOCENTO



NOTICIAS

dezakeela eta jorratzen duela informazio hori. Horixe da Goienaren balio erantsia eta Goienaren kontsumitzaileek gehien baloratzen dutena".

Horren harira, Iban Arantzabalek gogora dakar duela bost urteko inkesta batean gailendu zitzaizkiola lehen aldiz informazioarekin lotutako arrazoiak euskararenari; hizkuntzarekiko atxikimendutik harago doazela, beraz, Goiena kontsumitzeko arrazoiak. Euskararena, dena dela, esan gabe doa, "normalizaziorako tresna baita sorreratik Goiena", Eneko Azkaratek dioen moduan; baieztapena

indartzeko, Arantzabalek gehitzen du euskaraz "titili-totolo" dabilen horrek euskaraz kontsumitzen duen bakarria Goiena dela gehienetan, gertuko informazioa lantzeari egotziz hori hala izatea.

Beste arrazoiei dagokienez, sinesgarritasuna ere gertuta-

"KUDEAKETARAKO ERABILIKO DITUGU GURE INKESTATIK JASOTAKO EMAITZAK"

IBAN ARANTZABAL, ZUZENDARI NAGUSIA

sunarekin oso lotuta dagoela dio Arantzabalek: "Ezer aldebere esaten hasten bazara, deitu egiten dute berehala, edo bulegoraino etortzen da jendea".

Beste hedabideekin alderaketa

Goienari eta, Goienarekin batera, beste hedabide batzuei – eskualdekoak eta nazio mailakoak – nota jartzeko ere eskatzen zen galdetegian; gainerakoekin alderaketan ere oso onak dira Goienaren emaitzak (ikus goiko grafikoak). Bakoitzak kontsumitzen dituen hedabideen gainean soilik erantzuteko eskatzen zitzairen; beraz, erantzu-

nen kopurua eta nolakotasuna ikusita, bi ondorio atera daitezke: Goiena hedabide kontsumituen artean dagoela ETB1ekin eta ETB2rekin batera –Euskadi Irratia ere ez dago urruti; gainerakoak, bai–; eta bi telebista kateak eta Goiena onak, oso onak edo bikainak

"PLURALTASUNAREN GAINEN EMANDAKO ERANTZUNEN POZTU GAITUZTE GEHIEN"

ENEKO AZKARATE, EDUKIEN ARDURADUNA

direla uste dutenen kopurua antzerakoa izanda ere –oso altua–, oso ona eta bikaina izendapenean goitik dagoela Goiena.

Euskalitek eskatzen dituen parametroei erantzuteko moduan diseinatua izan da Goienaren oraingo inkesta, eta emaitzak "kudeaketarako" erabiliko direla dio Iban Arantzabalek: "Kudeaketa egin daiteke perzeptioetatik, baina kudeaketa eskasa egiteko aukera guztiak"; aukeraturako irizpideen arabera –herria, adina...– datuen azterketa xehea egiteko aukera ematen du, gainera, inkestak. Dena, hobetzen jarraitzeko.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukakleak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS

ARRASATE SL

ARRASATE

Meatzerreka 30

Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87

e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta halzeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45



Iragarkia jami nahil baduzu, deitu 943 25 05 05 zentekira.



Roberto Sanchez, oposizioetan iruzurra gertatu zela salatu zuen hiru anestesistetak bat, lanean. ROBERTO SANCHEZ

"Berandu dator Darponen dimisioa"

Osakidetzako oposizioetan iruzurra gertatu zela salatu zuten Debagoieneko ospitaleko hiru anestesistak ekainean, eta, ia urtea igaro ondoren Jon Darpon Jaurlaritzako Osasun sailburuak dimisioa aurkeztu du; kargua utzi duen hirugarren arduraduna da

Amaia Zabala ARRASATE

Osakidetzako oposizioetan iruzurra gertatu zela salatu zuten Debagoieneko ospitaleko Manoel Martinez, Marta Macho eta Roberto Sanchez anestesistek ekainean, eta, orain, bederatzita hilabete geroago, Jon Darpon Jaurlaritzako Osasun sailburuak dimisioa aurkeztu du. Oposizioen iruzurratetik kargua utzi duen

hirugarren arduraduna da Darpon, orain artekoetatik ardura-dun nagusia.

Roberto Sanchez medikuen oposizioan iruzurra salatu zuen hiru anestesistetak bat da eta adierazi du Osasun sailburuaren dimisioarekin "ados" dagoela baina "berandu" datorrela. Gaineratu du ez daudela ados, ordea, EAJk eta Eusko Jaurlaritzak

dimisio horrekin lotuta eginiko adierazpenekin: "Darponek ez duela ezer gaizki egin eta egoera baretzeko eta gu isilarazteko hartutako erabakia izan dela esan dute, eta hori ez da egia, Darponek hasieratik, betidanik, izan baitu iruzurraren berri, eta, arazoa konpontzen saiatu beharrean, sistema hau onartu eta lotsak tapatzen saiatu da".

Azaroan, Maria Jesus Mujika Osakidetzako zuzendariak eman zuen dimisioa eta handik gutxira, berriz, Juan Carlos Soto Giza Baliabideetako zuzendariak. Sanchezen esanetan, hura babestearren egin diren "dimisio txikiak" izan dira horiek, baina, azkenean, Darponek ere dimisioa aurkeztu duela: "Ezin izan du jasan".

"Dedocracia" bidezko sistema

Eusko Jaurlaritzak kasu "isolatua" izan dela esan izana ere salatu du Sanchezek: "Ospitaleko medikuen postuak emateko sistema *dedocracia* da eta horrela funtzionatzen du, ez da inolaz ere kasu puntual bat izan, Eusko Jaurlaritzak aditza eman nahi izan duen moduan".

Sanchezek gaineratu du iruzurra salatu zuten hiru anestesistek ez dutela inoiz esan Darponek oposizioetan iruzur hori nahita egin duenik, baina bai sistema injustu horri "aurre egin beharrean onartu" egin duela.

Konponbide eske

"Darponen dimisioarekin ez da nahikoa; Eusko Jaurlaritzak egia aitortzea eta barkamena eskatzea nahi dugu, eta, behin hori eginda, mahai batean eseri eta konponbideak bilatzen saiatzea ere bai, ez baita justua diru publikoa modu honetara erabiltzea. Hurrengo Osakidetzako oposizioak justuagoak izan daitezkeen zer eta nola egin aztertu beharra daukate. Zerk ziurtatzen digu, bestela, ez dela berriro gertatuko?", esan du Sanchezek.

Epaitegien esku

Epaitegietan iruzurra ikertzen ari dira eta fiskal nagusiaren

kereila tramiterako onartu zuen Gasteizko bigarren instrukzio epaitegiak joan den astean; ondorioz, fiskalak akusatutako Anestesiologiako, Angiologiako eta Digestio Aparatuko hiru epaimahaikideak ikertuak izaten ari dira. Bi delitu aipatu zituen epaileak: agirien zaintzan desleialtasuna egitea, batetik, eta sekretuak aurkitzea eta agertzea, bestetik.

Hiru epaimahaikide horiez gain, dagoeneko dimititu duen Juan Carlos Soto Giza Baliabideetako zuzendaria, Xabier Balderdi Giza Baliabideetako zuzendariordea eta Andoni Arzelai Osasun Arretako zuzendaria ere aipatu zituen fiskalak. Epailea hiru lagun hauek ikerketapean ezarri edo ez erabakitzen ari da, eta, momentuz, lekuko gisa deklaratu dute maiatzean.

Darponen ordezkoa

Horiek horrela, Nekane Murgak hartu du Darponen kargua aste honetan. Jaurlaritzako Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria da egun, eta, medikuntza eta kirurgia ikasketak izateaz gain, kardiologian doktorea da. Horrez gain, EHuko irakasle elkartua da 2013a ezkerro eta, besteak beste, Basurtuko ospitalean Kardiologia Klinikoko atalburua izan zen.

Era berean, *Emakumeak kardiologian* izeneko Espainiako lantaldeko arduradun izana ere bada.

"DARPONEK HASIERATIK ZUEN IRUZURRAREN BERRI ETA EZKUTATU EGIN ZUEN EGIA"

Ertzainen protesta, segurtasuna bermatzea eskatzeko

'Hondamendia Ertzaintzan' lelopean protesta egin dute Bergaran Erne eta Esan sindikatuek

Amaia Zabala BERGARA

Hain zuzen ere, lanean ari direnean euren segurtasuna bermatu ahal izateko ertzain gehiago behar dituztela aldarrikatu zuten, besteak beste, eta elkarretaratzeak, Bergaraz gain,

Tolosan, Sestaon eta Basaurin ere egin dituzte.

Eneko Urkijo Esan sindikatu-ko idazkari nagusiaren esanetan, EAEn 8.000 ertzain egon behar-ko lirake eta kopuru hori osatzeko 800 falta dira: "Ertzainen

falta hori dela eta, EAEnko bizi-lagunen eskaerari ezin diogu erantzun eta, gainera, horri delinkuentzia izugarri ugaritu dela gehitu behar diogu".

Urkijok salatu du Eusko Jaurlaritzak 2014an ezarri zuen polizia-ereduak herritarrekiko gertutasunaz hitz egiten duela baina eredu horrekin "kontrakoa" ari direla lortzen: "Lehen, komisariak genituen Arrasaten eta Oñatin, esaterako, eta orain, guztia Bergaran zentralizatu da, eta herritarrengandik urrundu".



Erne eta Esan sindikatuetako ertzainak, Bergaran eginiko protestan. JOKIN BEREZIARTUA



Soraluceren planta berria, Portal Factory, bisitatzen. ARANTZAZU EZKIBEL

9 milioiko inbertsioa makina handietarako

Bergarako enpresak 9 milioi euro inbertitu ditu Soraluce Portal Factory izeneko planta berrian, eta instalazio neurri eta potentzia handiko makinaren gama berri bat fabrikatzera zuzenduta dago, tamaina handiko piezen mekanizazioarako

Amaia Zabala BERGARA

Soraluce makina-erremintan Bergarako enpresak 9 milioi euroko inbertsioa egin du Melalden ekoizpen lantegi berri bat eraikitzeko. Instalazioa neurri eta potentzia handiko makinaren gama berri bat fabrikatzera zuzenduta dago, tamaina handiko piezen mekanizazioarako.

Portal Factory da lantegiaren izena, eta 4.900 m²-ko azalera erabilgarria dauka, 17 metroko altuera eta 80 tonarainoko garabi ahalmena. Rafael Idigoras Soraluceko zuzendari nagusiak azaldu du neurri horiekin enpresa gipuzkoarrak makina handiak fabrikatu ahal izango dituela portiko erako arkitekturarekin: "Gure fabrikazio zentrorik osatuena eta aurreratuena da Portal Factory. Inbertsio hau aurrerapauso handia da portiko erako makinaren gama berrien garapenean, zeinarekin industriaren sektorean neurri handiko piezen mekanizazioarako gero eta handiagoa den es-

kaerari puntako teknologiarekin erantzun nahi diogun".

Instalazio berriekin, mahai mugikorrek zubi erako fresatzeko makinak, gantry fresatzeko makinak eta zeharraga finko eta mugikordun makinak garatu ahal izango dira. Soralucerri neurri handiko piezen mekanizazioaren alorrean eta funtzio askoko makinaren eremuan "aurrera egitea ahalbidetuko dioten" ikerketa proiektuak garatzeko ere erabiliko dira; izan ere, Idigoras esanetan, arlo horiek estrategikoak dira enpresa bergararentzat: "Fresaketa eta torneaketako teknologietan liderak izateak ahalbidetu digu gure bezeroen efizientzia eta produktibitatea areagotzeko bi-

**PORTAL FACTORY
PLANTA BERRIAN 9
MILIOI EUROKO
INBERTSIOA EGIN DU
SORALUCEK**

deratutako mekanizazio soluzioen hornitzaile integral bihurtzea. Portal Factory berriak eskatzen du norabide horretan aurrera egiten jarraitzea, eta funtsezko mugarrria da gure Plan Estrategikoan, zeinak gure produktuen gamaren hedapena, bereizkuntza teknologikoa eta nazioarteko merkatuetako finkapena baititu helburu nagusi".

Soraluce Summit 2019

Instalazio berriak eta I+Garen alde egiten duena ezagutarazteko, Soraluce Summit 2019 ekitaldia antolatu du enpresak planta berrian, Portal Factoryn, sektoreko profesionalen eta konpainien arteko ezagutzen truke-rako leku gisa. Martxoaren 21ean hasi zen eta gaur da azkeneko eguna.

Jardunaldietara bertaraten direnek portiko erako makinaren abantaila teknologikoak egiaztatu ahal izango dituzte mekanizazio baldintza errealean, enpresako adituen eskutik.



Markel Olano eta Maria Ubarretxena, Arrasateko Caritasen. GOIENA

Arrasatek "lan duina" sortzeko ahalmena duela dio Olanok

Arrasateko alkatearekin batu da eta PMG Polmetasa enpresan eta Caritasen Bidean zentroan ere izan da

Amaia Zabala ARRASATE

Gipuzkoako diputatu nagusi Markel Olano Arrasaten izan zen atzo bisitan. Maria Ubarretxena Arrasateko alkatearekin bilera izan zuen aurrea udal-txean, eta ondoren, herriko bi gunetara bisitak egin zituzten.

Arlo ekonomikoa eta soziala

Herrian dauden erronka nagusiak eta bertako ikuspegiak ezagutzeko aprobetxatu zuen Olanok bisita, eta, ondoren, arlo ekonomikoa dagokionez Arrasatek duen indarra azpimarratu zuen: "Bistan da Debagoienak eta Arrasatek indar oso berezi bat daukatela hor. Gainera, bere oreka soziala ere sare ekonomiko indartsu batean oinarritzen da, kooperatibak eta beste zenbait enpresak enplegu duinak sortzeko daukaten ahalmenean, hain zuzen". PMG Polmetasa enpresa bisitatu zuten eta Maria

Ubarretxenak aukera baliatu zuen kooperatibak ez diren Arrasateko enpresen lana ere azpimarratzeko.

Arlo sozialari dagokionez, Caritasen Bidean zentroa bisitatu zuten eta Olanok adierazi zuen Gipuzkoan 35.000 pertsona daudela pobrezia egoeran eta arlo horri ere bere erantzuna eman behar zaiola. Jakinarazi zuen horri aurre egiteko jarri dutela martxan *Elkarrekin* izeneko ekimena eta horren helburu nagusia dela bazterkeria egoeran daudenendako plangintza bat egitea, "lan duin" baterako sarbidea izan dezaten. Gaineratu zuen euren apustua arlo honetan dela lurralde bezala aitzindariak izatea.

Bestetik, Olano Arrasateko udaletxean zela aprobetxatuz, Eibarko Egogain nagusien egoitzako lau langilek protesta egin zuten plazan.

Yeray Alvarez SpainSkills lehiaketan izango da

Yeray Alvarez Aretxabaletako Lanbide Eskolako Soldadura ikasleak SpainSkills lehiaketan parte hartuko du martxoaren 29an Madrilan.

Lehendik ere eskarmentua du Alvarezek, iaz EuskoSkills lehiaketa irabazi baitzuen.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak antolatzen duen eta trebezia ezberdinak

bultzatzea eta ikasleak, irakasleak eta enpresak estimulatzea helburu duen lehiaketa da SpainSkills. Datorren astean bertan irabazten duena EuroSkills eta WorldSkills txapelketarako sailkatuko da.

Azken bi hauek irabazi asmorik gabeko gobernu kanpoko erakundeak dira eta helburua da, bi urtean behingo lehiaketa antolatzeaz gain, parte hartzaileak eta adituak elkarrekin harremanetan jartzea eta ezagutzak eta kultura elkarbanatzea.

Komunikatzeko modu berriak erabiltzeko gida

Nerabeei zuzendutako gida pedagogikoa sortu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateko KoLaborategiak; komunikazio kanal berriak erabiliz, nerabeen eta Aldundiaren arteko harremanak sustatzea da helburua

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Aldundiak hala eskatuta, KoLaborategia izan da gida hau sortu duena, gizarte digitalerako hezkuntzaren eta komunikazioaren laborategia, hain zuzen.

Gidaren helburuak honako hauek dira: hainbat konpetentzia digital ikasleekin lantzeko tresna izatea, dinamika eta orientabideen bitartez idatziz, irudiz eta bideoz egoki komunikatzeko lanketa erraztea, eta e-partehartzea eta jendarte digitalerako hezkuntzan sakontzeko aukera eskaintzea.

Nagore Ipiña eta Ander Bolibar dira gidaren sortzaileak. "Aldundiak bazuen kezka bat gazteek komunikazio kanalak erabiltzeko moduekin. Arlo horretan eragiteko, hezkuntza oso garrantzitsua zela ikusten zuten, eta proposatu zituzten zerbait egitea gazteak eta komunikazio kanal berrien inguruan. Modu horretan, egokia ikusi genuen ikasleentzako gida pedagogikoa bat sortzea", azaldu dute.

Lehenik, gazteek erabiltzen zituzten kanal motak identifikatu zituzten, eta gero, testu motak. "Batetik, Aldundira helitzen ziren mezuen tipologia aztertu genuen: ze mezu mota ziren, nola zeuden egituratuta eta ze eskaera, galdera edota proposamen zeuden. Bestetik, Europa mailan kanal honetako 22 gida aztertu genituen, eta konturatu ginen ez dagoela gidarik komunikazio kanal berriak, testu generoak eta administrazio publikoa lotzen dituenik". Aitzindaria da, beraz, gida hau.

Bi azterketa horietatik abiatuta, testu mota bakoitzak eskatzen zituen ezaugarriak begiratu eta gida lantzen hasi ziren. "Gida lantzerako orduan, faktore garrantzitsu bat izan da Gipuzkoako Foru Aldundia ezagutaraztea eta bere eskumenak zeintzuk diren jakinaraztea. Izan ere, ikasle askok ez dakite zer



Ander Bolibar eta Nagore Ipiña, Huhezi fakultatean, gidak eskuan dituztela. E.A.

GIPUZKOAKO IKASTETXE GUZTIETAN BANATUKO DITUZTE BII GIDAK, ASTE HONETAN ETA HURRENGOAN

den ere. Beraz, gidak berak azaltzen du zer den Aldundia eta zer eskatu diezaioketun".

16 urteko gazteentzat, bereziki

DBHko laugarren mailako ikasleei zuzenduta dago bereziki, nahiz eta nerabe eta gazte guztientzako baliagarria izan daitekeen. Aste honetan eta hurrengoan bidaliko dituzte gida hauek Gipuzkoako ikastetxe guztietara -113 dira-. "Testuinguru soziolinguistikoak eta hezkuntza ereduak kontuan hartuta, banatuko diren giden %80 euskarazkoak dira eta %20 gaztelaniazkoak".

Irakasleen gida

Ikasleen gidaz gain, irakasleentzako gida ere egin dute, proiektuaren funtsa modu egoki batean transmititu diezaieten. "Ikusten genuen, ikasleentzako gida bat ere egin behar genuela, komunikazio eraginkor bat sortzeko tresna gisa. Hiru ardatz ditu gida honek: digitalizazioa, e-partehartzea eta jendarte digitalerako hezkuntza".

"Komunikazio eraginkor" baterako adibideak ere jasotzen ditu irakasleentzako gidak, baita ikasleekin lantzeko saioak ere. "Saioek, gainera, errealitate areagotuaren bidezko bideo bat dute".

Lehiaketa

Gidak gizarteratzeko asmotan, lehiaketa bat jarri dute martxan. "Ikasleei erronka bat planteatzen zaie: zerk arduratzen gaitu Gipuzkoaren etorkizunetik? Ze proposamen ditugu Gipuzkoa hobeto erabiltzeko? Talde txikitik banatuta, kanal mota bakoitzeko proposamen mezu erreal bat sortzea eskatuko zaie ikasleei, eta Aldundira helaraztea". Maiazaren 3a izango da lanak aurkezteko azken eguna.

Lehiaketa ikasleengana heltzeko asmoz, bideo bat sortu dute. Twin Melody ahizpa bikoteak egin du, "gazteengana errazago heltzeko amu moduan", eta datorren astean publikatuko dute.



lax, egitasmoaren lehen edizioan, egindako saio bat. ELKARREKIN EKIN

Ekintzailatza sustatzen duen Elkarrekin Ekin programa, abian

Bigarren edizioa du Mondragon Team Academyk, MUK eta Oñatiko Udalak elkarlanean sorturiko egitasmoak

E.A. DEBAGOIENA

Iaz jarri zuten martxan Elkarrekin Ekin programa Oñatin, eta izan zuen arrakasta ikusita, aurten errepikatzea erabaki dute. Helburua da ekintzaileen komunitate bat sortzea. "Jende asko dago inizatiba askorekin, ideia pila batekin, eta negozio berriak martxan jartzeko asmoarekin. Elkarrekin Ekin egitasmoaren helburua da jende hori elkartzea, haien beharrak zeintzuk diren aztertzea, eta behar horiei erantzunak ematean saiatzea, ideiak proiektu bihurtzeko, edota negozioari buelta bat emateko", azaldu dute Aitor Garciak eta Begoña Ugartek, Mondragon Team Academyko kideek.

Ekintzaileei zuzendutako egitasmoa da, baina, oro har, Debagoieneko herritar guztientzako interesgarria izan daitekeela uste dute. "Edozein ideia daukan pertsona bat, kultur talderen

bat, dagoeneko negozio bat martxan duen edonork eta abar gerturatu daiteke guregana. Programa honekin lagunduko diegu buruan daukaten ideia hori gehiago zehazten edota gauzatzen. Azken batean, helburua da merkatuaren eta herritarren beharrak bateratzea".

Astelehenean, lehen saioa

Bi adituren hitzaldiarekin hasiko dute programaren bigarren edizioa, astelehenean -martxoak 25-. Hala, Juanjo Brizuela *branding* adituak eta Arantza Etxebarria Alma Shops enpresaren fundatzaileetako batek MUKo Enpresagintza Fakultatean hitzaldia eskainiko dute, 14:00etan. Ostean, *Ideen garapen prozesua* abiatuko dute martxoaren 27an -sei saio izango dira guztira-. Izena emateko, 669 976 784 telefonora deitu edo *elkarrekinekin@gmail.com* helbidera idatzi.

Txorien hizkuntzari buruzko ibilaldia, martxoaren 30ean

Gipuzkoako Parketxe Sareak ibilaldiak antolatu ditu aurten ere Gipuzkoako Parketxeetan inguruko txoriak eta hauen kantuak ezagutzeko, eta lehen hitzordua Arantzazuko Parketxean izango da martxoaren 30ean, zapatua, 10:00etan. Ibilaldia zailtasunik gabekoa izango da, eta, bidean, inguruko txoriak eta hauen kantu ezberdinak ezagu-

tzen lagunduko duten azalpenak emango ditu Eneko Azkue Arkamurka Natur Taldeko kideak. Bi ordu inguruko iraupena izango du saioak eta prismatikoak eroatea gomendatzen dute antolatzaileek. Adin eta ezagueramailla guztikoentzat dago zuzendua ibilaldi hau.

Izen-ematea bost euro da, eta bide hauek erabili daitezke horretarako: 943 78 28 94 eta 699 335 183 telefonoak edota *arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net* helbidea.

GUTUNAK

Gutunak aterpetxetik (hitzaurrea)**ARITZ URIBARRI**

ESKORIATZA

Nire inguruan milioika gizaki bizi dira hogeita bi pertsonari begira, baloi baten atzetik korrika nola egiten duten.

Sentimendu esaten diote.

Sentimendu horrek berak eragiten die jende nagusia edozein gasolineratan botata uztea.

Eta niri, berriz, zoro esaten didate!

Besarkada bero bat jende nagusiari; batez ere, Isabeli.

Eta irabaztera!

Beti!

Agintaldi honetako Maria Ubarretxenaren proiektu izarrak: Apendices operazioa, disparate baten kronika**RAMON UGALDE**

ARRASATE

Aprendices Udalaren jabetzara pasatu zenean, sekulako lorpen gisa aurkeztu zuen. Bere gobernu-aldiaren proiektu estrategikoa zen.

Hori lortzeko, Udalak onartu egin du SPRIri ia 2.700 m² ematea Zalduspen eta urbanizazio lanak bere gain hartzea.

Kontuan hartzen badugu Aprendicesen orubeak 1.800 m² baino gehiago ez duela,

garbi dago Arrasate galtzen ateratzen dela.

Zer dela eta horrelako tratu desorekatua?

Norentzako da estrategikoa horrelako permuta bat egitea?

Dirudienez, Zalduspeko eremu horretan "bata zuridun" enpleguak kokatuko dira, baina balizko bata zuridunen enpresak Garaia Gunera bideratzea ez da logikoagoa?

Bide batez, jakin gura genituzke operazio honen guztiaren gastu ezkutua: biltegi toxikoen kudeaketa, Zalduspeko enpresen egoera, orubeen erosketetan gastatzen ari diren dirua, eremu horren urbanizazio gastuak... eta 2007an Aprendices itxi behar izan zutenean, erakin horren patologia aztertu zuen adituaren txostenak zioena.

Elmako bulegoen eta Zerrajerako erlojuaren eraikinak Udalaren jabetzakoak izanik, ez dugu ulertzen ez Aprendicesekin horrela tematzea ez eta SPRIrekin egindako permuta hori.

Eraikin bi horietan nahikoa leku dago Arrasateko kultur ekimen gehienak kokatzeko. Eraikin horiek askoz egoera hobean daude eta birgaitze lanak askoz ere merkeagoak izango lirateke.

Bestalde, nola da posible 6,2 milioitik 5,6ra jaitea –

BEZa sartu gabe– obraren aurrekontua? Agian, zinegotziek ez daukate zertan jakin zeintzuk diren eraikuntzako gastuen gorabeherak, baina Hirigintza Saileko teknikariek? Horrek berak ez du ikerketa bat eskatzen?

Eta zer esan egiten ari diren berreraiketaz? Ba al dauka zentzurik egoera penagarrian dauden horma horiek –gerora guztiz estalita joango direnak– ez erortzeko jarri dituzten burdinazko habe eta zutiko handi horiek? Ba, ez, ez dauka inongo justifikaziorik horrelako zentzugabekeria bat egiteak. Eraikin hori berreskuratu nahi bazuten, merkeagoa eta bidezkoagoa –tranpak egin gabe; hau da, erortzeko zorian zegoela eta ez zela arkitektura arrazionalista onartuta, errekarrekiko tartea errespetatuz eta, bide batez, errekarrekiko irisgarritasuna lortuz–, askoz ere aukera hobea zuten eraitsi eta behar bezala berriro jaso izan balute.

Errare humanum est sed perseverare diabolicum.

Bihotzetik**LEIRE ARANA**

SARASUA ETA LASKARAI SENDIEN IZENEAN ARETXABALETA

Hau idazten ari garela igaro dira ordu batzuk larunbateko *Hegotik Iparrerantz* jaialdiko

maitasun zaparradatik. Horrela jaso genituen Aitorren familia zabalekoek sortu ziren momentu txiki eta handi guztiak.

Elkarrekin bazkaldu dugu gaur Iparraldeko etxeko eta lagunekin, eta atzoko momentuak eta sentsazioak errepasatzen eman dugu otordua.

Oroimean luzaro gordetzeko eguna izan zen ikuspegi askotatik; euskal kulturaren topaketa bat, herrigintza bizirik dugula erakusten duen frogata. Musika, dantza, antzerkia, bertsoak, euskara ezberdinak, mundu ikuskera ezberdinak, errespetua, duintasuna, eta oroitzapenak maitasunaren hariz josita geratu ziren oihal koloretsu eta berezia sortuz; garai hotzak datozenean goxatzeko baliatuko duguna.

Familiakook hasieratik begirunez jaso dugu herritarrek, elkarrekin eta udalak sortu eta bultzatu duten ekimena. Eta mirespenez han gertatutakoaren maila eta benetakotasuna.

Zer ateratzen zaigu orain?

Eskerrak ematea, larunbateko eguna modu baten edo bestean jardunez posible egin duzuen lagun guzti-guztiei.

Bihotzetik.

HANDIK ETA HEMENDIK

Olioia**ONINTZA ENBEITA**

HTTPS://LABUR.EUS/LRS9W

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Itsasontzi bat lehertu zen Arroxela inguruan duela aste bi eskas. Hasieran, ez genuen inon ezer ikusi, eta, sare sozialetan zabaldutako mezuen ostean, informatiboetan agertu zen. Ontziak material arriskutsua zeraman, baina ez dago informazio zehatzik: kontenedoreak ur azalerako bidea egin dute itsasontzia hondoratu eta gero. [...]

Orain, hegazti bat agertu da hilda; Hendaian. Gorpuren ia hiru heren zeuden fuel olio ez estalita. [...] Gaur-bihar batek daki, baina hegaztia aurkitu eta lehen orduetan inork ez du aitortu Arroxelan gertatutako istripuaren ondorioa denik. [...] Eta orduan, bat larritu egiten da. Ze, hegazti hori ez bada Hendaia heldu Arroxelan barrena, beste nonbaitetik iritsi da, eta beste nonbait horretan olioia dago. Fuel olio asko: gorputzaren %70 estaltzeko adina. Orduan, ia hobe da txori migraria lehertutako ontziaren ingurutik datorrela pentsatzea. Beste aukerak itsasoa olio ez beteta dagoela pentsatzera eramaten baikaituzte. Eta okerrena da hori ere ez dela gezur osoa izango. Baina jarrai dezagun pentsatzen galiziarrek direla halako istripu batean engainatu zituzten bakarrak.

GUTUNAK: Karaktetarak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Post gehiago 9. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBERA



ZABALIK

JOXAN LARRAÑAGA

Plastikoak "ito"?

Egun hauetan entzun eta ikusi ere egin dugu Euskal Herriko gazteek, estatuko eta Europako gazte ikasleek, alarma piztu dutela mundu osoan.

Plastikoa horrenbeste erabilia *ito* egingo dugula bizia duen oro.

Arrainetatik hasita, arraina elikagai duten gizaki eta animaliak...

Ikasleak eta haien aurretik arazo honen aurrean ikertzaile izan diren biologo, ekologista eta kezkatzen ari garen hiritarrak.

Mundua guk aurkitu dugun bezala edo, ahal bada, hobeto uzteko asmoa dugunok ere ikusten dugu arriskua.

Garapen bidean dauden hainbat herrialderi bisita egiteko aukera izan dut aurreko urteetan, eta han kalean ikusten da arazoa.

Edozein izkinatan plastiko poltsak pilatuta, haizeak zokoratu dituela.

Garbi dago herrialde horietan ez dutela aukerarik bildu eta berrerabiltzeko.

Azpiegiturak ez dauden tokietan beste lehentasun batzuk izaten dituzte: ur zikina, eta abar.

Arazo handia da, eta potoloa, eta, lurraren beroketarekin batera,

NAZIOEN ARTEKO AKORDIOEN BAT, ITUNEN BAT EDO INTERBENTZIOEN BAT BEHAR DA

kezkatzeko modukoa.

Iruditzen zait nazioen arteko akordioaren bat, itunen bat edo interbentzioaren bat izan beharko litzatekeela lehenbailehen.

Baina, bien bitartean, ez gaitezen lotan gelditu ezer egin gabe, eta guk ere egin dezagun zerbait.

Hasteko, hezkuntzan ardura dutenek eta curriculumak egiteko lana dutenek programatu ditzatela prebentzioarako gaiak, haurrak eta gaztetxoak mentalizatzen joan daitezten.

Azalera handiko merkaturak saltzeko sistema alda dezatela, horrenbeste plastiko ez erabiltzeko. Lege batzuk atera ditzatela plastikoaren erabilera gutxitu ahal izateko.

Eta gu geu ere, zu zeu, irakurle, alegia, eta neronek barne, gogoan izan dezagula arazoa eta plastiko gutxiago erabili.

Zero plastiko kontsumitu arte.

Animo!

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Urrutiko intxaurrak

MIKEL ITURRIA

HTTPS://LABUR.EUS/ENZHC
'EIBAR.ORG'-N ARGITARATUA

Bi lerro azken boladan buruan bueltaka dudana kontu bati buruz.

Madril. Bazkari bat. Ezagutu berri dugun pertsona batekin ari gara solasean. Lehendik badugu elkarren berri, baina gaur arte ez gara elkarren ondoan egon. Hau da, gaur da lehen aldia elkarri aurpegia jartzen diogula.

Une jakin batean Donostia goratzen du berak, batez ere sukaldaritza kontuak. Aldiz, Madrilgo erdialdea alferrik galduta dagoela esaten du.

Gauza gehienak turismoaren mesederako egin direla.

Hau da, nik, guk, Donostiako Parte Zaharrari buruz esaten dugun gauza bera aipatzen du berak.

Asteburu bat pasatzen duzu Madril eta gustura egoten zara bertan.

Katalunia. Euskal Herriko jende asko dago Kataluniari begira. Independentismoa dela eta ez dela, bertako hainbat politikari eta herritar askok hartutako bidea goratzen da. Aldiz, hemengo politikariak (EAJ eta Urkullu buru, bereziki) bide independentista pikutara bidaltzen ari direla salatzen da.

Ireki parentesia. Lizarra-Garazi garaian Javier Ortiz

maisuk idatzitako zutabe hau irakurtzea gomendatzen dizuet: *El PNV no es independentista*. Itxi parentesia.

Kataluniako beste hainbat lagunekin hitz egin eta Euskadin (beraiek horrela esaten dute) hartutako bidea goretzen dute.

Bi, lau edo hamalau. Beraz, zein da biderik ederrena? Zer gertatzen ari da benetan? Ez dakit, baina komeni da tarteko distantzia hartzea.

Izan ere, urrutiko betaurrekoak jantzita, hamalau ikusten dugu, baina gertukoak soinean jarrita lau... edo bi. [...]

Post gehiago 9. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna Igone Osinaga.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Espetxe legedi modernoagoa eskatzen du euskal gizarteak"

LARRAITZ UGARTE EH BILDUKO LEGEBILTZARKIDEA

Eneko Azkarate ARRASATE

Beste espetxe eredu bat proposatu du EH Bilduk eta 100 neurri zehatz batu ditu espetxe politika aldatzeko. Legebiltzarrean eztabaidatu dute gaia.

Zerk mugiarazi du EH Bildu urrats hau egitera?

Herrri honek prestatuta egon behar du geratzen diren transferentziak ailegatzeko direnerako. Ez daukagu zigor kodearen gaineko eskumenik eta ezta legedi penitentziarioarenik, baina antolatze eskumena izango bagenu, inportantea izango litzateke beste espetxe politika baterako.

2020rako geratu ziren Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuaren espesetxeen transferentzia akordatzeko.

Horregatik uste dugu eskumena datorren erako komenigarria dela espetxe politikaren gainean eztabaidatu eta adostea. Ez dugu transferentzia nahi espainolek egiten dutena



Larraitz Ugarte. GOIENA

egiteko. Euskal gizarteak aurreratuagoa da, helduagoa, beste kalitate demokratiko bat dauka, eta, zentzu horretan, espetxe legedi modernoago bat eskatzen du.

Zenbatekoa da adostasuna?

Legebiltzarrean joan zen astean egin zen saioaren ostean, hiru ondorio ateratzen ditut: erabateko gehiengo batek, PPK izan ezik, gainerako guztiok ikusten dugu espesetxeen transferentzia

lehenbailehen gauzatu behar dela. Bigarrenik, gehiengo horrek ikusten du behar dugula espetxe sistema ezberdina, gizatiarragoa, duintasun printzipioetan oinarritua... Eta, hirugarrenik, agerian geratu zen Eusko Jaurlaritzak ez dituela bere lanak egin.

Herrri aurreratuenetako espesetxeak eta kudeaketa modua planteatzeko dituzue. Zer duzue buruan?

Egungo makro-espetxeen ereduak ez da balekoa. Hor dago Zaballa, baina beste zentro txikiago batzuen alde egiten dugu: erregimen irekian egongo direnak; lehen gradua edota isolamendua oso une berezi eta zehatzetarako erabiliko dutena; familia moduluak izango dituenak; emakumeak beren umeekin egoteko aukera emango duena; zigor alternatiboak aplikatuko dituenak; biktimizekiko konpentsazioak bultzatzen dituenak; presoak bertan errolatuta izatea ahalbidetuko duena...

Konpromisorik hartu zuen Eusko Legebiltzarra, joan zen asteko bilkuran, urratsak egiten jarraitzeko?

Ez. Dena den, bilkuraren eta egin den lanaren ostean, Jaurlaritza presionatuta sentitzen da pausoak emateko.

HAU BE BADOGU!

Bruselan ere Altsasuko gazteak hizpide



Altsasuko zortzi gazteen gurasoek eurodiputatu batzuen babesa jaso eta hitzaldia eskaini dute asteon Bruselan.

@Altsasugurasoak: "Egunon Brusela. Beste egun batez, prest gaude Altsasuko gazteen kasua ezagutzera emateko.

Aurrera! #AltsasukoakAske.

@sabinocuada: "Altsasu, duintasuna, solidaritatea eta irmotasunaren adibidea".

Alex Txikon protagonista sarean



Alpinista bizkaitarrak ezin izan du K2 neguan igo, eta etxera bueltatuko da. Nazioartean ere jarraitu dute bere espedizioa, eta, batez ere, Nanga Parbat-en Ballard eta Nardi aurkitzeko espedizioan parte hartu duelako.

@AlexTxikon: "Azken agurra behe kanpalekuan. Egun goibela da. Denak du hasiera eta amaiera, baina espero dut hau gero arte bat soilik izatea".

La Polla Records 'trending topic', berriro

Taldeak bere itzulera iragarri ondoren kontzertuetarako sarrerak salgai jarri, eta bi ordutan agortu ziren:

@Zetxaburua: "La Polla Records ikusiko duten 17.000 lagunak 'nostalgikoak' omen".

@PedalKolpeak: "Homer Simpsonnek zioen munduko diru guztiarekin ere ez zinela gai izango dinosaurio bat erosteko. Diru eta zorte pixka batekin La Polla Records ikusteko gai izango zarete".

ITURRI ONETIK

Bitorianatxo lehenago helduko da aurten

Bergarako jaien hasiera ofiziala, Bitorianatxoren jaitsiera, ordubete aurreratu da aurten. Horrenbestez, 20:00etan beharrean, 19:00etan hasiko dira Pentekosteak, ekainaren 7an. Aurtengoa, 39. urtea da Bitorianatxo Seminarioko teilatutik udaletxera jaisten dena. Beti 20:00etan. Jai batzordeak eskatu du aurreratzea, duela hiru urte igoera 00:00etatik 22:00etara aurreratzea eskatu ostean. Bitorianatxoren aurretik, Txibisto -1979- eta Txirulari -1980- izan ziren.

ALBISTE IZAN ZEN

2011-03-23

Elikagaien Bankuko biltegia inauguratu zuten

Bergarako Elikagaien Bankuaren biltegia - lurraldeko bigarren- inauguratu zuten Markel Olano diputatu nagusiak eta Agurte Berruso alkateak. 106.200 euroko inbertsioa egin zuen Diputazioak San Juan auzoko 200 metro koadroko biltegia atontzeko eta elikagaiak hara eta hona garraiatzeko furgonetarako. Deba eta Urola eskualdeei zerbitzu emateko ireki zuten biltegia. 60 boluntariorekin hasi zen lanean.



GOIENA



Ikasle bat, hainbat urtez lurtean botata egondako freskagarri lata bat eskuan duela. URKO ULLIA

Gazteak "harrituta" batutako zikinkeriarekin

Klima aldaketaren aurkako 'Fridays for Future' dinamikaren baitan herriko zaborra batzen aritu ziren DBHko eta Batxilergoko ikasle batzuk pasa den barikuan, eta, besteak beste, 30 urtetik gora zituzten plastikoak eta xiringak aurkitu zituzten

Xabi Gorostidi ARRASATE

Martxoaren 15ean, ia 100 herrialdeetako ikasleak mobilizatu ziren klima aldaketarekiko kontzientzia hartzeko helburu duen *Fridays for Future* dinamikaren baitan. Greta Thunberg, 16 urteko ikasle suediar bat, da dinamika horren bultzatzaile nagusia. Helduei klima aldaketa geratzeko neurriak eskatzen dizkie, euren etxea –munduari erreferentzia eginez– su hartzen arituko balitz egingo luketen bezala. Hala, pasa den barikuan Arrasateko DBHko eta batxilergoko ikasleek –Arrasate Herri Eskolakoak eta Arizmendikoak– greba egin zuten, eta horietako batzuk hitzetatik ekintzetara pasatu ziren. Herriko bazterrak garbitzen aritu ziren, hainbat gunetan zehar, eta "harrituta" geratu ziren aurkitutako hondakinekin; bai kopuruagatik, eta baita zabor motagatik ere.

Arizmendiko ikasleen kasuan, batxilergoko lehen mailakoak aritu ziren zeregin horretan eta

baita DBHko 4. mailako batzuk ere bai. Hiru gunetan aritu ziren: errekako askotariko puntuetan, Monterronen eta Santa Barbaran. Ohikoak izaten diren zigarrakinez eta kristalez gain, gauza deigarriak ere aurkitu zituzten. Monterrongo agertoki azpian, adibidez, xiringak aurkitu zituzten, eta baita supermerkatuko karrotxoak ere.

Baina lur azpian ere batu zituzten espero ez zituzten hondakinak: "80ko eta 90eko hamarkadetako gozokien plastikoak aurkitu ditugu. Hondakin zahar horiek lur azpian hondoratuta aurkitu genituen, plastikozko geruza moduko batzuetan bezala", azaldu du Urko Ulliak.

HERRIA GARBITZEKO AUZOLAN HANDI BAT EGIN NAHI DUTE: GARBITZEKO ETA KONTZIENTZIATZEKO

Herri Eskolako ikasleak ere zaborra batzen aritu ziren: eskola barruan, eskola azpiko aparkalekuan, Eroski inguruan, Lidl eta BM supermerkatuen kanpoaldean. "Kondoiez, zigarrakinez eta halako hondakinez gain, gauza arraroak ere batu genituen: erabilitako komun zahar bat eta txankletak", azaldu du Garazi Urrutiak.

Bilketak eta kontzientzia

Zaborra batzera irten ziren ikasleek bazeukaten alde aurretik ingurumenarekiko ardura, baina aitortu dute bilketa egin ostean hau areagotu egin zaiela.

"Jabetu gara bilketa bat egiteak ez duela arazoa konponduko. Herriarrek kontzientzia hartu behar dute, eta, horretarako, ikus-entzunezko bat egin dugu. Gustatuko litzaioguke auzolan erraldoia bat egitea; garbitzeko, eta kontzientzia hartzeko", azaldu du Ulliak. "Auzolana antolatuz gero, lehena izango nintzateke bertara joaten", dio Urrutiak.

OHARRAK

Abaroako irteerak eta bidaiak

Apirilaren 11n Arnedora irteera egingo dute. Horrez gain, apirilaren 27tik maiatzaren 6ra Benidormera bidaiak egingo dute eta izen emateak 440 euroko prezioa du.

Pentsiodunen elkarretaratzea

Herriko Plazan elkartuko dira, astelehenean, 12:00etan, pentsio duinak aldarrikatzeko.

Esther Larrañaga eta Juan Ramon Garai

EH Bilduk Espainiako Gorteetarako aurkeztu duen hautagaien zerrendan daude bi arrasatearrak.

Garagartzako ortuak: batzar orokorra

Apirilaren 3an Kulturateko Jokin Zaitegi gelan egingo dute batzarra: lehen deialdia 17:30ean eta bigarrena 18:00etan.

Ludoteka ibiltaria San Andres auzoan

Hirugarren geldialdia egingo dute bihar. 11:00etatik 14:00ak arte euskaraz gozatzeko ekintzak egingo dituzte, eta ostean, Seber Altuben egongo den jaira joateko gonbidapena egingo dute.

Feminismoaren aurkako pintaketak egin dituzte

Martxoaren 8aren ostean, feminismoaren aurkako pintaketak agertu dira Arrasaten. Asteburuan, adibidez, Portaloiko banku batean *Feminazis* hitza idatzi zuten; hain justu, M8 plataformakoek morez margotutako banku berean. Martitzenean, ordea, enegarrenez zirriboratu zuten Bionako atean dagoen *Feminismoa* hitza.

Agintaldian egindako lana balioan jarri du Arrasateko PSE-EEK

Arrasateko Alderdi Sozialistak agintaldiaren balantzea egin du, eta burututako lana "positiboki" baloratu. Egindako gauzen artean Kulturola, Juan Arzamendi Musika Etxea eta Makatzenako igogailuak nabarmendu zituen Oscar Garcia alkategaiak. Horiez gain, doako wifi guneak eta informazio turistikoarentzat gune bat jartzea ere aipatu zituen.



NIRE USTEZ

IBON ARRUPE

Alde zaharraren PER berria

Mondragoen daukagun balio arkitektonikorik preziatuena gure alde zaharra da. Bere kale, etxe, jauregi, eliza, eraikin publiko, harresi eta portaloiek gure herriaren imajinario kolektiboa eratzen dute. Horrela, ba, zaindu eta mimatu egin behar dugu, hurrengo belaunaldiek ere bizirik dirauen alde zahar bat jaso dezaten. Baina On Jose Maria Arizmendiarririk zioen bezala, "bizitasunaren ezaugarria ez da irautea, biziberritzea eta egokitzea baizik". Horixe da, azken finean, abian jarri den Alde Zaharraren Eraberritze Plana (PER) berrikusteko prozesuaren helburua. Denon artean adostea, jadanik gainbehera sintomak erakusten hasi den alde zaharrean –bizilagunik gabeko eraikinak, lokal hutsak, genero ikuspegia betetzen ez duten kale estaliak, eskakizun urbanistikoak...– zein aldaketa bultzatu behar ditugun bere bizitasuna bermatzeko.

Azken finean, hurrengo mendeetan ere, bizitzeko, jolasteko, jaiak ospatzeko edota negozio bat abian jartzeko gune erakargarria izaten jarraitu dezan, ahal den heinean bere xarma guztia mantenduz eta baita balioan jarritz ere.

Fiskaltzara, gaizkileen inpunitatea amai dadin

Gobernuak dio herrian lapurreta gehien egiten dituen lapur taldea "behin eta berriz" geratzen dela aske. Hauek kartzelan sartzeko sententzia irmoa heldu arte hiru urte pasa daitezkeela argudiatuz, fiskaltzara joko dute, prozesu hori azkartzeko asmoz

Xabi Gorostidi ARRASATE

Udal Gobernuak agerraldia egin du asteon, azken hilabeteen Arrasaten izandako delituen gorakadari buruzko azalpenak emateko. Prentsaurrekoan, EAJ-ko zinegotziek hartu dute parte –PSE-EEko inor ez da egon, ezta udaltzainik ere–.

Alkatea buru, azaldu dute lapurretak egiten dituztenen "inpunitateak" eragiten duela, hein handi batean, delinkuentzia kasuak komunikabideetan behin eta berriz agertzea, eta horrek herritarren artean eragiten duen "segurtasun falta. Herrian gertatu diren lapurreta kasu gehienak lapur talde berak egin ditu. Udaltzainekin eta Ertzaintzarekin elkarlanean gabilta, eta identifikatuta daukagu lapurreta edo delitu gehienak egiten dituen talde bat", azaldu du Maria Ubarretxena alkateak.

Lapurren profila

Haiei buruz esan dute, besteak beste, Arrasaten bizi direla eta drogekin arazoak dituztela. Ez dute xehetasunik eman gaizkileen kopuruari, adinari edo menpekotasuna eragiten dien droga motari buruz.

Delinkuentzia kasuen maiztasunaren eragilea "lapurrek duten inpunitatea" dela esan dute. "Berrerorleak izanda ere, epai-leen eskuan jarri eta aske geratzen dira, behin eta berriz. Justizia oso garantista da, eta kartzelan ezin sartze horrek eragiten du delitu kasuak astero azaltzea. Kezkatuta eta ardurata gaude eta gure esku dagoen guztia egiten ari gara arazo hau konpontzeko".

Fiskaltzaren neurria

Udal Gobernuak arazo hori konpontzeko egindako urratsak eman ditu aditzera. Besteak beste, otsailaren 15ean gaiari buruzko bilera egin zuten ertzain etxean, eta eskutitz bat igorri diote Eus-



EAJko Garitano, Ezkurra, Ubarretxena, Aspiazu eta Garay. XABI GOROSTIDI

LAPURRETA GEHIENAK TALDE BERAK EGIN DITU; ARRASATEKOAK DIRA ETA DROGAREKIN ARAZOAK DITUZTE

ko Jaurlearitzako Segurtasun sailburuari.

Baina ikusita egindakoa ez dela nahikoa gaizkileak kartzelan sartzeko, neurri berri bat iragarri dute: "Gaizkile hauek kartzelan sartzeko sententzia irmo bat heldu arte hiru urte pasa daitezke. Prozesu hori azkartzeko, Udaleko abokatuek Zumarragako Udalak hartutako neurri bat hartzea aholkatu digute: fiskaltzaren aurrean hiru txosten aurkeztuko ditugu, honek gaizkileen aurkako neurriak har ditzan".

Txosten horiek Udaltzaingoak, Ertzaintzak eta Herriko Gizarte Zerbitzuek egin behar dituzte, eta helburua da behin fiskalaren esku utzita honek ondorengo bi neurrietako bat hartzea: gaizkileak kartzelan sartzeko edo hauek desintoxikazio zentro batean ingratsatzea.

Delinkuentzia tasak

Arrasateko delinkuentzia tasa zenbatekoa den ere aipatu dute, baita Gipuzkoakoa eta EAEkoa. Datua mila biztanleko dagoen delitu kopuruan oinarritzen da: Arrasate –19,25–, Gipuzkoa –32,24– eta EAE –40,32–.

Arrasatekoa baxuagoa izan arren, alkateak azaldu du horrek ez duela eragozten herritarren artean "segurtasun falta pertzepzioa" egotea. "Astero komunikabideetan lapurreta kasuen berri badute, normala da herritarrek segurtasun falta izatea".

Udaltzaingoaren egoera

Momentu honetan, Arrasateko udaltzainek giza baliabide falta dute. Hala jakinarazi dute Udaleko enpresa batzordeak –udaltzainen ordezkariak– eta Erne sindikatuak, eta Udal Gobernuak ere "gabezia" bat dagoela onartzen du. Baliabide falta horrek gaizkileak atzemateko zailtasunak sortzen dituen galdetuta, erantzun dute ez dutela halakorik jaso udaltzainengandik, baina "giza baliabide falta hori lehenbailehen konpontzeko" ahaleginetan ari direla.



Udan egindako Fun Week bateko argazkia, ortua gai nagusizat hartuta.

Ingelesa modu naturalean barneratzeko udaleku bereziak

Kids&Us-eko udalekuetan helburu nagusia ondo pasatuz ingelese ikastea da. Hizkuntzak ikasteko modu naturalean sinesten dute duela 15 urte, eta metodo hori erabiltzen dute Fun Weeks izenburua duten udalekuetan. "Haurrek hizkuntzak barneratzeko gaitasun berezia dute 0 eta 7 urte bitartean. Hori hala izanik, ingelesa oinarrian duten udaleku ludikoak egiten ditugu, non jolasen, eskulanean edo abestien bitartez haurrek hizkuntza barneratzen duten era natural batean. Gai konkretu bat aukeratzen

dugu –ortua, sukaldaritza edo dinosauroak, adibidez– eta horrekin lotutako jakintzak garatzen ditugu jolas bidez". Hiru sasoi hauetan egiten dituzte Fun Weeks-ak: Gabonetan, Aste Santuan –apirilaren 23tik 26ra– eta uztaileko lau astetan zehar. 09:00etatik 13:00etarako ordutegiarekin egiten dute lan, baina 08:30ean sartzeko eta 13:30ean irteteko aukera eskaintzen dute, familia kontziliazioa errazte aldera. Fun Weeks-etan izena emateko epea zabalik dago; horretarako, deitu 943 05 15 46 zenbakira.

Hiru-karpamentuak ingelesez.
3-10 urte bitartekoentzat

Kids&Us Arrasate · Euskal Herria plaza, 13
T. 943 051 546 · arrasate@kidsandus.es

Maila gorenera igo da Arrasate Arlutz taldea

Datorren urtean Ohorezko Mailan jokatu du Arrasateko eta Aretxabaletako xakelariekin osatutako taldeak, ligan bigarren sailkatu eta gero: "Arrisku apur bat badu lorpen horrek, maila horretan jokatzeko gogorra da eta", dio Aitor Alkaidek

Xabier Urzelai ARRASATE

Arrasate Arlutz xake taldea maila gorenera itzuliko da ostera ere. Lehenengo Mailan debagoiendarrak bigarren sailkatu dira, Easoren atzetik, eta postu horrek kategoriaz igotzeko eskubidea emango die: "Badakigu kategoria horretan jokatzeko zer den, lehenago ere, urtetan, hor ibili izan garelako. Batetik, ohorea da gurea moduko klub txiki bat onenekin batera ikustea, baina kontuan izan behar dugu xakelari profesionalak izango ditugula aurrean, eta, gainontzeko kirol jardueretan moduan, xakean motibazioa oso garrantzitsua da. Bada, datorren urtean puntu bakoitzagatik gogorrago borrokatu beharko dugu, eta kontziente izan beharko dugu partida asko galduko ditugula", dio aurten taldeko boskotea osatu duen Aitor Alkaidek. "Beraz, ez dugu esango mailaz igotzeko sariak pozoia duenik, baina bai, urte gogorragoa izango dugu aurrean, seguru".

Aretxabaletako jokalariekin batera Arrasate Arlutz osatu dute Miguel anaiek, Asier Etxagibekek eta Txema Hernandok: "Taldeen, diferentzia handiarekin, Miguel anaiek dira onenak, eta lehenengo taulan jokatu dute. Hori gogorra da, desgaste handia egoten da. Bada, aurten txandaka jokatu izan dute, eta datorren urtean gehiago jokatzeke konpromisoa hartu dute".

Izan ere, datorren urtean Setao, Gros eta halako klubak izango dituzte aurrean: "Nazioarteko maisuak dituzte talde horietan, xakean buru-belarri dabilen jendea. Eta jende horren kontra jokatzeko gogorra da, baina, aldi berean, motibagarria".

Erregularitasunaren saria

Kategoriaz igotzeko taldeak aurtengo ligan erakutsitako erregularitasuna erabakigarria izan



Arrasate Arlutz taldea osatu duen boskotea, azken jardunaldian. TXEMA HERNANDO

"DATORREN URTEAN XAKELARI PROFESIONALAK IZANGO DITUGU AURREAN"

da: "Egia da jardunaldi batean ere ez dugula alde handiagatik irabazi, baina bederatzita jardunalditan inor ez da izan kapaz gu garaitzeko, ez dugu partidarik galdu, eta, guztira, bost partida irabazi eta lau berdindu ditugu; hori egon da gako".

Izan ere, talde moduan Arrasate Arlutzek ez du jardunaldi txarrik izan: "Gutako batek asteburu txarra izan duenean, gainontzekoen lan onak estali du makalaldi hori, eta ez da apenas igarri. Hala, talde moduan ez dugu asteburu txarrik izan, eta horri esker iritsi ginen azken jardunaldian lehenengo postuan".

Hain zuzen, joan den asteburuan Conteneo taldea izan zuten aurrean, eta 2-2 izan zen emaitza. Aldi berean, Easok izandako asteburu borobilak -3,5-0,5 egin zuten azken-aurreko postuan zegoen Oberena B taldea-

ren kontra- lehenengo postua eman dio talde donostiarrari, eta debagoiendarrek, azkenean, bigarren postuan amaitu dute. Hori horrela, puntu erdiko alde baina ez da egon bi taldeen artean: Easok 21,5 puntu batu ditu eta 21 puntu, berriz, Arrasate Arlutzek. Kategoriaren parekotasuna erakusten du, baita ere, puntu kopuru bera izan dutela Gros B taldeak eta Conteneok: "Azken jardunaldian bagenekien, emaitza edozein zela ere, ondoren afaltzera joango ginela", dio, barrez, Alkaidek. Hala, guk berdindu egin genuen, eta ondoren izan ziren karanbola batzuen ondorioz bigarren sailkatu gara".

Datorren urtean, itsutu barik

Arrasate Arlutzek 2020ko urtarrean hasiko du hurrengo liga txapelketa; hain zuzen ere, urtarreko bigarren asteburuan hasten dituzte ligak, eta Ohorezko Mailan jokatu izanagatik ez dute filosofiaz aldatzeko asmorik: "Ez dugu presiorik gura, gozatzeko asmoz eta aurrean izango ditugun maisu handien aurrean ahalik eta gehien ikasteko esperantzarekin gaude".

Arrasate Rugby Taldeak bi final ditu aurrean; lehena, Baztanen

Azken jardunaldia Mojategin jokatu dute, datorren astean, baina, lehenago, Menditarrak irabazi behar diote

X.U. ARRASATE

Euskadiko Senior Erregional Mailan jarraitzea da Arrasate Rugby Taldekoen aurtengo helburu nagusia. Urte osoa daramate horretarako lanean, askotan baldintza txarretan, jardunaldi batzuetan lesioengatik jokalariek aldetik taldea osatu ezinda ibili dira eta.

Eta, hala ere, liga amaitzeko bi jardunaldi geratzen direla, arrasatearrek oraindik kategoriari eusteko aukerak dituzte.



Atletico San Sebastianen kontra. GOIENA

Beratarrak eta Bera Bera

Sailkapenean azkeneko postuan geratzen den taldea zuzen jaitsiko da behera eta azken-aurrekoak promozioa jokatu du. Hala, orain momentuan, Getxo (15) eta Arrasate (16) daude postu horiengatik borrokan. Bera Bera 20 puntu ditu eta Menditarrak 23, baina kontuan izan

behar da partidu bakoitzean lau puntu daudela jokoan, eta bonus puntuak gehitu behar direla: "Biak irabazita kategoriari eutsiko diogu, hori segurua da. Ikusteko dago, baina, talde horiek goiko jokalariekin jokatu ote duten", diote klubeko ordezkariak.

Saskibaloiko IbaiOintxe jaia egingo dute apirilaren 6an

Ibai Arteren eta Ointxe! saskibalo klubaren artean jaialdia prestatu dute apirilaren 6erako Arrasaten, Herriko Plazan. 11:00etan, Hiruko Txiki Txapelketa egingo dute eta 12:00etarako, EBako jokalarien eskutik jaurtiketa teknika eta jaurtiketa lehiaketa antolatuko dituzte. Horrekin batera, jatekoak eta edatekoak jarriko dituzte.

Emakumezkoendako ikastaroa: defentsa pertsonala

Arrasate Aikido Taldeak antolatuta, defentsa pertsonaleko ikastaroa egingo dute -doan-, martxoaren 30ean, (11:00-13:00), Musakolan. Ikastaroa 16 urtetik gorako Debagoieneko emakumezkoendako da, eta izena emateko mezua bidali behar da 666 06 00 85 (Juanjo) edo 653 71 93 27 (Leo) telefono zenbakietara, *Whatsapp* bidez.

Mondratek Aste Santuko campusa antolatu du

Mondrate areto futbol taldeak 8 eta 16 urte bitartekoendako campusa antolatu du Aste Santurako: "Helburu nagusia gaztetxoek gustuko duten kirol jarduera praktikatzuz ondo pasatzea izango da". Musakolako kiroldegian egingo dute, apirilaren 23tik 26ra -lau egunez-. Izena emateko, 662 52 03 59 edo *mondrate@gmail.com*.

Gipuzkoarren arteko derbia dute Easok eta MUK, Donostian

Joan den astean Pas Pielagosen kontra azken segundora arte borrokan ibili eta gero (81-84), MUK Donostian jokatu du zapatu iluntzean (20:00). Gipuzkoarren arteko derbia izango da, Easo Loquillo taldea mailari eusteko borrokan dago, hain zuzen ere, seigarren postuan. MUK, berriz, seigarren postuan, ez du aurrekoen trena galdu gura.

"Dekretu berria traba da musikari hasiberrientzat"

EKIÑE CASADO MUSIKARIA

Trikitia eta gitarra jotzen dituen bakarleri gaztea da. Taberna batean eman zuen lehen kontzertua, eta, horregatik, urtean hamabi zuzeneko egiteko mugaren aurka dago



Ekiñe Casado, gitarrarekin, Monterron parkeko sarreran. XABI GOROSTIDI

Xabi Gorostidi ARRASATE

Jai-zale tabernako laugarren urteurren jaian egin zuen lehen kontzertua, 16 urterekin, eta hasi da, poliki-poliki, zuzenekoak egiteko eskari berriak pilatzen. **Nola sartu zenuen burua musikaren munduan?**

Nire kasuan, Arrasateko Trikiti Eskolaren bitartez. Han hasi eta gutxira, kontzertuak ematen hasi nintzen, eta uste dut 10 urte nituela igo nintzela oholza batera bakarrik lehenengoz.

Beraz, jendaurrean abesteak ez dizu inoiz beldurrik eman?

Ez. Niretzako, gauza ederra da jendaurrean jotzea, eta Trikiti Eskolarekin kontzertu ugari egindakoa naiz. Horrez gain, nik grabatutako bideoak ere igotzen ditut Internetera.

Trikitiaz gain, beste instrumenturik jotzen duzu?

Trikitia jo izan dut hasieratik, eta panderoa jotzen ere badakit. Baina duela urte eta erdi-edo gitarra jotzen hasi nintzen.

Internetek asko erraztu du norbere kabuz gitarra jotzen ikasteko prozesua. Zure kasuan, zure kabuz ikasi duzu?

Hasieran, lagun batekin batera hasi nintzen, eta hark erakutsi zizkidan oinarri-oinarrizko akordeak dominatzen. Ostean, serioago hartu nuen, eta gitarra

eskoletara joaten hasi nintzen, hobetze aldera.

Musikalki zeintzuk dira zure influentziak?

Txikitatik, adibidez, asko miretsi izan dut Gose taldea. Ines Osinaga erreferente bat izan da niretzako; handia, gainera. Eta, neurri berean, Maixa Lizarribar ere bai. Baina, trikititik harago, country musika dezente entzun dut, baita gaur egungo artistak ere; Taylor Swift, kasu.

Jai-zalen egin zenuen debuta bakarleri gisa. Ordutik hona kontzertu gehiagorik eskaini duzu?

Ez. Martxoaren 8an, adibidez, mikrofono irekia egon zen artean, bi abesti jo nituen, baina kontzerturik ez dut eskaini. Orain, bi asteburuan jarraian Arrasaten joko dut: hilaren 23an AEDren eta Txatxilipurdiren festan eta hilaren 30ean Arrasateko Bulkada Egunean. Eta apirilaren 6an, Aretxabaletan.

Ezer gehitu nahiko zenuke?

Bai; tabernetako kontzertuak mugatzen dituen dekretuaren gaia. Bat nator Arteak Irekirekin, batez ere, ni bezalako musikari hasiberriei traba egiten digun dekretua delako. Tabernari batek urtean hamabi kontzertu egin ahal baditu, ez da esperientzia gabeko musikariak ekartzera arriskatuko.

'Todas las mulleres que coñeço' ikusgai hilaren 28an

Artean 3 erakusketaren baitan, Xiana do Teixero zuzendari galiziar gaztearen azken lana proiektatuko dute ostegunean. Kaleen eta espazioen maskulinizazioa da ikus-entzunezkoaren gai nagusia, eta hiru elkarrizketatan oinarritzen da.

Horrez gainera, *Artean 3* erakusketaren katalogoa aurkeztuko dute.

Zinegoak jaialdiko lanak, asteazkenean, Kulturaten

Beste urte batez, Bilboko Gay-LesboTrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdiak geldialdia egingo du Arrasaten. Martxoaren 27an izango da, asteazkena, 19:00etan, Kulturaten. Jaialdiko labur onenak ikusi ahalko dira, eta horien artean izango da Deiane Moreno arrasatearrak zuzendutako *Alde erantzia* ikus-entzunezkoa.





Neska-mutikoak Kurtzebarri eskolaren bidegorri aldeko horma margotzen eguazten goizean. IMANOL SORIANO

Eskolaren hormak elkarlanean margotzen

Kurtzebarri eskolaren kanpoaldeko horma margotzen hasi dira astean: bidegorriari begira dagoen horma, hain zuzen ere; Izaro Sanchez artista aretxabaletarrak egindako irudia margotzen dihardute neska-mutikoek, helduek zein nagusiek

Mirari Altube ARETXABALETA

Orain dela urte pare bat sortutako burutazioa egia bihurtzen dabilta egunotan Gu Haziak Gara elkarteko kideak: Kurtzebarri eskolaren aurrealdea margotzea. Lehiaketa bidez hautatu zuten irudia, Izaro Sanchez artista aretxabaletarrarena, eta, elkarlanean, poliki-poliki, hasi da itxura hartzen horman.

Natura kolore biziekin

Integrazioaren alde herrian lanean diharduen Gu Haziak Gara elkartekoak eta Kurtzebarri eskolako gurasoak eta irakasleak dira ekimenaren talde eragileko kideak, eta bertan lanean dihardutenak hainbat adinetako, jatorritako eta lanbidetako herri-tarrak. Goizetan eskolako bertako umeek jardun dute margo-

tzen eta arratsaldeetan, gainerako herritarrek.

Margotzen hasi aurretik, baina, Sanchezen papereko zirriborroa horman irudikatu behar izan dute hainbat artistak, Sanchezek berak eta Joana Manzidor eta Leixuri Doyague arrasatearrek: "Collage baten antzera pasatu dute paretara eta margo bakoitzari zenbaki

bat eman; horrela, bakoitzak badaki zein kolore erabili behar duen", jakinarazi du Paloma Martinezek, Gu Haziak Gara elkarteko kideak. Natura du ardatz irudiak: tomateak, loreak, tximeletak, txoriak, umeak ortuan ureztatzen... Eta kolore biziak dira protagonista. Gaur egubakoitza, bukatuko da herritarren jarduna, baina oraindik lanean jarraituko dute hiru artistek. Izan ere, ukitutxo batzuk eman beharko dizkiote herritarrek egindako hori erabat bukatzeko: "Ordu batzuk oraindik eskaini beharko dizkiogu datorren astean", diote.


Gurasoak, gustura

Umeek eta helduek gustura jardun dute lanean egunotan, eguraldia lagun. Boluntarioak eskatu zituztelako gerturatu dira batzuk eta familia giroan arratsaldea pasatzeko beste batzuk. Idurre Uribarren gurasoak haxe adierazi du: "Eskolako hormak biluzik zeudela ikusita, marrazki itsusi batzuk beharrez, geuk eskolan aukeratutakoak marraztea hobe zela pentsatu genuen. Gainera, elkarlanean, familian, margotutakoak dira; ni alabarekin etorri naiz, adibidez, eta hori bera ere polita da".

Talde eragilearen asmoa da eskolaren aurrealde guztia, lau hormak, margotzea hainbat fasetan banatuta. Aurten, bidegorri aldera ematen duena bakarrik egingo dutela adierazi dute; grafitiekin beteta zegoena, hain zuzen ere.


Ekimen horretan laguntzaile izan direnak eskertu gura izan dituzte Gu Haziak Gara elkarteko kideak: Udala, alde batetik, eta hainbat kooperatiba, bestetik. Copreci eta Ausolan, esate baterako.

Muralaren kontuarekin gustura?



PALOMA MARTINEZ GU HAZIAK GARA-KO KIDEA

"Noski; mural honek erakutsi gura du koloreen eta ideien azpian dagoena, guztiok elkarrekin egin genezakeela zerbait, edozer edertu genezakeela. Herri proiektu bat izan da, ez eskolarena, ezta elkartearena ere".



IZARO SANCHEZ IRUDIAREN EGILEA

"Bai; eskolarekin batera egin dugu lan gaia aukeratzerakoan; hortik etorri da nik sortutako irudia: eskolako ortua, natura... Gero, hiru artistak jardun dugu horren bueltan, hainbat ordu sartu ditugu eta datorren astean ere sartuko ditugunak".

Haur Liburuaren Nazioarteko Egunean ipuin saio berezia

Apirilaren 2an, adin askotariko haurrei egokitutako ipuinak kontatuko ditu Leire Zinkunegik

M.A. ARETXABALETA

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna gogoan, ipuin kontaketak antolatu ditu haur liburutegiak apirilaren 2rako, martitzena. Eskarmentu handia duen Leire Zinkunegi kontala-

ri oriotarra gonbidatu dute, eta bi saio egingo ditu hark: 17:30ean, *Lukas saguaren istorioa* kontatuko die 3 urtetik gorakoei (20 minutu); eta 18:15ean, *Gerizpeko ametsak* 5 urtetik gorakoei (40 minutu).

Helduen solasaldiak

Era berean, liburutegiko kideek gogorarazi dute irakurketa solasaldiak egiten direla hilabete guztietan helduendako. Saioak euskaraz –Itziar Gomezek gidatuta– eta gaztelaniaz –Iban Repilak gidatuta– egiten dituzte, eta liburuak liburutegiak berak lortzen ditu. Gainera, hitz egitea ez dela beharrezkoa jakinarazi dute antolatzaileek. Edozein zalantza argitzeko edo izena emateko, liburutegira jo behar da (Arkupe, 943 08 10 01).

Korrika festa girotzeko artisauei dei egin gura diete

Apirilaren 13tik 14rako goizaldean pasatuko da 21. Korrika Aretxabaletatik, eta, motorrak berotzeko, festa giroa sortu gura dute hilaren 13an herriko kaleetan. Hainbat ekitaldi antolatuko dituzte Korrika Batzordeko kideek herriko hainbat eragilerekin elkarlanean, eta artisauei dei egin gura diete. "Artisaua bazara eta bertan egoteko inte-

resa baduzu, jarri gurekin harremanetan". Hona hemen bideak: euskara@loramendielkartea.eus, 685 75 67 29 eta 943 77 09 70. Azokarekin batera izango dira mural margotzea, umeendako tailerrak, jatekoa, kontzertuak eta gehiago.

Egun hori baino lehen, apirilaren 6an, Korrikaren bueltako mendi irteera egingo dute Zاراia eta Murruxiko taldeekin elkarlanean Murura. 09:00etan irten-go dira, parrokia albotik; herri-tar guztiak gonbidatu dituzte.



Aretxabaleko EH Bilduko kideak udal hauteskundeetarako zerrendaren aurkezpenan. EH BILDU

"Zerrenda plurala eta prestatua osatu dugu"

Aretxabaleta EH Bilduk maiatzeko udal hauteskundeetara begirako zerrenda osoa aurkeztu zuen eguaztenean, Ibarra kiroldegian. Ilusio handiz, talde bikainaz eta proiektu sendoaz aurkezten direla adierazi zuten, eta ateak zabalik dituztela gaineratu

Imanol Beloki ARETXABALETA

Eguaztenean aurkeztu zuen Aretxabaleko EH Bilduk maiatzeko udal hauteskundeetara begirako zerrenda osoa. Taldeko argazkia ateratzeaz batera, zerrendako kideak aurkeztu eta hauteskundeetara begira Aretxabaleko EH Bilduren proiektu lau ardatz nagusiak azaldu zituzten.

Ion Albisu, Jasone Garcia-Etxabe, Mikel Uribebarria, Jone Ojea, Gorka Gabilondo, Irati Pagoaga, Naiara Olabarria, Felis Beltran de Heredia, Gorette Aiastui, Gari Iturbe, Oihana Mata, Jon Murgiondo eta Andres Lezetak osatzen dute zerrenda, eta ordezkokoak, berriz, honako hauek izango dira: Pedro Mendieta, Nieves Arana eta Pepi Rosado dira.

Zerrenda plurala eta prestatua

Ibarra kiroldegian egindako aurkezpenan Ion Albisu Aretxabaleko EH Bilduko alkategaiak adierazi zuen moduan,

zerrenda plurala eta bakoitza bere arloan prestatua dagoena osatu dute. Adinagatik, jatorriagatik, eta baita lanbidez: "Herriar guztien gobernu bat osatzeko herriarrek ahalik eta gehien ordezkatzeko dituzten pertsonak behar dira, subjektibitateak kontuan hartzeko eta herriarren beharrak, kexak eta biziaren Udalera eraman ahal izateko. Zerrenda plurala dugu, begi bistan dago. Plurala eta prestatua, nork bere arloan duen eskarmentua herriaren zerbitzura jartzeko prest daude eta. Hori horrela, gaur, pertsonak balioan jartzeko eguna da, eta bihurtik aurrera herriarrei gure proiektua ezagutarazteko tarte hasiko da".

EH BILDUREN PROIEKTUAREN LAU ARDATZ NAGUSIAK AZALDU DITUZTE AURKEZPENAN

Programaren lau ardatzak

Euren proiektua lau ardatz nagusitan banatuko dutela ere adierazi zuten aurkezpenan: pertsonen herria, zaintzen gaituen herria, aukeren herria eta herri aurreratua. "Pertsonen herria egiteko konpromisoa hartzen dugu. Pertsonak erdigunean kokatzen dituen proiektua dugu. Gainera, kultura duten pertsonen herria nahi dugu, berdintasunean hazten diren herriarrek, eta hezkuntza prozesuan zein kirolean euskarari garrantzia emango diogu. Aretxabaletarrek ahalik eta zoriotsuenak izatearen aldeko apustua egingo dugu, gure nagusiak erdigunean kokatuz. Mugikortasun eredu jasangarriagoa bultzatzen duen herria, energia berriztagarriak erabiltzen duena, eta etorkizunera begirakoa nahi dugu. Amaitzeko, gazteek bertan bizi eta bertan lan egin ahal izateko, enplegu duina edonori eskaini ahal izateko eta komertzio bizia eta gertukoaren alde lan egingo dugu".



Hegotik Iparrerantz ikuskizuneko momentu bat. IMANOL SORIANO

Aitor Sarasuari egindako omenaldiak, erantzun bikaina

Herriarrek antolatutako 'Hegotik Iparrerantz' ikuskizunak aurreikuspenak bete ditu

Imanol Beloki ARETXABALETA

Pasa den zapatuan, *Hegotik Iparrerantz* Aitor Sarasua bertso-lariaren omenezko ikuskizunak Ibarra kiroldegia bete zuen. Emanaldi berezia izan zen, eta, izan zuen harrera ederra kontuan hartuz, antolatzaileak pozik agertu dira egunak mandakoa-rekin.

Haren sorkuntza oinarri hartuta, kantuak, bertsoak, errezitaldiak, dantzak eta antzerkia izan ziren ikusgai *Hegotik Iparrerantz* ikuskizunean. Mixel Ducau, Caroline Phillips, Anje Duhalde, Mixel Beheran eta Xebastian Sedez musikariak, Miren Artetxe, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Ainhoa Agirreazaldegia bertsolariak eta Ildoka antzerki taldekoak izan ziren oholtza gainean, eta artista bakoitzak bere tarte ere izan zuen Sarasuaren testu batzuk ere errezitatzeko.

Publikoak gogoz txalotu zituen emanaldi guztiak, eta harrera bereziki beroa izan zuen Sarasuaren lagun talde batek emanaldirako propio prestatutako dantza saioak.

Balorazio positiboa

"Eskerrik asko, benetan, larunbatekoa posible egin zenuten guztioi. Lantaldeari, artista eta boluntario guztiei... eta, nola ez, bertara hurbildu zineten denei! Bidaiek hasiera eta bukaera izaten dute eta gure bidaia hemen hasi da, gertutasun, berotasun eta elkartasun beterik. Segi dezagun bidea egiten", adierazi dute Loramendi Elkarteko kideek.

Omenaldia osorik ikusteko

Ikuskizuna osorik Goiena telebistan izango da ikusgai asteburuan. Zapatuan 18:00etan eta 22:15ean eta domekan 13:00etan eta 20:00etan.

Munduko ipuinak ardatz, Literatura Astea ospatuko dute

Martxoaren 27tik apirilaren 3ra bitartean, Literatura Astea ospatuko dute Kurtzebarri eskolan. 28. edizioa izango da, eta honako hauek izango dituzte astean zehar: ikasleen familiakoak eta Huheziko ikasleak izango dituzte kontu-kontari astean zehar, Patxi Zubizarretarekin solasaldia eta ipuin kateatuen sorkuntza, besteak beste.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel: 943 79 08 07
ARETXABALETA

"Hegoak ez dizkiot ezeri moztu diskoa egiterakoan"

EÑAUT ZUBIZARRETA MENDIETA TXELO-JOLEA

Trigger proiektuaren bueltan, 'Esku bi hamar hatz' diskoa kaleratu berri du, eta hainbat kontzertu eskaintzen dabil; bihar, Eskoriatzan izango da, Inkernun (22:30)

Aitor Zuazabeitia ARETXABALETA

Zubizarretak dio estetika jakin baten barruan kokatutako proiektua dela Trigger, eta orain dela hilabete inguru *Esku bi hamar hatz* kantu sorta kaleratu zuen. Eskuragai dago honako helbide honetan: <https://triggerprototxelo.bandcamp.com>.

Zer da Trigger?

Norberaren ezinak, amorruek, gizartearen dauden gezurrek sorrarazitako gorrotoak azalertzeko modua, tiro egiteko gogoa, ez bakarrik beste bati tiro, baita norberari ere; izan ere, askotan, norberaren etsai handiena norbera da. Sarri diodan lez: *pull the trigger*.

Otsailean kaleratu zenuen lehen lana, *Esku bi hamar hatz*...

Aurrera egiteko zerbait behar zela esku artean ikusi nuen eta grabaketa lanak iaz abenduan hasi nituen; izan ere, hogeit bat kontzertu eman ostean, ez atzera ez aurrera geratu nintzen. Denbora nuenez, grabaketa prozesuaren zati handi bat nik neuk egin nuen, eta gero, Axel taldekide eta lagunarekin jardun dut; edizio lanak, masterrak, ahotsa sartu berarekin egin ditut. Galduta ere ibili nintzen, baina, neure kabuz jardun dudanez, lasai hartu dut.

Diskoko abestiak konposatzerakoan zertan oinarritu zara?

Mila modu egon daitezke konposatze prozesu batean; ingurutzan zaituzten kontuei erreparatu eta apuntatu, hasi instrumentuarekin esperimentatzen... Mila prozesu daude eta disko honetan denetik dago. Kantu batzuk apropos sortu ditut, baina aurreko zirriborro batzuk berreskuratu ere egin ditut eta horiei gehitu zatiak eta landu... Sormen prozesua oso zabala da.

Zein musikaren eragina izan duzu? Musika estilo asko ditut gustuko eta eragin asko daude. Disko honetan ez naiz saiatu influentzia horiek guztiak sartzen, baina



Eñaut Zubizarreta, txeloarekin, kuarteleko lokalean. AITOR ZUAZABEITIA

"KANTU BATZUK APROPOS SORTU DITUT ETA BESTE BATZUK BERRESKURATU"

zenbait pintzelada agertzen dira. Askotariko diskoa da, denetik dago, eta hegoak ez dizkiot moztu ezeri; Triggerren estetika barruan sartutako guztia, barrura. **TT (Trending Topic) da abestietako bat; zer esan gura duzu hor?** Gaur egungo gizartearen sare sozialek duten indarra izugarria da, eta pertsona zelaz xurgatzen duten ikus daiteke; irudi zikin batzuei arreta handiagoa jartzen diegu pertsonen bano, edozein pasarte bizi beharrean grabatzen ibiltzen da jendea, albisteen atzetik beti, baina gero albiste izan gura geuk... Ni neu ere hortik pasatu izan naiz, Facebook kendu egin nuen, baina guztiz ezin kendu... *Yonki* baten zera hori...

Gizartearen presioa dago, agian... Ez dakit gizartearen presioa den edo norberaren gabeziak zuzitzeko prozesu bat...

Eta zuzeneko emanaldietan zer jaso izan duzu ikusleen aldetik?

Jendeak gustura hartu izan nau; hasieran, erreminta gutxiagorekin egiten nuen lan, eromen handiagoa zen, ohiko arauetatik kanpo zegoena, baina ondo. Poliki-poliki, beste kontu batzuetan sartu naiz, Jaiki elkartearekin, adibidez, eta, egia esan, askoz ere feedback hobea izan dut.

Bakarrik igotzen zara oholtzara; zer sentitzen duzu?

Musikari moduan mundu klasikotik nator eta denbora luzea pasatu dut bakarrik, kabinatan, ikasten, azterketatan... Hortaz, defentsa mekanismo bat garatu dut, burbuila bat sortu, norberak esateko duena botatzeko, eta jendeari kasurik egin ez. Trantze bat dela esango nuke, denboraren eta munduaren nozioa galduta...

Diskoaren emanaldiekin zabilta orain, baina aurrera begira beste proiekturik baduzu?

Oraingoz, disko honen bueltako kontuekin nabil. Baina burua beti dago martxan, beti daude ideiak, eta banabil beste zerbait lantzen, *Fuck the wor(l)d* dauka izena; *word* eta *world* hitzekin egin dudana hitz-jokoa da.



Udal ordezkariak, ludotekakoak eta gaztelekukoak egitarauarekin. IMANOL SORIANO

Aste Santurako eskaintza zabala ume eta nerabeendako

Jolasak, esperimendu tailerrak, izarrak behatzeko saioak eta 'Gaztekonkis!' izango dituzte, besteak beste

M.A. ARETXABALETA

Aste Santuko oporraldiarekin gozatzeko asmoarekin, Udaleko Gazteria Zerbitzuak eskaintza zabala gertatu die umei eta gaztetxoei, 6 eta 16 urte arteko. Izena emateko epea astelehenean, hilaren 25ean, zabalduko dute ekintza gehienetarako; Gazteria Zerbitzura jo behar da (udaletxea).

Lehen Hezkuntzakoek, jolasak

Gaztetxoendako, LHko 1. eta 2. mailakoendako, *Jolas-jolasien!* programa zehaztu dute apirilaren 15 eta 17 arterako (10:00-13:00); ludotekariak dinamizatutako aisialdi eskaintza izango da: jolasak, naturarekin harremana... Prezioa 30 euro da.

LHko 3. eta 4. mailakoek, ostera, euskal artisten lanak ezagutuko dituzte -Ibarraundi, Txillida eta Oteiza- hilaren 15etik 17ra bitartean (11:00-13:00), Arkupen. Prezioa 20 euro da.

LHko 5. eta 6. mailakoek kimika eta esperimentazio tailerrak egingo dituzte Arkupen (11:00-13:00): labazko lanparak, bikarbonatozko sumendia, elur artifiziala... Prezioa 20 euro da. Eta LHko 4. eta 6. maila artekoek orientazio astronomiko saioa eta izarren behaketa izango dituzte Arkupen (10:30-12:30). Prezioa 20 euro da.

DBHkoek, 'Gaztekonkis!'

DBHkoendako eskaintza berrikuntzaz beteta dator, beste urte batzuetako *Gaztekonkis!* lehaketa Erdi Aroko erronkekin uztartu dute eta; Atxorrotx gaztelua konkistatzera joango dira apirilaren 15ean eta 16an, egun osoz. Prezioa 10 euro da.

Hiru sari zehaztu dituzte irabazleendako: Salting Iruñerako sarrerak, Realeko emakumezko taldearen partidurako sarrerak eta afari-merienda bat.

Irrintziaren gaineko 'Erraiak' filma gaur eta hilaren 29an

Ekain Martinez de Lizarduyk zuzendutako eta Artemanek egindako *Erraiak* ikus-entzuzko emango dute gaur, egubakoitzan, eta datorrenean, martxoaren 29an, 19:00etan, Arkupen (3 euro).

Irrintzia du ardatz filmak eta haren gaineko kontuak, ezagutzak eta bitxikeriak jaso nahian egin dute.

OHARRAK

Ipuin kontalaria

Aitor Vinagret kontalariak *Kokitoren amona* ipuina kontatuko die 4 urtetik gorako umei bihar, zapatua, liburutegian (11:30).

Musika emanaldia

Leizarra musika eskolako biolin, pandero eta akordeoi ikasleek emanaldia eskainiko dute hilaren 26an, martitzenean, Arkupen (18:00).



Eskoriatza Atama Kenpo taldeko borrokalarien talde argazkia. MIKEL BELOKI

Munduko txapelketarako sailkatu dira Beloki eta Rato

Galizian jokatuako Espainiako kenpo txapelketatik urrezko bi domina, zilarrezko bi eta brontzezko bat ekarri dituzte bueltan bertara joan diren Eskoriatza Atama Kenpo taldeko borrokalariak. Emaitzekin "pozik", hurrengo helburuak markatu dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatza Atama Kenpo taldeko Mikel Beloki, Argitxu Zubillaga, Leire Rato, Iosu Maqueda eta Jose Luis Maqueda borrokalariak Galizian izan dira, Ribeiran jokatu den Espainiako kenpo txapelketan, eta emaitza bikainekin bueltatu dira. Rafa Carriet entrenatzailearen gidaritzapean, hainbat domina lortu

dituzte bertan Eskoriatzako borrokalariak: urrezko bi domina, zilarrezko beste bi eta brontzezko bat.

Leire Ratok eta Mikel Belokik urrea lortu zuten, nork bere modalitatean, eta, beraz, munduko txapelketarako sailkatu dira. Ratok urrea lortu zuen kumite erdi-kontaktu modalitatean, 70 kilo azpiko emakumez-

ko senior mailan, eta Mikel Belokik ere urrea lortu zuen kumite erdi-kontaktuan, 90 kilotik gorako gizonezkoen senior mailan. Gainera, Belokik full-kenpo modalitatean ere bigarren postua lortu zuen. Iosu Maquedak, aldiz, zilarra lortu zuen kumitean 70 kilotik garako gizonezkoen kadete mailan, eta Argitxu Zubillagak hirugarren

postua eskuratu zuen kumitean, 70 kilotik gorako emakumezkoen senior modalitatean.

Mundukoa, Guadalajaran

Galizian jokatuako Espainiako txapelketaren ostean, munduko kenpo txapelketa Guadalajaran jokatu da -Mundial IKF Guadalajara deritzona-. Apirilaren 25, 26 eta 27ko aste bukaeran izango da, eta senior mailan lehiatuko dira Espainiakoan urrea lortu duten Leire Rato eta Mikel Beloki borrokalariak.

Mundu osoko aurkariak hartuko dute parte txapelketan, eta, dauden hiru modalitateetatik -A, B eta Master-, biak B taldean izango dira.

Burua, mundukoan

Eskoriatzarrak hasi dira dagoeneko prestaketa lanekin, eta Espainiakoarekin alderatuta mundukoa ez dela lan samurra izango adierazi du Ratok: "Aurreikusitako bako urrezko domina lortu dut Espainiakoan, baina munduko txapelketa askoz gorreragoa izango da. Fisikoki ondo egotea komeni zaigu, eta ondo entrenatzeko hilabete geratzen zaigu. Hala, nik full-kenpo eta erdi-kontaktu modalitatean lehiatuko naiz, eta helburua lan ona egitea izango da".

Beloki ere pozik agertu da lortutako emaitzarekin, eta munduko txapelketan lehiatzeko gogoz agertu da: "Munduko txapelketarako sailkatzea zen nire helburua, eta, hori lortuta, munduko txapelketan izatea ederra izango litzateke. Senior mailan lehiatuko naiz, eta taldean 22 borrokalari gaude, mundu osoko onenak direnak; beraz, edozein hutsegiterekin galdu dezakezu borroka. Ondo prestatuta joatea komeni zaigu".

Mundialerako txartela lortuta, pozik?

MIKEL BELOKI
BORROKALARIA

"Helburua lortuta bueltatu naiz urrezko dominarekin; beraz, oso pozik nago. Gogor entrenatu naiz, eta nirekin batera joan diren borrokalarien emaitzak ere bikainak izan dira. Orain, mundukoan lan ona egiteko ondo prestatzea geratzen da".

LEIRE RATO
BORROKALARIA

"Oso pozik nago Espainiako txapelketan egindako lanarekin. Ez nuen aurreikusten halako emaitzarik, baina, orain, aurrera begira jarri behar dugu. Izan ere, Guadalajarako finalerako gogor entrenatzea tokatzen da".

Haizea Arana bertsolaria, finalerako txartelaren bila

Gipuzkoako eskolarteko azken kanporaketa gaur jokatu da, Oñatiko Larrain-Gain elkartearen

I.B ESKORIATZA

Gaur jokatu da Gipuzkoako Eskolarteko 39. bertsotxapelketako finalaren aurretiko azken saioa, Oñatiko Larrain-Gain elkartearen. Bertan, bost bertsolarik hartuko dute parte, eta

saioan gailentzen denak finalerako txartela lortuko du.

Honako boskote hau arituko da kantuan: Julene Iturbe, Naia Arrizabalaga, Aimar Sorazu, Bittor Zubiairre eta Haizea Arana eskoriatzarra.

Gipuzkoako eskolartekoa otsailaren 15ean hasi zen, Ibarren egin zen lehen saioarekin. Ondoren, beste bi izan dira martxoan, eta gaurkoa azkena izango da. Finala, berriz, Las-turren jokatu da, apirilaren 5ean.

Bertan, Aitor Tatieggi, Uxue Alkorta eta Aner Peritz izango dira, finalerako hiru sailkatuak, eta gaur, Oñatin erabakiko da nor den horiekin batera apirilaren 5eko saioan izango den azken bertsolaria.

PSE-EEren alkategaia Anabel Legaz izango da

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako PSE-EEren alkategaia izango da Anabel Legaz Canflanca. Izan ere, bukatzeaz dagoen agintaldi honetan, Alderdi Sozialistaren zinegotzi izan da Arrasaten, eta, datozen hauteskundeetara begira, Eskoriatzako alkategaia izateko aukeratu dute Alderdi Sozialistako kideek.



Anabel Legaz. ARRASATEKO UDALA



Duela bi urte *Gaztekonkis* abentura lehiaketako proba bat egiten, Atxorrotxen. GOIENA

Badator 'Gaztekonkis, Gazteluaren konkista'

Eskoriatzako eta Aretxabaletako gaztelekuetako nerabeentzako abentura lehiaketa izango da apirilaren 15ean eta 16an. Lehen Hezkuntzako haurrei zuzenduta, berriz, apirilaren 15erako, 16rako eta 17rako aisialdi ekintzak antolatu dituzte

Imanol Beloki ESKORIATZA

Apirilaren 15ean eta 16an izango da Aretxabaletako eta Eskoriatzako gaztelekuak elkarlanean antolatu duten abentura lehiaketa. Azken urteotan erroto den *Gaztekonkis* lehiaketa, hain zuzen ere. Edizio honetan, *Gazteluaren konkista* izenpean, hainbat proba gainditu beharko dituzte puntuak batzeko.

Aurten, Erdi Arora egingo dute bidaia eta Atxorrotzeko gazteluaren konkista egongo da jokoan. Hala, bi egunetan, hainbat taldetan banatuta, askotariko erronkei egin beharko diete aurre nerabeek, Atxorrotzeko gaztelua herriarentzat berreskuratzeko helburuarekin.

Atxorrotxen eta herrian

Apirilaren 15ean, 11:00etan, Atxorrotx mendira joango dira, eta, 17:30era bitartean, hainbat proba izango dituzte. Basoko elementuez baliatuz, taldea indartu beharko dute, eta gazteluaren aztarnak miatu.

Apirilaren 16an, berriz, erronkaren amaiera eguna izango dute. 11:00etan hasi eta 16:30ak arte herriko kaleetan zehar arituko dira, pistak jarraitzen eta erronkak gainditzen. Hala, amaieran, talde irabazlea nor den jakingo da. Puntuazioari dagokionez, ez da baloratuko probetan lehenengoa geratzea bakarrik; izan ere, hainbat balio ere kontuan hartuko dituzte epaileek. Bukatzean, bazkari bateratua egingo dute.

Izena emateko moduak

Gaztekonkis-en izena eman nahi duenak 10 euro ordaindu beharko ditu, eta astelehenetik aurrera egin daiteke, Eskoriatzako eta Aretxabaletako gaztelekuetan

'GAZTEKONKIS, GAZTELUAREN KONKISTA' ABENTURA ATXORROTXEN EGINGO DUTE AURTEN

edo online, karteiko QR bidez. Horretarako azken eguna apirilaren 8a izango da.

Hiru sari izango dira: talde irabazlearentzat, Salting Iruñea Parkera irteera; bigarrenarentzat, Realeko emakumezkoen partido bat ikusteko sarrerak; eta hirugarrenarentzat –eredugarriena–, afari merienda bat.

Haurrentzako aisialdi ekintzak

Tortolis ludotekak antolatuta, bestalde, aisialdi ekintzak prestatu dituzte apirilaren 15erako, 16rako eta 17rako. Lehen Hezkuntzako 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago udaberriko oporraldia, eta bertan, kirol ekintzak, jolasak, sukaldaritza eta erronkak izango dira.

Egun horietan, 10:00etatik 13:00etara bitartean egingo dituzte joko eta jolasak, plazan hasita, eta izen-ematea zabalik dago apirilaren 3ra arte, kultura etxean eta Tortolis ludotekan. Prezioa, haur bakoitzeko, 30 euro da.



IMANOL BELOKI

Argiteria lanak Gernika plazan

Duela bi aste Arbiñoste eta Aranburuzabala arteko bidegurutzean egin zuten moduan, Gernika plazan ere –plaza txikia– lurpeko argiteria linea konpontzen eta, beharra ikusten badute, hoditeria berria jartzen ari dira. Hori horrela, plaza horretako farolen alboan zuloak egin dituzte hodian egoera ikuskatzeko, baina aste honetan amaituko dituzte lanak.

Martxoaren 26an, arratsaldean, ez dute eskolarik izango

Irakasleen hauteskunde sindikalak direla eta, martxoaren 26an, martitzenean, Luis Ezeiza Eskoriatzako Herri Eskola itxita egongo da arratsaldez.

Eskolako irakasleak bozkatzera joango dira; beraz, arratsaldeko bi orduetan ez dute eskolarik izango Luis Ezeizako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haurrek.

Haur Hezkuntzako ordutegia 09:00etatik 12:15era izango da eta Lehen Hezkuntzako, berriz, 09:00etatik 12:30era. Hala ere, jantoki zerbitzua izango dute bertan bazkaltzen dutenek, baina ikasleak 14:00etarako jaso beharko dituzte familiarrek. Horrekin batera, garraio zerbitzua egongo da, baina erabiltzaileek autobusa 13:30 eta 13:40 inguruan hartuko dute.

Botazioaren emaitzak Hezkuntza Saileko webgunean izango dira ikusgai.

Hastapeneko swing dantza ikastaroa izango da zapatuan

Zapatuan dantzan egiteko saioa izango da eta domekan, berriz, haurrentzako kimika tailerra

I.B ESKORIATZA

Zapatuan, 17:00etatik 19:00etara bitartean, hastapeneko swing dantza ikastaroa izango da Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Bi orduko saiora joan nahi duenak kultura etxean eman beharko du izena, eta prezioa bost euro da.

Ondo pasatzeko, jendeari swinga zer den erakusteko eta, bide batez, dantza eginez gozatzeko antolatu dute ikastaroa. Saioa,

Marian Barragan elgoibartarrak emango du, eta izena emateko aukera dago oraindik.

Domekan, berriz, kultura etxean, esperimentuak egiteko tailer bat izango da, kimikarekin jolastea helburu duena. *Slime*-a, izotz lehorra eta halako esperimentuak egingo dituzte bertan batzen direnek, eta, horiek egiteko, zikintzeko moduko arropa eramateko gomendioa helarazi dute antolatzaileek. Ikastaroa 17:00etatik 19:00etara bitartean izango da, eta 8 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Ikastaroko plazak beteta, guztira, hamazazpi pertsona batuko dira bertan.

'Pumori, mendiaren alaba' filma, gaur

Gaur, 19:00etan, Zaldibar antzokian eskainiko duten 'Pumori, mendiaren alaba' emanaldia Unai Ugartemendia mendi kazetariak aurkeztuko du. Sarrerekin batzen duten dirua Iñaki Ochoa de Oltza-SOS Himalaya Fundazioarentzako izango da

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gaur, Zaldibar antzokian, *Pumori, mendiaren alaba* filma ikusteko aukera izango da Zaldibar antzokian. Sarrerak bost euroko prezioa du, eta, pelikula horretan, 2001eko urrian Pumori mendira (Himalaia) egindako espedizioan zendu ziren nafar eta gipuzkoar gazteen istorioa kontatzen da.

Alex Txikon alpinistaren eskutik sortu, Baleukok ekoiztu eta ETB taldearen laguntzari esker finantzatu den filma euskaraz ekoiztutakoa da, eta gaztelarazko azpitituluekin proiektatuko da. 64 minutuko iraupena du eta Pumori mendiaren magalean elur jausi batek harrapatu zituen bost mendizale euskaldun gogorarazten ditu Suku Maya gazte nepaldarraren istorioaren bitartez.

Istoria tragikoa

2001ean, Pumori mendiaren gainurrera abiatu ziren bost men-



Filmeko momentu bat. IBAN GONZALEZ

dizale gazte: Beñat Arrue aizar-narra, Iñaki Aiertza aizarnazabal-darra, Aritz Artieda etxarriarra, Javier Arkauz lakuntzarra eta Cesar Nieto iruindarra. Bidean zirela, izotz jausi batek azpian harrapatu

zituen bostak 6.300 bat metrora zirela, eta bertan hil ziren; 22 eta 27 urte bitartean zituzten mendizaleek.

Istripua gertatu eta urtebetera, Nepalera joan ziren Beñat Arrue zenaren gurasoak, Arantxa Gurrutxaga eta Pello Arrue. Bi helbururekin bidaiatu zuten hara: hil ziren bost mendizaleei omenaldia egitea eta Beñat Arruek bizirik zegoela Nepalen atera zuen argazkian berarekin ageri den haurra aurkitzera. Haur hori da, hain zuzen ere, Suku Maya, dokumentaleko protagonistetako bat.

Ikus-entzunezkoaren helburua

Pumori, mendiaren alaba pelikula egin izanak helburu bikoitza du: batetik, bertan hil ziren bost euskal mendizaleen historia ezagutzea; eta, bestetik, sarreren salmenten etekinekin dirua lortzea. Hala, SOS Himalayaren bitartez Suku Mayari laguntzeko.



Gatz museoan egin dituzten egonkorte lanen emaitza, kanpotik ikusita. AITOR LARRAÑAGA

Gatzaren produkzioa handitzeko balio askotariko gela egokitu dute

Gatz museoko egokitzapen lanak eginda, Santa Columba ermita informazio-gune moduan jarri gura dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Gatz Museoan gatz produkzioa handitzeko egokitzapen lanak amaitu dituzte. Hasiera batean, lanen aurreikuspena 57.614,17 eurokoa zen, eta, Eusko Jaurlaritzaren Leader programaren 41.609,61 euroko laguntzari esker, egin den inbertsioa 65.527,89 eurokoa izan da.

Hala, Gatz Museoko balio askotariko gela egokitzeko lehenengo faseko lanak egin dituzte, eta, gela prest izanda, barruko materiala behar bezala jartzea izango da hurrengo pausoa. "Momentu honetan, bi dorla ditugu.

20 eta 25 kilo gatz atera dezakegu egunean. Asmoa, berriz, aurrera begira gehiago ateratzea izango da; horretarako, dorla gehiago jarriko ditugu eta gatz sikatze materiala jarri, besteak beste", adierazi du Juanito Bengoa alkateak.

Santa Columba, informazio-gune

Produkzioa handitzeaz batera, museoaren alboan dagoen Santa Columba ermita informazio-gune eta gatz salmentarako egokituko dute. Lizitaziora aterata, hilaren 29a izango da proiektuak aurkezteko azken eguna.

Arguizek urrea lortu du

Pasa den zapatuan, Nahia Arguiz eskoriatzarrak urrezko domina lortu zuen Donostian, mazoekin egindako banako ariketan, 10.950eko puntuazioarekin. Zintako ariketan, berriz, brontzea lortu zuen eta taldekakoan zilarra. Hala, txapelketan emaitza bikainak lortuta, hilaren 30ean Leioan izango da Euskal Ligako bigarren faseko txapelketan lehiatzen.



ANGELA VITA

Apirilaren 3an izango da zine zikloko hurrengo filma

Martxoaren 8an eman zioten hasiera Gatzagako zine zikloari Sorginak taldeko kideek. Orduan, *La chica danesa* pelikula ikusi zuten, eta hurrengo filmen zerrrenda ere osatu dute. Hilean pelikula bat proiektatuko dute liburutegian, eta sarrera doakoa izango da.

Proiektatuko duten hurrengo pelikula apirilaren 3an izango da. Hain zuzen ere, *El festín de Babette* filma ikusteko aukera izango da, 19:30ean hasita. Maiatzaren 8an, berriz, *Doña Clara* pelikula proiektatuko dute, ordu berean, eta ekainaren 5ean izango da azkenekoa: *Maudie, el color de la vida* film kanadarra, hain zuzen ere.

OHARRAK

Ortuen eskaera

Udalaren jabetzakoak diren lursailetan ortua jarri nahi duten herritarrek partzela eskatzeko azken eguna hilaren 29a izango dute.

Matilde Arrese

Matilde Arresek 101 urte bete zituen pasa den egunean, eta, hainbat herritarrez gain, udal ordezkariak ere joan ziren hura bisitatzen.

Ludotekako ekintza

Udaberriari ongietorria emango diote Gatzagako haurrek. Horretarako, gaur, 17:00etatik 19:30era, lore landaketa, talde jolasak, ipuin kontaketa eta txokolate beroa izango dira.



Mendekotasuna duen pertsona eta zaintzailea. PIXABAY.COM

Zaintzaren bi aldeetan daudenentzat programa

Mendekotasuna duten pertsonen eta haien zaintzaileen bizi kalitatea eta zainketa bera hobetzeko programa jarriko du martxan Arabako Foru Aldundiak. Aramaion ere hainbat izan daitezke onuradun: mendekotasuna aitortua duten 46 pertsona daude

Julen Iriondo ARAMAIO

Zainduz Araba programak askotariko arloei jarriko die arreta, hala nola, teknikoei eta baita psikologiko eta sozialei ere. Zentzu honetan, zaintzaileek laguntza psikologikoa jasotzeko aukera izango dute, eta antzerako egoeran dauden pertsonen osatutako taldeak sortuko dituzte, espezialisten gidaritzapean elkar laguntzeko: "Zaintzak dakarrena da, batzuetan, bakar-dadea: zaintzaileak utzi egiten die bere gauzei, lagunekin irteari... Dena zaintzan zentratzen delako; eta inportantea da hori zaintzea. Eta, gero, pertsonak mendekotasun handia badu eta, adibidez, nola mugitu ondo jakin ezean, alde fisikotik ere badaude zaintzailearentzat arriskuak", dio Gorbeialdeko Kuadrillako gizarte langile Leire Espinosak.

Honela, etxea egokitzeko eta baliabide teknikoak eskuratzeko laguntza jasotzeko aukera ere izango da Zainduz Araba

programaren barruan: "Joango zaizkie etxera ikustera nola duten antolatuta eta aholkatuko dituzte zainketarako beharrezko tresna, baliabide tekniko edo aldaketen gainean: komunean aldaketaren bat egitea komeni den, edo garabi bat behar duten, edo ohe berezi bat...".

Programaren barruan martxan jarriko duten beste neurri bat da aukera ematea mendeko pertsonak egun batzuk egin dituzan, hamabost gehienez, egoitza edo eguneko zentro batean, zaintzailearen atsedinari bide emateko, zaintzailearentzat eta mendeko pertsonarentzat kosturik gabe.

Honez gain, oinarrizko prestakuntza ere eskainiko diete zaintzaileei, eta euren jarraipe-


HERRI TXIKIA IZANDA, FAMILIAKOAK IZATEN DIRA ARAMAION ZAINKETAZ ARDURATZEN DIRENAK

na egin, asebetetze maila eza gutzeko. Programan parte hartu ahal izateko mendekotasuna duen pertsonak balorazioa egin izatea ezinbestekoa da.

31k jasotzen dute dirulaguntza Aramaion ere bada Aldundiaren programa honen onuradun izan daitezkeen jendea; hala dio Espinosak: "Adineko jende asko dugu mendekotasunarekin, eta badaude adinekoak ez direnak eta mendekotasuna dutenak ere. Eta, gainera, herri bat izanda, familiakoak izaten dira, gehienbat, zaintzaileak".

Gaur egun, adibidez, mendekotasuna duten 46 pertsona daude Aramaion, eta familiako kideren batek zaintzen dituelako 31k jasotzen dute dirulaguntza. Zaintzaile horietatik, 24 emakumeak dira eta zazpi gizonenak.

Uztailaren 1etik aurrera egongo da indarrean Zainduz Araba programa. Udaletxean eskura daitezke informazio gehiago.



Peru Abarrategi. IMANOL SORIANO

Agirre eta Igoa finalean berriz, eta Abarrategi lehen aldiz

Dulantziko puntuekin, finalerdietan zarpigarren izan da Amilburu, eta kanpoan geratu da, beraz

J.I. ARAMAIO

Iñaki Viñasprek eskuratu zuen puntu gehien Arabako Bertsolari Txapelketako bigarren finalerdian, Dulantzin: 330,5. Oihane Perea (323) eta Aroa Arrizubieta (323) ere sailkatu ziren finalerako; horiek eta Xabi Igoa, Manex Agirre eta Peru Abarrategi ariko dira hilaren 30ean Gasteizen.

Paula Amilburu (314) zarpigarraren geratu da, finaletik kanpo. Dulantzin oso gustura ez zela aritu aitortu zuen, nahiz eta behetik gora joan: "Puntu erantzunetan jardun dut gusturen". Hiru aramarioar izango ditu, beraz, aurtengo finalak: Abarrategi, aurrenekoak, eta ohikoak diren Agirre eta Igoa. Igoa izan da, gainera, finalerdietan puntu gehien eskuratu duen bertsolaria; txapelerako hautagaitza merezia du: "Egun bat da eta edozer pasa daiteke; gerra apur bat ematen saiatuko naiz".

Gogo bera, "gerra ematea", Abarrategiren ahotan ere, "helburua ondo beteta" izan arren; noski, "oso gustura" finalerako txartelarekin.

Bertsokatu sariketa

Bestetik, Paula Amilburuk eta Gorka Pagonabarragak irabazi dute Gasteizko sariketa.



Xake-matea

Bazen behin, orain dela denbora asko, erresuma jakin batean, errege bat.

Egun batean, bere erreinuko gizon bat aurkeztu zitzaion xake deituriko joko batekin. Arauak azaldu eta xake-taula bat pieza guztiekin oparitu ostean, erregea guztiz liluraturik geratu zen xake jolasarekin. Horregatik, gizonari, ordainetan, nahi zuena eskatzeko aukera eman zion. Gizonak, hausnarketa sakona egin ostean, xake-taulako lauki guztiak gari alez betetzeko eskatu zion erregeari, baina modu jakin batean. Lehenengo laukian gari ale bakarra jarriko zuen, bigarrenean lehenengoaren bikoitza, hirugarrenean bigarrenaren bikoitza... eta horrela, aurreko laukiko ale kopurua bikoiztuz, iritsiko zen xake-taulak dituen 64 laukitxo betetzera.

Erregeak, ezin sinetsi eta huseria bat eskatu izan balio bezala, gizonak eskatutako gari ale kopurua biltzeko agindua eman zuen, ez baitzen konturatu ezinezkoa zela kantitate hori lortzea.

Gaur egun ere, erraz nahasten eta galtzen gara horrelako eragiketa matematikoetan, inoiz ordaindu ezingo ditugun zorren menpe eraikitzen baitugu geure gizartea.

Familientzako bisita mitologikoa domekan, Amillenaren eskutik

11:00etan hasita, 90 minutuko bisita egingo dute, familientzako -4 eta 12 urte arteko umeak, gutxienez, heldu batek lagunduta-. Plazan hasi eta amaituko da, eta karobian eta Andra Mari ermitan egingo dituzte geldialdiak. Pertsonaia mitologikoak eta kondairak izango dituzte ardatz. Izena emateko: *aramaio.amillena@gmail.com*.



Ezkontza ospakizuneko jatetxeko mahaia.



Ezkontza ospakizuneko dekorazioa, jatetxean.

Jatetxeak, ezkontzen ezinbesteko osagai

Ezkontza ospakizun egunaren tarterik handiena jatetxean igarotzen dute ezkongaiak eta gonbidatuek. Hori dela eta, oso garrantzitsua da jatetxe, menu eta dekorazio egokiak aukeratzea egun handirako

Ezkontza ospakizunak, garaian garaiko egoera ekonomikoak eta ohitura aldaketek eraginda, askotariko itxurak hartuz joan dira.

Eboluzio nabarmena

40ko hamarkadan, ezkontzak erlijio ospakizunak ziren, eta hura gailentzen zen ondorengo ospakizunaren gaineratik. Izan

ere, familiarreko ospakizun bat zen; gehienez, bazkari edo askari batekin ospatzen zena.

Geroago, 50eko hamarkadan, ospakizunak sozialagoak ziren, eta, familiaz gainera, lagunak ere gonbidatzen zituzten ezkonberriek.

Hurrengo bi hamarkadetan, bestalde, Estatuaren egoera ekonomikoa hazten joan ahala,

ezkontzek ere aurrekontu handiagoak zituzten eta gero eta gonbidatu gehiagoko ospakizunak izaten ziren nagusi.

Gauzak horrela, 80ko hamarkadan izan ziren aurrerapauso handienak, *catering* enpresen sorrerarekin. Bazkari tradizionalagoak alde batera utzi, eta ezkongaien nahietara egokitu-tako eskaintza zabalak zituzten

catering-ak kontratatzen zituzten –hala nola buffetak eta cocktailak–.

90eko hamarkadatik aurrera, ezkontza zibilak gero eta ohikoago bilakatu dira. Hala ere, elizatik ezkontzeko hautua egiten dutenak ere badaude, baina askok toki bereziak aukeratzen dituzte zeremoniarako; besteak beste, hondartzak eta ezkutuko ermitak.

Iraganera itzuliz

Azken urteotan, familiarreko ezkontzak egiteko joera handitzen ari da. Gero eta ezkongai gehiagok egiten dute familia eta lagun gutxi batzuek osatutako ezkontzak egiteko hautua.

Ezkongaien nahiak ase

Jatetxeak, horrenbestez, ezinbestekoak izaten dira ezkontza ospakizunetan; hori dela eta,

ezkongaien gustuetara eta aurrekontuetara moldatzen saiatzen dira.

Ezkontza bakoitza bakarra eta errepikaezina izateko asmoz, jatetxeek eskaintza pertsonalizatuak eskaintzen dituzte, bai menuari eta baita dekorazioari dagokionez ere.

Hain zuzen ere, azken urteotan, dekorazioak gero eta pisu handiagoa hartu du ezkontza ospakizunetan, eta, hain da hori horrela, ezkongai askok dekorazioaren hautaketa gailentzen dute menuaren gaineratik.

AZKEN URTEOTAN, FAMILIARREKO EZKONTZAK EGITEKO JOERA HANDITZEN ARI DA

akebaso



San Joan 11201 16, Arre 48292 Abando

94 658 20 60

Etxe Aundi jatetxea, XIV. mendeko jauregia

Menu eksklusiboak dituzte ezkontzetarako, eta, beharrezkoa den kasuetan, hotelak dituen hamaika logeletan gonbidatuek bertan lo egiteko aukera ere eskaintzen dute. Terraza eta lorategia ere baditu, eta ezkontzak kanpoaldean ospa daitezke

Oñatiko Torrea auzoan da goen XIV. mendeko Etxe Aundi jauregiak ezkontza ahaztezina ospatzeko ezaugarri guztiak ditu.

Eraikina XVII. mendean berritu zuten eta gaur egun duen itxura eman zioten. Izan ere, ezkontzetan espezialistak dira Etxe Aundi jatetxean.

Menuak aukeran

Askotariko menuak eskaintzen dituzte, ezkongaiak aukera desberdinak izan ditzaten.

Horrez gainera, jatetxeko profesionalek lagunduta, menurik egokiena aukeratzeko gomendioak ere jasotzen dituzte ezkongaiak ezkontza aurretik

egiten duten menu desberdinen dastaketan.

Jangelak, beharrei egokitu

Ezkontza ospakizuna bezero bakoitzaren beharretara eta nahietara egokitzeko helburuarekin, edukiera desberdineko hiru jangela eskaintzen ditu Etxe Aundik.

Hain zuzen ere, ospakizun jendetsuenetarako, 220 gonbidaturentzako tokia daukan jangela handi bat dago eta ezkontza murrizagoentzat, berriz, 100 gonbidaturentzako beste jangela bat.

Gainera, gonbidatu gutxiago dituzten ezkontzetarako –batez

ere, familiarreko ezkontzak izaten direnak– jangela pribatu bat ere eskaintzen dute, giro goxo eta erosoa izateko pentsatua.

Lorategia

Horrez guztiaz gain, Etxe Aundi berezi egiten duen beste ezaugarri bat bere lorategi eta terrazak dira.

Eguraldia lagun izanez gero, koktel eta otorduen osteko dantzaldientzat leku aproposa izateaz gain, bertan ezkontza zibilak ospatzeko aukera ere eskaintzen dute.

Etxe Aundi jatetxean erreserbak egiteko, deitu 943 78 19 56 telefono zenbakira.



Eloi Elorza sukaldaria, plater bat eskuan duela, jatetxearen kanpoko aldean.



Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak.
- Parking handia.
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala.
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomía zaindua eta aukera zabalekoa...



Ezkontzetan
espezializatuta
dagoen jatetxea



leku eta egun ahaztezinak



Etxe-Aundi

Hotela - Jatetxea

Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI

Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90

etxeauudi@etxeauudi.com • www.etxeauudi.com



Josune Ibabe eta Gorka Bolina, Gure Ametsa jatetxearen jangelan.

Gure Ametsa, ezkontzen erreferente bilakatuta

Belaunaldiz belaunaldi igaro den jatetxea da Gure Ametsa eta urte hauetan guztietan ospakizun ugari hartu ditu jatetxeak; ezkontzetan erreferente bihurtu dira. Izan ere, inguru paregabean dago eta detailerik txikiena ere kontuan hartzen dute beti

Leintz Gatzagaren gainaldean dagoen Gure Ametsa jatetxeak esperientzia handia du ospakizunetan eta erreferente bihurtu da ezkontzetan.

"Urte luzeko ibilbidea du jatetxeak; Marisaren [Josune Ibaeren ama] aitona-amonek fonda moduko bat zuten hemen. Hauen ondoren, Marisaren gurasoek obra egin zuten eta jatetxea eraberritu zuten. Orduan egokitu zuten jatetxea ospakizunak egiteko. Baina obraren aurretik ere ospakizun ugari egiten ziren, ehun urte baino gehiagoko ibilbidea du gure jatetxeak", adierazi du Josune Ibaek, Gure Ametsa jatetxeako arduradunak.

Paraje ederra

Naturaz inguratutako landa eremu paregabean dago Gure Ametsa.

Lorategi handi batek inguratu du jatetxea eta, eguraldiak lagunduz gero, bazkaldu baino lehen luntxa ere egin daiteke lorategian.

Gainera, gero eta ohikoagoa izaten da zeremoniak egitea jatetxean, eta, eguraldi txarra

eginez gero, "B plana" dute eta barrualdean ere zeremoniak egiteko tokia egokitzen dute.

"Orain ohikoagoa den arren, guk urte asko daramatzagu ezkontza zeremoniak gurean egiten", azaldu du Ibaek.

Menu pertsonalizatuak

Ezkontzaiek plater ezberdinak dastatzen dituzte ezkontza baino hilabete batzuk lehenago, eta, ondoren, euren nahietara egokitutako menua sortzen da.

"Ez dugu menu zehatzik eskaintzen ezkontzetarako; ezkontzaiek aukeratzen dituzte platerak. Bikote bakoitza mundu bat da eta nork bere gustuak ditu; guk horren araberrako menu pertsonalizatuak sortzen ditugu", adierazi du Ibaek.

Dekoratuen garrantzia

Dekoratuek gero eta garrantzia handiagoa dute ezkontza ospakizunetan eta Gure Ametsan mimo handiz prestatzen dituzte dekoratuak detaille txikienak ere kontuan hartuz eta ezkontzaiek nahietara moldatuz.

Erreserbak egiteko, deitu 943 71 49 52 telefono zenbakira.



GURE AMETSA
Restaurante • Jatetxea

Ezkontza berezia eta ahaztezina!








943 71 49 52
Leintz Gatzaga
www.gureametsa.es



Alberto Elorza sukaldaria Zela Zabal jatetxearen kanpoko aldean

Zelai Zabal jatetxea, ezkontzetan aditu

Mende bat baino gehiagoko ibilbidearekin, denetariko ezkontza ospakizunetara moldatzen jakin dute. Gainera, Arantzazuko Gandiaga Topagunean ere egiten dituzte ezkontza ospakizunak

Oñatiko Arantzazu auzoan dago Zela Zabal jatetxea. Esperientzia handia dute ezkontzetan, eta ezkongaien nahietara eta gustuetara egokitutako menuak eskaintzen dituzte bertan.

"Ez dugu konfesionaturiko menurik. Ezkongaiak menua probatzera etortzen dira; denetariko platerak eskaintzen zaizkie, eta, horren arabera, menu pertsonalizatuak sortzen ditugu", azaldu du Zela Zabal jatetxeko

Alberto Elorza sukaldariak.

Ezkontzen eboluzioa

"Ezkontza txikiagoak izaten dira egun, bazkari formalagoa egiten dute familiarekin, eta ondoren, lagunekin luntxa", azaldu du Elorzak.

Gandiaga Topagunea

Jatetxetik 300 metrora dago Gandiaga topagunea eta ezkontza zeremonia ugari hartu ditu azkeneko urteotan.

Izan ere, Zela Zabalek bertan koktela eta luntxa egiteko aukera eskaintzen du. Eta, bazkaria, jatetxean. Bi jangela dituzte, 170 gonbidaturendako bat eta 30 gonbidaturendako bestea.

Ibilbide luzea

"120 urte inguru ditu gure etxeak eta, hain zuzen, hemen ezkondu zirenen urrezko ezteiak ospatzen hasiak gara dagoeneko", adierazi du Elorzak. Erreserbak egiteko, deitu 943 78 13 06 telefono zenbakira.

Akebaso baserria, naturaz inguratuta

1735. urtea ezker eskaintzen dira ezkontzak Akebaso baserrian. Eraikina berrituta dago, baina baserriaren egitura originalari eutsita. Zeremoniak natura ingurunean egiteko aukera bikaina

Bizkaiko Atxondo bailarako Axpe herrian dago Akebaso jatetxea. 2006an zabaldu zituen ateak Akebasok eta hasieratik ezkontza ospakizunak eskaini dituzte.

Ohiturak aldatuz

Ezkontza familiarrak eta gonbidatu murriztagokoak gero eta ohikoago ari dira bihurtzen. "Gainera, zapa-tuaz gain, beste egun batzuetan ere egiten ditugu ezkontzak; hauek are mu-

rritzagoak dira, familiarekin ospatzen direnak", esan du Izorne Luengok.

Ezkongaien gustura

Lau menu dituzte aukeratan, baina horiek moldagarriak dira ezkongaien nahien arabera.

"Ezkongaiak menu bat aukeratzen dute eta nahi beste aldatuta egiten dituzte. Horrenbestez, ezkongaien nahietara egokitutako menuak eraikitzen ditugu gu-

rean", adierazi du Luengok.

Dekorazio pertsonalizatuak

Ezinbesteko ezaugarri bilakatu da dekorazioa azkeneko urteotan. "Bikote bakoitza desberdina izanik, dekorazioak ere hala izan behar duela uste dugu. Ez dugu inoiz dekorazioa errepikatzen", azaldu du Luengok.

Erreserbak egiteko, deitu 943 58 20 60 telefono zenbakira.



Izorne Luengo, Akebaso jatetxean ezkontzak hartzeko gertu.



Arantzazu auzoa 38 - OÑATI
Tel.: 943 78 13 06
www.zelaizabal.com / restaurante@zelaizabal.com

- Bataio, jaunartze eta ezkontzetarako leku paregabea.
- 180 gonbidaturendako jangela.



1898a. ezker
ZUEN ZERBITZURA

Klika egiteko egunak prest dituzte Elgetan

Korrika batzordeak apirilaren 12rako eta 13rako iragarri ditu ekintza nagusiak. Antolatutakoen artean daude Korrika Txikia, Elgetako Korrika eta bertso afari berezia. Goibekok, berriz, irteera egingo du apirilaren 7an, Korrika eta maskarada ikusteko

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Zortzi bat lagun elkartzen dira Elgetan Korrika batzordeko lanak egiteko. Apirilaren 4an elkartuko dira hurrengo, 18:00etan. "Lan handiena eginda dago. Elkartuko gara azkenengo gauzak zehazteko", adierazi du batzordeko kide Ane Bilbaok.

Korrika egitera, Bergarara

Apirilaren 13an igaroko da Korrika Bergaratik. Zapatua da eta Bergaratik Osintzurako tarre bat lagunduko du diruz Elgetak. "Udalak hartuko du kilometroa, baina herritar guztien izenean". Hala, bertaratzeko dei egin du batzordeak. "Eguerdian partean izango da eta autobusa egongo da joan-etorria egiteko".

Korrika Eguna, bezperan

Giroa berotzeko, apirilaren 12rako arratsalde osoko egitaraua iragarri dute. Herri Eskolak Korrika Txikia egingo du, 15:00etan. Eskolako neska-mutikoei egingo dute. Haur Liburuen Eguneko ekintzak ere egun horretan egingo ditu liburutegiak, eta ipuin kontaketa saioa egongo da plazan. "18:30ean Elgetako Korrika egiteko asmoa dugu. Euskaraldiarekin ikusi dugun moduan, baloratzekoa da Elgetan posible dela euskaraz bizitzea.



Mari Karmen Larrañaga, lekukoarekin, Korrika Elgetatik igaro zenean, 2015ean. LZL

KORRIKAREKIN LOTUTA EGINDAKO ARGAZKIEKIN BIDEO BAT EGINGO DU BATZORDEAK

Zerbitzu guztiak euskaraz ditugu, eta nahi dugu herritarrek horrekin konturatzeko. Hala, herriko merkatariek, elkarrekin eta eragileek Elgetako Korrikan parte hartzeko deia jaso dute. "Aldarrikatuko dugu euskaraz

bizi nahi dugula, eta horretan ahaleginduko garela. Herritarrek parte hartzea garrantzitsua da".

Goibeko, Zuberoara

Aurreko domekarako, apirilak 7, egun osoko irteera antolatu du Goibekok. Zuberoan izango da egun horretan Korrika, eta asmoa da eguerdian Korrikan parte hartzea eta arratsaldean Hoki herrian egitekoa den maskarada ikustea. El Rincon de Lola tabernan eman daiteke izena autobuserako. Prezioa hamar euro da.

Berrikuntzen ondoren, Ozkarbi atea irekiko ditu gaur

Urtarrilean egindako batzarrean erabaki zuten Ozkarbi elkarteak bazkideek beheko solairuan, taberna gunean, lanak egitea beharrezkoa zela. Hala, barra ingurua egokitzeko lan batzuk egiten aritu dira egun hauetan. Lan guztiak amaituta, gaur egingo dute irekiera, 19:00etan hasita. Bertaratzeko diren herritarrek mokadutxo bat hartzeko

aukera izango dute, eta baita Unai Cantabranaren kontzertuak gozatzeko aukera ere. Tabernako barra 21:00ak arte egongo da zabalik.

Elkarteko ordezkariak adierazi dute gaur zabalik egongo dela 13-18 urte bitarteko gaztetxoendako eraikineko hirugarren solairuan prestatutako espazio berria, eta izena emateko ez dela beharrezkoa bazkideren baten seme-alaba izatea. Are gehiago, lehenengo erabiltzaileek jaso dute giltza dagoeneko.

Hiruzpalau kontzertuz osatutako tributu jaialdia Espaloian

Musika izango da protagonista gaur iluntzean Kafe Antzokian. Kontzertuak 22:00etan hasiko badira ere, Espaloiko atea 21:30ean irekiko dituzte. Jaialdi horretan parte hartuko duten talde nagusiak hiru izango dira: Bribiblibli (Extremoduro), Los Platero (Platero Y Tu) eta Triscando En La Hierba (Marea). Horrez gain, jaialdi horretarako Bergarako talde bat gonbidatu dute: Black Lemons musika taldea, hain zuzen.

Jaialdi horretaz gozatzeko, aurrez sarrerak salgai egon dira hainbat tokitan, baina gaur bertan ere hamabost eurotan eroszeko aukera egongo da, Espaloiko leihatilan.

OHARRAK

Ipuinen Ordua, gaur

Ipuin kontalari boluntarioek hiru saio eskainiko dituzte gaur, liburutegian. 17:00etan hasiko da ipuin kontaketa eta 18:20an amaitu.

Irteera domekan

Adarrara egingo dute mendi irteera eta ondoren sagardotegira joango dira.

Plastiko bilketa


Siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko bilketa, 19:00etan hasita.

Sozialisten alkategaia

Elias de Castro izango da Elgetarako Alderdi Sozialistaren alkategaia.

Korrikaren aldeko bertso afaria

Ozkarbi elkarteak Udalarekin eta Goibekorekin elkarlanean bertso afaria iragarri du apirilaren 12rako. Prezioa 20 euro da eta txartelak apirilaren 8ra arte egongo dira salgai Haizea eta El Rincon de Lola tabernetan. Zizka-mizkak, entsalada epela, saiheskia eta postrea daude menuan. Horrekin batera, Onintza Enbeitaren eta Sustrai Colinaren bertso sorta, noski.



Onintza Enbeita eta Sustrai Colina bertsolariak. BERTSOZALE.EUS



INTXORTAKO LEHOIAK

Intxortako Lehoiak San Mamesen

Intxortako Lehoiek Bilbora egin zuten irteera aurreko zapatuan. Bertan, Athleticen museoa bisitatzeaz gainera, San Mamesen bisita gidatua egin zuten. Zelaian izateko aukera ere izan zuten eta argazkiak atera zituzten.

Arratsaldean, berriz, Athleticen eta Atletico Madrilaren arteko norgehiagokaz gozatzeko aukera izan zuten futbol zelaian.

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Udalak eta Alardearen Kultura Elkartek antolatuta, Mairuaren Alarde berri-tuaren gaineko balorazio saioa egingo dute bihar, martxoaren 23an, 09:30ean, Olaranen. Landuko dituzte, besteak beste, Alardearen antolaketa eta funtzionamendua, parte hartzaileak, harremanak eta askotariko iriztiak. Lander Dominguez Alardeko buruzagia azken hamar urteetan izandako berrikuntzez eta herritarren auzolanaz jardun du GOIENArekin.

Zergatik egin gura duzue Alardearen gaineko balorazio saioa?

Azken hamar urteetan egindako lana eta lortu dena herritarrei azaleratu gura diegu. Herriak baloratu eta hausnartu dezan. Guretzako, garrantzitsua da balioan jartzea. Hurrengo urratsak zeintzuk izan daitezkeen hausnartu gura dugu herritarrekin.

Alardearen jarraikortasuna bermatu gura duzue?

Badakigu gauzak ondo egin ditugula, ez gara lotsatzen ondo egin ditugula esateaz. Eredutzat hartzen gaituzte beste leku batzuetan. Antzuolan gauzak ondo egin direlako. Hori guztiori mahai gainean jarri eta herritarrekin elkarbanatu gura dugu. Eta noski, Alardea indartzea eta honen jarraikortasuna bermatzea ere badira gure helburuak.

Eboluzionatzen eta garaira egokitzen jakin du Alardeak.

Bai, halaxe da. Ez da estatikoa izan eta gizartera egokitzen jakin du hasiera-hasieratik. 1880an egin zen lehen Alardea eta pixkanaka egokitzen joan da. Aldaketa handiena 1975 inguruan gertatu zen, diskurtsoa euskarara pasata. Aldaketa nagusiak orain dela hamar urte izan ziren, eta beti herrira eta ingurukoan



Lander Dominguez, Antzuolako Herriko Plazan. MAIDER ARREGI

"Eredutzat hartzen gaituzte, gauzak ondo egin ditugulako"

LANDER DOMINGUEZ ALARDEKO BURUZAGIA

2009an Mairuaren Alardeak bizi izandako berrikuntzek hamar urte beteko dituzte. Hala, Alardea indartzeko asmoz, herritarrekin balorazio saioa egingo dute bihar

errealitatera gerturatzen joan da Antzuolako Alardea.

Modu naturalean eta aparteko arazorik gabeko aldaketak izan dira.

Aldaketak gogoz eta modu naturalean gertatu dira. Urteroterero Herriko Plaza bete egiten dela ikusi besterik ez dago. Herriak onartu duen seinale.

Zein aldaketa dira esanguratsuenak?

Mairua eta buruzagia maila berean jartzea. Orain, mairuak errege kategoria dauka, eta bere segizioa. Lehen, kateaz lotuta joaten zen, gaizki margotuta eta asto gainean, umiliatzeko. Eta bukaeran, bi herriek elkar errespetatzeko zin egiten dugu.

Emakumeak Alardean gaur egun presentzia handia dauka.

Bai, berdintasuna oso presente dugu, gainera. Fusilari edo kanoilari gisa ikusteaz gain, espe-ro dugu epe ertainean kargu altudun postuetan ere ikustea.

Herri izaera duen ospakizuna da.

Herritarren parte hartzea handia da. Alardearen bueltan 200 lagun inguru auzolanean aritzen da lanean. Plazara ere ia herri osoa gerturatzen da. Auzolanik gabe ezinezkoa izango litzateke aurrera ateratzea.

Herriko belaunaldi berriengana iristeko lana egin beharra dago? Herri Eskolan, esaterako, lantzen da gaia ikasleekin?

Egia da etxe gehienetan kideren batek parte hartzen duela edo parte hartu izan duela Alardean. Eta horregatik, modu naturalean gertatzen dela transmisio hori uste dut. Baina, hala ere, bermatu beharra badagoela uste dut eta belaunaldi berriei herri sentimendu hori transmititzeko lan egin gura dugu. Adibidez, eskolarekin zerbait egin gurako genuke. Urtetik urtera eguneratzen joatea ere guztiz lagungarri da transmisioa bermatzeko orduan.



Mairua, asto gainean. ALARDEAREN KULTURA ELKARTEA



Mairua eta buruzagia, errespetuz. ALARDEAREN KULTURA ELKARTEA



Emakumezko fusilariak gizonezkoekin. ALARDEAREN KULTURA ELKARTEA



Ane Hernani taldekideekin, ikus-entzunezkoari izena eman dion kartelaren aurrean. ANE HERNANI

Emakumeak eta kirola uztartuz Mendi Astean

Mendiaz askotariko jarduerekin disfrutatzen auzerak daudela azaleratu gura du Arrolaren Mendi Astea. Martxoaren 26tik 31ra bitartean, ikus-entzunezkoak, solasaldiak eta irteerak egingo dira; aurten, emakume kirolaria da abiapuntua

Maidar Arregi ANTZUOLA

Arrolaren Mendi Astearen helburua, mendizaletasuna sustatzeko gain, mendian ibiltzeko bestelako jarduerak batzuei arreta jartzea da. 1972an sortu zen ofizialki Arrola Mendizale Elkartea eta beti antolatuta izan du Mendi Astea. "Herrian zaletasuna dago; jende asko ibiltzen da eskiatzen zein korrika; batez ere, belaunaldi berriak. Euren zuzendua ere badago Mendi Astea", azaldu dute antolatzaileek.

Iaztik ordea, emakumeekin zorretan geratu zirela aitortu dute. "Aurten, emakumeak eta mendia uztartu nahi izan ditugu, era xumean, bi saio besterik ez delako. Uste dugu mendizaletasunak oso maskulinoa izaten jarraitzen duela, eta, honen bitartez, emakumeen zereginak goraitatu eta bultzatu nahi ditugu. Aldi berean, sustatu nahi dugu Arrolak ingurumenarekin izan duen errespetuzko hartumana; batez ere, herriko ingurumenari erreparatu diogulako".

Horren isla dira urtean zehar egiten diren ekintzak eta auzolanak, iturriak eta bideak berreskuratzeko. "Auzolana esaten dugunean, komunitatean egindako mendizaletasuna sustatu nahi dugu, une honetan krisian dagoena".

Kanadako mendi eskia

Ane Hernani elorriarrak orain bi urte Kanadara egindako "ametsak" bidaiak jardungo du martxoaren 26an, Oларanen, 18:30ean. Hernanik mendiko eskia maite du, eta beste hiru lagunekin bizitako abenturaz jardungo du. *Expect the unexpected* ikus-entzunezkoan jaso ditu bidaiaren bizipenak. "Gure taldeko kide bat mendi eski gidaria

ANE HERNANIK MENDIKO ESKIAZ JARDUNGO DU; SILVIA TRIGUEROSEK, MENDI LASTERKETEZ

da; oso ondo antolatutako irteerak egin genituen. Helikopteroz soilik joan daitekeen parajeetan ibili ginen. Ikaragarria izan zen. Gainera, gure bidaiaren amaieran, elur jausi ikaragarri bat bizi izan genuen geure begien aurrean. Bizitzako espektakulua bizi izan genuen. Bideo hori, gainera, biral egin zen eta ikus-entzunezkoaren ideia etorri zen".

Egitaraua

Ane Hernaniren solasaldiaz gain, Silvia Trigueros mendi korrikalariak bere bizipenak kontatuko ditu. Italiako Aosta bailaran egindako proba gogorraz jardungo du. 24.000 metro positiboko altuera eta 330 kilometro dituen proba da. Ikus-entzunezkoa eta hitzaldia martxoaren 28an, Oларanen, 18:30ean.

Eta martxoaren 31rako, auzolana deitu du Arrolak. Trekutzeko aisialdi gunea txukuntzera joateko dei egin diete herriarrei. 09:00etan Oларan etxe aurretik abiatuko dira.

Gallastegi, zerrendaburu

Miren Arrate Gallastegi eibartarra izango da Antzuolako Alderdi Sozialistaren hautagaia udal hauteskundeetarako. Gaur egun, hura da Udalean Alderdi Sozialistak daukan zinegotzi, ordezkari, bakarra. "Ilusio handiz" aurkeztuko dela bigarrenaz azaldu du Gallastegik.

Espainiako Senaturako lehen hautagaia ere hura izango da.



MAIDER ARREGI

Ezkutatutako herriko historia azaleratzeko erakusketa

Intxorta 1937 elkarteak, Udalararekin batera, bi erakusketa batera jarriko ditu martxoaren 27tik apirilaren 14ra bitartean Oларanen. Eta egun berean, Josu Chuecak hitzaldia emango du frankismoaren aztarnaz eta erbesteaz, arratsaldeko zazpitan hasita, Oларanen bertan.

Etorbizuna alanbre hesi artean erakusketari dagokionez, 1939ko

otsailean, Katalunian zeuden milaka euskal errefuxiatuak ihes egin behar izan zuten, faxistengandik, Frantziara. *La Retirada* ihesaldia kontatuko dute.

Eta, Antzuolan ezkututako historia argitzeko erakusketa, herriko 130 erresistenten izenak, frontean hildakoenak, espetxeko fitzak, emakumeen errepresioa, langile batailoioak, matxinatuen atxiloketak, eta abar jasoko dira. Helburua da historia hau berreskuratzeko herriko talde ireki bati bultzada ematea.

Antzuolarrek Aiherran egingo dute bat Korrikarekin

Debagoienean barrena ibiliko den arren, aurten Korrika 21 ez da Antzuolatik pasako. Hala ere, horrek ez du Antzuolako Korrika batzordearen ahalegina zapuztu. "Antzuolatik ez da pasako baina antzuolarrok bat egingo dugu Korrikarekin". Hala, apirilaren 7an, aihertarrek batera Korrikan izango gara. Aiherran antolatuta dituzten ekin-

tzekin bat egingo dugu", azaldu du Jon Ugarteburu Euskara zinegotziak. "Autobusa jarriko dugu: lehena apirilaren 6an, zapatua, Aiherran antolatuta diren kontzertuetara joan ahal izateko. Eta apirilaren 7an, domeka, Aiherrara Korrikan parte hartzeko -autobusa 3 euro; kontzertuetarako sarrera aparte-. Astelehenetik aurrera autobusean izena emateko aukera dago. liburutegian edo udaletxean.

Eskolak, gainera, Korrika Txikia egingo dutela aurreratu du.

Martxoan, argazki erakusketa ikusgai Aitz Garbi tabernan

Bergarako Juanmi Caballero argazkilaria lanak ikusgai daude Aitz Garbi tabernan. Oraingoan, martxoan osoan zehar egingo da ikusgai; hala ere, apirilera luzatzea ez du baztertzen artistak. Zuri-beltzean dauden 18 erretratu daude: paisaiak nahiz lekuak dira nagusi; baita sekuentzian jasoak dauden pertsonen mugimenduak ere.

MUJKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak

Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

Agorrosin udalekotuta ere, finantzaketa bila

BKEko bazkideek aho batez onartu dute Agorrosin Udalarari ematea Agorrosin Berrirako lehen fasea gauzatu dezan, eta, horretarako, hitzarmen zirriborro bat adostu dute; zelai artifiziala jartzeak milioi bat euroko aurrekontua dauka eta finantzaketa lotu barik dago


Jokin Bereziartua BERGARA

Bergara Kirol Elkartek hitzarmen zirriborro bat adostu du Udalarekin Agorrosin futbol zelaia dohaintzan eman eta Udalak Agorrosin Berrirako lehen fasea gauzatu dezan. Miguel Altuna Institutuan ezohiko izaeraz egindako batzar orokorrean klubak jabetza aldaketaren gainean bazkideen iritzia jaso gura izan zuen eta agertu ziren 176 bazkideek –batzar orokor baten egon den inoizko asistentziarik altuena– aho batez onartu zuten zuzendaritzaren proposamena. Kontuan hartu behar da 30 urte luze iraun dutela Agorrosin Udalarari emateko negoziazioek.

Artifiziala jartzea da urgenteena

Lehen faseko lanen barruan kokatzen dira belar naturala kentzea eta haren ordez artifiziala jartzea –zelaiaren zati bat Agorrosin baserrirantz mugituta–, argiteria artifizialaren instalakuntza eta perimetroko hesia egokitzea.

Mahoneroek lehen fase horretarako dute behar gorriena, batzar orokorrean bertan argi utzi zuten Ipintzako futbol zelaiaren "sekulako saturazioa" izaten dutelako: "Gero eta jokalarik gehiago ditugu, eta ezin dugu zelai bakarrean jarraitu". Gaur-gaur-



Agorrosin Berriaren ilustrazio bat, Izaskun Larzabalen aurreproiektukoa. IZASKUN LARZABAL

koz, 14 taldek erabiltzen dute Ipintza entrenatzeko astelehentik egubakoitzera, eta BKEko arduradunen arabera, bereziki kadete mailatik gorako jokalarientzat "desegokia" da zelai erdi baten entrenatzen aritzea: "Deserosoa izateaz gain, ez die uzten jokalarik moduan hazten uzten".

Finantzaketarako itxoin beharra

Klubeko diruzain Javi Orbeak bazkideei jakinarazi zien lehen faseko lanek milioi bat euro inguruko aurrekontua dutela, "diru asko". Udal Gobernuak

adierazi du BKEren gaia dela oraingo, eta negoziazioak aurrera badoaz ere gaia Udaleko batzordeetan lantzen jarraituko dutela. Hortaz, finantzaketa ez dago lotuta oraindik; futbol zelaiaren erreformak Udalaren, Diputazioaren eta Espainiako Federazioaren artean finantzatu izan dira orain arte, baina BKEren arabera zortetik ez dute izan Federazioarekin eta Diputazioarekin.

Batetik, Espainiako Federazioako presidente Angel Maria Villarrek lotutako ustelkeria

kasuak ez du lagundu –Federazioak kudeatzen dituen kintiletako etekinen zati bat futbol zelaiaren erreformatara bideratu izan da historikoki–. Bestetik, Diputazioak Labegaraieta birgaitzeko ia 600.000 euroko dirulaguntza bideratu du 2019rako eta 2020rako, eta, beraz, Diputazioaren ekarpenarako 2021era arte itxaron beharko da, gutxienez. Hain justu, BKEko arduradunek 2021a dute begiz jota Agorrosin Berriko lehen faseko lanak errealitate bihurtu daitezkeen.

Bazkideen babesa, aho batez

Udalarekin gutxieneko akordio bat lortu ostean, BKEko zuzendaritzak bazkideei galdetu behar zien jabetza aldaketarekin ados dauden jakiteko, eta horretarako deitu zuten ezohiko batzar nagusia: "Bazkideen babesa beharrezkoa genuen eta espero baina bazkide eta jokalarik gehiago etorri dira batzarrera; aho batez onartuta, pozik gaude". Akordioan, Udalak lehen faseko lanak egitearen ardura bere gain hartzeaz gain, jasotzen da zelaiaren erabilera BKErentzat izango dela eskusiboki, perimetroko hesian publizitatea jarri ahalko duela eta zelaiaren eta instalakuntzen mantenurako Udalak plan bat egin duela. Lagapena 30 urterako izango litzateke.

Hori bai, BKEko zuzendaritzak hasieratik izan du argi jabetza aldaketa honetan herriari eremu bat eman behar zitzaiola: "Kontziente ginen inbertsio handia suposatzen duen obra bat dela eta herri osoarentzat onuragarria ere izan beharko litzatekeela Udalak onartu dezan. Obra gauzatzen denean, ia 4.000 metroko eremu bat libratuko da herriarentzat, gura den erabilera emateko".



J. BEREZIARTUA

"Akordioa ona da bi aldeentzat"

IOSU ELORZA BKE-KO PRESIDENTEA

Zertan datza akordioa?

Zelaia Udalarari emateagatik Udalak konpromisoa hartzen du lehen fasea egiteko. Hau da, belar naturala kendu eta artifiziala jarri, argiteria artifiziala instalatu eta perimetroko hesia egin. Hori gauzatzen denean, Agorrosin Udalarena izango da. Ordura arte klubarena da Agorrosin.

Noiz gauzatuko da?

Udalarekin lantzen ari garen data da 2021a. Diputazioetik diru-funts bat etor liteke eta futbol federazioarekin ere harremanetan gaude. Oraindik, baina, proiektu zehatza egitea falta da aurrekontua zehazki zenbateko den jakiteko.

Pozik zaudete Udalaren erantzunarekin?

Hainbat bilera egin ditugu eta talkak izan ditugu, baina bi aldeentzat ona da akordioa; ia 4.000 metro koadroko eremu bat herriari emango diogu, gainera.

Eraberritzeko proposamena

San Martin plaza eraberritzeko Vaumm arkitektura enpresak diseinatutako proposamena aukeratu du Udalak, jendaurrean erakutsi ostean. Herritarrek "ez dute gaur egungo plaza askorik aldatu nahi", eta bat egin dute "plazari bizitasun eta argitasun handiagoa ematearekin, autoen presentzia murriztearekin eta ondare gisa zaintzearekin eta erabiltzearekin".



VAUMM

OHARRAK

Udaleku itxietarako izen-ematea zabalik dago

LH6ko eta DBHko 1-2ko gazteei zuzendutako udaleku itxien barruan, ekainaren 24tik 29ra Getariako Askizu aterpetxera joango dira. Izen-ematea zabalik dago apirilaren 17ra arte, Jardunen bulegoan; bihar, hilak 23, bilera ireki bat egingo dute ludotekan (11:00) udalekuon gaineko informazioa emateko.

Pentekosteetarako kartel lehiaketa, martxan

Herriko jai nagusietako egitarauaren azala egiteko lehiaketa abiatu du Udalak. Lanak Bergararren Arreta Zerbitzuan entregatu beharko dira maiatzaren 2rako –13:00etarako–. Herritarrek botoa eman ahalko dute maiatzaren 2tik 6ra, www.bergara.eus webgunean; epaiaren %50eko balioa izango dute.



Alderdikideen babesarekin eta herritarren aurrean aurkeztu zuten Lete alkategai, Matxiategiko plaza berrituan. IMANOL SORIANO

Lete: "Beharrei gertutik erantzuten segituko dugu"

Juanje Alberdiri lekukoa hartuta alkatetzara heldu ostean, lehen aldiz aurkeztuko da Elena Lete EAJren alkategai udal hauteskundeetara; "kudeaketa irmoa eta garbia" oinarri, alkate aukeratzu gero herriko beharrei "gertutik" erantzuten jarraituko dutela dio

Jokin Bereziartua BERGARA

Lehen aldia da Lete hauteskundeetara alkategai aurkeztuko dena, agintaldi honetan Juanje Alberdiren lekukoa hartuta iritsi zen-eta alkate lanetara; orduan kargua hartu zuenean esandako hitzak errepikatu eta esan zuten "ohorea eta erantzukizuna" eragiten dizkiola alkate izateak, hori sentitu duela egunero ardura hartu zuenetik, eta hori sentitzen duela orain ere hautagai moduan.

Kudeaketa "irmoa eta garbia"

Udal taldeari eta familiari eskerrak eman zizkien alboan egotearren, eta, aita zuena ere gogoan, hunkituta, adierazi

zuen berezia dela aurkezpenean Matxiategin egitea, bere ingurunean eta gertuko jendearekin, Matxiategikoa bertakoa baita. Letek adierazi zuen Bergarak aurrera egin duela lau urteotan, lan asko egin dutela Udalean eta emandako hitza bete dutela; herrian aldaketa izan dela eta Bergara "lasaia eta atsegina" bilakatu dela gaineratu zuen.

Herritarrekiko izan duten harremana ere nabarmendu zuen Letek: "Alkate moduan hasi nintzenean esan nuen gobernatu behar genuela partaidetzan, gardentasunean, eraginkortasunean eta sentsibilitatearekin. Hau da, jendearen premiei entzuten eta horiei

erantzuten. Eta hori egin dugu. Kudeaketa irmoa eta garbia izan da gurea eta aurrerantzean ere herritarren beharrak gertutik saiaturako gara ezagutzen, kudeatzen eta erantzuten". Horrekin batera, honako hau gaineratu zuen: "Lankidetzeta eta partaidetzeta dira gure leloak; horiek izan dira eta horiek izango dira. Baina hori guztia aurrera eramateko behar genuen beste osagai bat, ezinbestekoa dena: ilusioa. Ilusioarekin sartu ginen eta ilusioarekin gatz".

"Gipuzkoa blokeatuta zegoen"

"Etorkizuna sendotzeko" jarduerak ekonomikoaren garrantzia azpimarratu zuen EAJren alka-

tegiak, eta zentzu berean mintzatu zen diputatu nagusi Markel Olano, herrialde osoari erreferentzia eginaz. Duela lau urte foru gobernua herritarrekin "aurrez aurre jarrita" zegoela eta, horrekin batera, arlo ekonomikoari garrantzirik ematen ez ziola adierazi zuen Olanok, "mesfidati" zela enpresekin. EAJk gidatuta, hori aldatu eta, adibidez, langabezia %8 ingurura jaitsi dela gogora ekarri zuen.

Aurreko gobernuarekin Gipuzkoa arlo askotan "blokeatuta" zegoela gaineratu zuen Olanok, eta Beasain-Bergara autobidea jarri zuen adibide; erronka euren gain hartu eta "egun gutxi barru" irekiko dutela gogorarazi zuen, "kudeaketa onaren adibide" dela esanez. Esan zuen errepide hori "oso garrantzitsua" izango dela bai jendearentzat eta baita enpresen lehiakortasunarentzat, eta azpimarratu zuen, hain justu, lehiakortasun hori funtsezkoa dela herrialdeko "ongizatea, oreka eta kohesioa" mantentzeko, herritarren arteko desberdintasunak ahalik eta txikiak izan daitezela.

Madriren ere, "EAJren beharra"

Espainiako hauteskundeak izan zituen hizpide Joseba Egibarrek; EAJren "herri proiektua" ahotan hartuta, haren alde egiteko "Madriren ere EAJren beharra" dagoela adierazi zuen. Bestalde, jeltzaleak besteengandik bereizten dituen "ezaugarri nabarmen bat" aipatu zuen: "Konpromiso politikoa, demokratikoa eta etikoa. Horrekin batera, elkarriketak eta negoziazioa ere badira gure bereizgarri; guk ez dugu herri osoa ordezkatzeko, zati handi bat bai, baina badakigu bestearekin hitzartu ahal izateko negoziatu egin beharko dugula".

Erramu Zapatuko bazkarirako txartelak, hilaren 28an salgai

Aurten ere Txapa Irratiak eta Xaxau jai herrikoien konpartsak antolatuko dute Erramu Zapatuko bazkaria, apirilaren 13an. Bazkaria, urtero moduan, Udal Pilotalekuan egingo dute, baina aurten 15:00etara atzeratu dute; atzerapenaren arrazoia da goiz horretan Korrika pasatuko dela Bergaratik. Izan ere, aurreikusita dago Korrika 13:31ean sartzea Bergarako lurretan.

Bazkarirako txartelak hurrengo egunean, hilak 28, jarriko dituzte salgai, Irala kalean (19:00); prezioa 12 euro da eta pertsona bakoitzak lau txartel erosi ahal izango ditu, gehienez. 450 lagunendako lekua egongo da, gutxi gorabehera.

OHARRAK

Zigor Iturrieta

Txoriene telebista saioko aurkezleak gosari eta merienda osasuntsuak egiteko aholkuak emango ditu, 6 eta 16 urte arteko begira. Martxoaren 28an izango da, San Joxepe elkartearen, 17:00etatik 18:30era. Bertan meriendatuko dute. Plaza mugatuak: 943 76 93 04.

Txorimalo erakusketa

Komenio kalean jarriko dira aurten, apirilaren 13an, 11:00etatik 12:30era. Izena eman behar da Jardunen, apirilaren 10a baino lehen.

Ilustrazio ikastaroa

Beart-en egoitzan, Aitziber Alonsorekin. Izen-ematea: beart.elkartea@gmail.com.



2019KO TELVA
EDERTASUN SARIAK

Gonbidatua, egindako lanaren aitortza gisa

"Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet Lilurako lantaldeari, urte hauetan nire ondoan izateagatik, eta nire ibilbidean ondoan izan ditudan bezero guztiei." *Lupe Garcia*

Bidekurutzeta 7, Bergara • www.lilura.com



EH Bildu: "Herria gelditu egin dute lau urteotan"

Bukatzearen agintaldiaren balorazioa egiterakoan, Gobernuaren "immobilismoa" nabarmendu du EH Bilduk eta salatu du agintaldi honetan Udalaren zor bizia 1.227.000 euro igo dela, 2001etik 2016ra joera beheranzkoa izan dela gehituta

Jokin Bereziartua BERGARA

Agintaldia bukatzearen dagoela aprobeztatu du EH Bilduk Udalaren azken lau urteetako jarduna baloratzeko: "Garai batean berrikuntzaren eta aldaketaren Bergara izan zena immobilismoaren Bergara bihurtu da. Azken urteetan herria gelditu egin da". Adierazi dute aurretik martxan zeuden proiektu batzuekin aurrera jarraitu dutela, eta horien artean kokatzen dituzte Seminararioaren irekiera, bidegorri sare zabaltzea eta Bergarren Arreta Zerbitzua martxan jartzea. Hala ere, salatu dute beste ekimen asko bertan behera utzi dituztela; horien artean daude, besteak beste, UNED-Arrizuriaga permuta, San Joxepen ortuak egitea, frontoian estalitako ziburuak egitea, alokairu sozialeko programa eta turismoa indartzeko neurriak.

Fokua, hiru proiektutan bereziki Horrez gain, EH Bilduk faltan botatu ditu bergararren ongizatean sakontzeko ideiak: "Proposamen berri gutxi, eta berritzaileak ia bat ere ez. Eta batzuetan kudeaketa kezkarria, Udalaren egoera ekonomikoa asko baldintzatu lezakeena, bergararren zorra 2001etik lehen aldiz nabarmen handituta". EH Bilduk emandako datuen arabera, 2016tik gaur egunera 1.227.000 euro igo da Udalaren zor bizia.

Bestalde, Gobernuaren hiru proiektutan jarri du EH Bilduk fokua, bereziki. Batetik, Boluko frontoia: "Kudeaketa txarraren adibide da. Hasierako aurrekontua hirukoiztu da eta emaitza izan zitekeena baino kaskarragoa da: lurra berri gabe, atzeko aldea itxi gabe...". Bigarrenik, seminario azpiko parkingaren kudeaketa ere kritikatu dute: "Obra hasi aurretik aurrekontua bikoiztu egin da, 2.800.000 eurokoa du dagoeneko. Ideia interesgarria zirudien herriko aparka-



EH Bilduren udal taldea, San Martin plazan, eguzten iluntzean. TXOMIN MADINA

LAN-SAIO IREKIA EGINGO DUTE BIHAR MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN (09:30), PROGRAMA OSATZEKO

leku arazoari erantzuteko, baina argi dago EAJk bi aldiz aztertu gabe egin zuela publiko proiektua, eta ondorengo gaitzespenak bergararrok ordainduko ditugu. Hori gutxi balitz, EAJk ez du argitu ordainpekoa izatea defendatzen duen edo ez". Hirugarrenik, EH Bilduk dio Espoioia eta Arrizuriaga inguruan ez dela ezer egin: "Ez da hitza emandako ezer gauzatu. Eta EAJk iragarri zituen proiektuak; ziburuak estaltzea, babes sozialeko etxebizitzak ezartzea, kiosko berri bat egitea, ardatz kulturala osatzea Arrizuriagarekin batera...".

Harremanak ere jomugan

Gobernuko kideek herritarrekin izan duten jarrera ere ez dute begi onez ikusi: "Herritarren eskaera askori erantzun ere ez zaio egin eta proiektuen inguruko parte hartze saioetan ia guz-

tiz zehaztutako proiektuen gainean iritzia ematera mugatu da herritarren parte hartzea". Gainera, diotenez, Gobernuak ez du jarrera egokia izan oposizioarekin: "Gure lana oztopatu dute informazio asko ukatuz eta ekarpenekiko ezkortasun osoa azalduz. Sistematikoki baztertu dira EH Bilduren proposamenak; batzuetan, aurrekontuen eta ordenantza fiskalen kasuan, adibidez, Gobernuak ere herriarentzat onak zirela aitortzen zituenak ez dira onartuak izan, EAJren eta PSE-EEren alderdikeriagatik".

Hala, "agintaldi txarra" izan da, EH Bilduren ustez: "Nola gobernatu nahiko ez genukeen ikasteko balio izan digu; Bergarak ezin du bide horretan jarraitu. Hurrengo agintaldian orain arte proposatu eta Gobernuak ukatu digun plan estrategikoa garatuko dugu. Bergarren artean etorkizuneko Bergara definituko dugu".

Lan-saio irekia bihar, 09:30ean

Herritarren proposamenak jaso eta horiekin programa osatzeko asmoz, lan-saio irekia egingo dute bihar, hilak 23, Miguel Altuna Institutuan (09:30).



Sasieta eta Ahal Dugu-Podemoseko zenbait kide plazan, martitzenean. J. BEREZIARTUA

Ahal Dugu-Podemos, lehen aldiz udal hauteskundeetarako gertu

Jose Maria Sasieta da alkategaia: "Ahal-Dugu Podemos moduan joanda, bi edo hiru zinegotzi lortzea espero dugu"

J.B. BERGARA

Martitzenean aurkeztu zuen Bergarako Ahal Dugu-Podemosek udal hauteskunde batzuetara lehenengoz aurkeztu duen hautagaitza. Jose Maria Sasieta 54 urteko bergararra da alkategaia eta, diotenez, orain ez dago akordiorik irabazirekin edo beste talderen batekin aurkezteko. "Gure aurreikuspena da bi edo hiru zinegotzi lortzea, Ahal Dugu-Podemosek moduan aurkeztuta [...]. Orain ez dugu akordiorik eta gure kasa aurkeztuko gara; baliteke hauteskundeetara bitartean akordioaren batera heltzea, baina, gaur-gaurkoz, ez dago akordiorik".

Sasieta nabarmendu du "herritarrentzat diseinatutako" programa osatu dutela: "Herritarrendako programa batekin gatzoz, eta ez hormigoiaz eta kontratazio publikoaz bizi diren enpresei begirako programa ba-

tekin". Hala ere, Sasieta dio programa zabalik dagoela oraindik: "Gonbidatzen zaituztegu zirkulura hurbildu eta ideiak ematera. Aurrez landutako programa bat dugu, baina programa hori osatzen lagunduko diguten ideia berriei zabalik gaude. Bergarakoak gara eta bertako arazoak eta beharrak ezagutzen ditugu, baina ziur zerbaitek ihes egiten digula. Herritar guztien iritziak ongi gertatzen izango dira gure programa osatu dezagun".

"Neurri zehatzak" programan

Aurkezpenean azaldu zuten, askotariko "neurri zehatzak" dituzte; betiere, bergararren bizi kalitatea hobetzea helburu: "Proposamen inklusiboak, ekologikak, feministak eta sozialak egingo ditugu. Horrekin batera, ahaztuta dauden auzoak eta merkataritza txikia defendatuko ditugu".

Euskal emakumeen memoria hizpide, Iraitz Agirrekin

Goiena komunitatea

Jardun elkarte / BERGARA

Martxoaren 27an Iraitz Agirre Aranguren antropologo eta ikeritzaile feministaren hitzaldia izango dugu Irizar jauregian, 19:00etan. *Euskal emakumeen memoriaz. Bidaia bat XVI. mendean barrena* du izenburu eta Euskal Herrian ere eragin zuzena izan zuten XVI. mendean

emandako hainbat gertaera izango ditu hizpide Agirrekin: Abya Yalako konkista, baleazaleen jarduerak ekarritako aberastasuna, kaperatasunaren garapena, euskal baserrien sorrera, Atlantiar itsasaldeko eskualdeen ustiapen industrial, ondarearen transmisioaren inguruko antolaketa... Eraldaketa horiek eragin handia izan zuten herritarrengan, eta are, emakumeengan. Hitzaldi interesgarria izango da; beraz, ez galdu aukera bikain hau!

Hardcorearen arnasmune izaten jarraitzeko prest

Tapoi Fest-en zortzigarren edizioan, gaur eta bihar, zortzi talde igoko dira kartzela zaharreko oholtzara, hardcorearen eta punkaren eszena indartzea helburu duen jaialdian; kontzertuen aurretik afari beganoaz gozatu ahal izango da bi euroren truke

Jokin Bereziartua BERGARA

Heldu da kartzela zaharreko urteroko mugarrietako bat den Tapoi Fest jaialdia. Gaur eta bihar, jaialdiaren zortzigarren edizioa ospatuko dute, Txapa Irratiko *Jar itzazu tapoiak, mesedez!* irratsaioko eta kartzela zaharreko arduradunen eskutik. Urtero moduan, musika gogorra, azkarra eta underground kultura izango dira protagonista: "Aurten ere hardcorearen eta punkaren eszena lokala indartu nahi izan dugu, eta, Euskal Herriko taldeez gain, Bartzelonako eta Madrilgo ordezkariak ere izango dugu", aurreratu dute antolatzaileek. Gaur, egubakoitza, 22:00etan hasiko dira kontzertuak eta sarrera bost euro ordaindu beharko da: Fly Shit, Managaitz, Optika eta Arrotzak taldeak igoko dira agertokira.

Bi egun, zortzi talde eta bosna euro Fly Shit taldeak ez du hutsik egingo eta, gainera, Managaitz taldearekin batera grabatutako lan berria aurkeztuko dute. Bergarako eskola zaharreko taldea da Fly Shit, 1995tik etengabe dabilena. Estudioko lau lan eta zuzeneko disko bat dituzte. Managaitz taldeak ere joko du gaur: Zarauzko boskote honek hardcore melodikoa eta post-punka eskainiko ditu. Bigarren lana aurkeztera datoz, Fly Shit bergararekin batera argitaratua; kideak Ernía, Metralleta, Mor More eta Diskoira taldeetan ibilitakoak dira. Hirugarren talde bat Optika izango da, doinu indartsuak lantzean dituen talde gipuzkoarra. Eta gaurko jaialdiko laugarren taldea Arrotzak izeneko post-punk talde gipuzkoarra izango da; bigarren diskoa kaleratu zuten iaz eta oso harrera ona izan zuen.

Bihar, zapatua, beste lau talde igoko dira kartzela zaharreko oholtzara, 22:00etan hasita, eta bost euroren truke. Worth It da



Take Warning taldearen zuzenekoak, iazko Tapoi Fest jaialdiaren barruan. IMANOL SORIANO

ERREFERENTE DIREN TALDEAK EKARRITA, HARDCOREARENTZAT ARNASGUNE DA TAPOI FEST JAIALDIA

horietako bat; 2015ean Berrizen sortutako taldea, hardcore eszenan izen nabarmena lortu dute eta bi disko atera dituzte. Beste talde bat Bartzelonatik etorriko den Tropical Ice Land izango da; atera berri duten laugarren diskoa eskuan dutela, screamo, crust eta post-hardcore doinuak eskainiko dituzte. Madrilatik etorriko da Aceswords, hiru musikari bateranoz osatutako taldea, eta laugarren eta azkena Zarauzko Hagendas izango da; thrash, hardcore eta rock gogorra egiten dute. Antolatzaileek jakinarazi dute kontzertuen aurretik afari begano batez gozatzeko aukera egongo dela bi euroren truke.

Kolonbiako errealtateaz, etzi Tapoi Fest jaialdiaz gain, beste hainbat ekintza izango dira asteburuan kartzela zaharrean.

Atzo, eguena, Jokin Urainen *Amaren etxea. Euskal preso politikoaren senideen historia* bat liburuararen aurkezpena izan zuten, eta asteburua hitzaldi batekin borobilduko dute. Hain zuzen, Kolonbian sinatutako bake akordioaren ondoren etorritako errealtatearen gaineko hitzaldia izango da, 18:00etan, Angiolillo liburutegiak eta Emigrad@s Sin Fronteras erakundeak antolatuta. *Bizitza defendatzen dituzten ahotsak eta bakearen eraikuntza Kolonbian* du izenburu saioak.


Kolonbiako testuinguruan giza-eskubideak defendatzen dituzten "lan neketsua" nabarmendu gura dute, eta, horretarako, bi kolonbiar gonbidatu dituzte: batetik, Fundacion Unidos por la Igualdad y Paz Colombiana erakundeko Danilo Huertas Roldan etorriko da eta, bestetik, Unidad Indigena del Pueblo Awa erakundeko Carlos Alfredo Nastacuas Taicus. Bortizkeria sexuala, ume eta gazteen erreklutatzeko behartua, meataritza ilegala, laborantzaren legez kontrako erabilerak eta antzinako lurraldeetan egindako petrolio gordinaren isurketak izango dituzte berba izango dituzte berba hitzaldian zehar, besteak beste.

Organoa eraberritzeko kopurutik urrun dago elkartearen saldoa

Aurrekontua 450.000 eurokoa eta saldoa 41.223 eurokoa izanik, kezka azaldu dute, konpontzeko dirurik ez dutelako

J.B. BERGARA

Stoltz Freres Organoaren Lagunen Elkartek 2013ko urrian abiatutako ibilbidearen balantzea egin du. 130 urte bete berri dituen organoa balioan jartzeko eta hura konpondu ahal izateko dirua batzeko sortu zen elkartea eta, diotenez, 41.223 euro dituzte gaur egun. Organoa erabat eraberritzeko aurrekontua, baina, 450.000 euro da: "Konponketa-rekin hasteko ordua heldu da, baina nola ordaindu? Hori da geratzen zaigun kezka", diote. Orain arte jaso duten laguntza eskertu dute: "Laguntzaileen zerrenda luzea bada ere, herrikoen erantzuna sekulakoa izan da eta azpimarratzekoa da kanpotik -eta batzuetan, urrunetik- musu truk etorri zaizkigun punta-puntako organo-jole eta bestelako musikariak; herriari prestigioa eman diote".



Stoltz Freres organoa. GOIENA

13.833 euro premiazko gastuetan Gastuen artean daude organoaren mantentze eta premiazko konponketengatik organogile bati emandako 11.980 euro eta inprimategien zein bestelakoetan gastatutako 1.853 euro. Gaur egungo saldoa 41.223 euro da.

Bergara Oinez barruko bigarren txangoa, martxoaren 28an

Herritar osasuntsuagoak izatea, herriko mugikortasuna hobetzen joatea eta elkartearen ikusgaitasuna areagotzea helburu duen Bergara Oinez ekimena hilaren 21ean abiatu zen San Joxepe elkarteok antolatutako ibilaldiarekin. 65 urtetik gorako 40 bat lagun elkartu ziren lehen saioan, eta antolatzaileak pozik ziren. Bigarren ibilaldia hurren-

go eguenean, hilak 28, egingo dute eta bularreko minbiziaren aurkako borrokan diharduen Kattalin elkarteak izango da txango hori antolatzearen ardura-duna. Irteera hori, hurrengo guztiak bezala, Agorrosinen hasi (10:30) eta bukatuko da (11:30). Ondoren, "hamarretako osasuntsua" egingo dute.

Aurrez izena ematea komeni da: Agorrosin Kirol Gunean (943 77 70 95), San Joxepe elkartearen (943 76 30 09) eta www.bergara-kirola.eus webgunean.

Herriko ikasleak ipuin kontalari lanetan etzi, Seminarixoa (18:00)

Hainbat urtetan zehar Koldo Eleizalde lehiaketan sarituak izan diren ipuinak izango dira protagonista domekan Seminarixoa aretoan (18:00). Izan ere, herriko bertako bederatzi ipuin kontalarik hartuko dute parte saioan eta ikasle bakoitzak ipuin bat kontatuko du. Udaleko Euskara batzordeak antolatu du eta sarrera doakoa izango da.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

Korrika hartzeko egitaraua prest dute

Bezperan eta egunean ez ezik, hemendik eta apirilaren 13ra arte egingo diren ekitaldiak antolatu ditu Oñatiko Korrika batzordeak. Rafa Rueda, Huntza, herri bazkaria, materialaren salmenta eta Korrika Txikia dira horietako batzuk

Oihana Elortza OÑATI

Urtarrilean eratu zen Oñatiko Korrika batzordea eta makina bat bilera egin dute harrezkero. Eta bileretan adostutakoa antolatzen eta prestatzen egin dute lan ordutik hona. "Oso ondo egiten ari da lana taldea. Herriko hainbat eragiletako ordezkariak daude, batetik, baina baita norbanako herritarrek ere", adierazi du Debagoieneko Korrikako koordinatzaileak, Josu Zubia oñatiarrak.

Bezpera ere indartsua

Batzorde horretako eragileetako batzuk dira, adibidez, herriko hiru ikastetxeak. Bakoitzak bere moduan egingo dio jarraipena Korrikari, baina elkarren artean antolatuko dute, beste behin, Korrika Txikia. Data ere adostu dute dagoeneko: izango da apirilaren 12an, egubakoitza, arratsaldean. "Zapatuan helduko da Korrika handia Oñatira eta bezperan, egubakoitzean, egingo dute txikia. Arratsaldean izango da, eskola orduan, eta herri barruko ibilbide bat finkatu eta egingo dute gaztetxoek", zehaztu du Zubiak.

Herriko erdigunea apaintzeko lanak ere egingo dituzte egun horretan, eta, bezpera eguna bezain indartsua izateko asmoz,

Korrika Txikiak gain zuzeneko musika emanaldia ere antolatu dute egun horretarako. Huntza taldeak joko du apirilaren 12an, Foruen plazan, 20:00etan.

Herri bazkaria

Hurrengo egunean, apirilaren 13an, iritsiko da Korrika Oñatira; Udanatik sartuko da, eguerdian. Eta egun horretarako ere ari dira gauzak antolatzen batzordeko kideak, "ongi torri beroa" egiteko. Horietan aipagarriena herri bazkaria da. Antixena gaztetxean izango da eta dagoeneko salgai daude txartelak. Arrano eta Ona tabernetan eros daitezke eta prezioak dira: zortzi euro ikasle eta langabeendako eta hamabi euro gainera koendako. Menu begetarianoa aukeratu ahal izango da.

Korrikak Oñati zeharkatzen duenean izango da herri bazkaria eta ordua ez dago zehaztuta. Aurretik kaleak girotuko dituzte eta Korrikari harrera "beroa" egiteko prestatuko da herria.

ZAPATU GOIZEAN MATERIALA EGONGO DA SALGAI PLAZAN; BAITA DOMEKAKO KONTZERTUAN ERE

Rafa Rueda domekan

Baina asteburu horren aurretik ere egongo dira ekitaldiak Oñatin. Asteburu honetan, esaterako, Rafa Rueda musikariak kontzertua egingo du Antixena gaztetxean. "Korrika kulturaren barruan antolatu dugun emanaldia izango da. Eguerdian hasiko da, 12:30ean", zehaztu du Zubiak. Sarrera bost euro izango da. Datorren asteburuan ere egongo dira ekitaldiak. Gaztetxean bertan, *11 baino* eta *Has gaitezen Gasteizen euskaraz bizitzen* dokumentalak eskainiko dituzte.

Apirilaren 6-7ko astebururako, berriz, Iparraldera joateko irteera antolatu dute gaztetxe kideek. Apirilaren 7an Maulen korrika egitea da proposamena eta ondoren Hokiko maskaradak ikustea. Gaztetxean bertan edo Arrano tabernetan eman behar du izena interesatuak.

Kilometroen salmenta

Kilometroen salmenta "oso ondo" doala adierazi du Zubiak: "Dagoeneko 20tik gora kilometro, ia 30, salduta daude eta oraindik badago interesa duen eragilerik. Asmoa izanez gero posta elektronikoz egin behar da eskaera mezua bidalita. Helbidea da: korrikadebagoiena@gmail.com".



Korrika Oñatin abiatu zenekoa

1980an egin zen lehendabiziko Korrika eta Oñatitik abiatu zen, unibertsitatearen aurretik. Herrian sekulako ikusmina piztu zela du gogoan Gotzon Osinagak; lehenengo kilometroa egin zuen berak Zipri Agirrerren ondoan. "Ederra izan zen. Foruen plaza jendez eta ibilgailuz beteta zegoen. Antena oso handiak zituzten autoek eta jendea hura dena zer ote zen galdezka ari zen. Askok orduan jakin zuten euskararen aldeko ekimena zela", dio Osinagak.

Gauz atera zen Korrika Oñatitik 1980ko azaroaren 29an. Bilbon amaitu zen, abenduaren 7an. Eurria ari zuen, ez zaparrada, baina bai bustitzeko adina. Ondo kalkulatu zuten dena, eta, halere, lehenengo kilometroan arazotxo bat sortu zen. Oñatiko udaletxetik abiatu zen zero kilometroa, eta erdibana egin zuten Jose Mari Satrustegik eta Eli Galdosek. Lehenak, hiru minutu beharrean, zortzi behar izan zituen hasierako 500 metroak egiteko, baina iritsi zen Galdosengana. "Txaketua parean Pikepeko txarangak hartu zuen lekukoa. Zipri Agirre zen txarangako batuta eramaten zuena orduan eta hark hartu zuen lekukoa. Bere besoari eusteko eskatu zidan eta horrela egin nik ere lehen kilometroa. Asko pozten naiz".

Oñatitik Bilborako bidea hartu zuen lehenengo Korrikak eta Osinagak gogoan du nola jendeak ez zuen ulertzen korrika joateko ekimen hori: "Baina gelditu barik joango dira? Gau erdian gelditu egingo da, ezta? Nola da ba kontu hau?. Halako galderak egiten zituzten herritarrek. Ezin zuten imajinatu, irudikatu, nola izan zitekeen gau eta egun korrika joate hori".

Xabier Peña omendu zuen lehen Korrikak eta *Zuk ere esan bai euskarari* izan zen leloa. Rikardo Arregik idatzi zuen mezua. Kantua Xabier Amurizak egin zuen. 1997ko Korrika, 10.a, Arantzazutik abiatu eta Bilbon bukatu zen hura ere. Luis Villasante omendu zuten. *Euskal Herria Korrika!* izan zen orduko leloa eta Gozategik egin zuen kantua. Joan Mari Torrealdairena izan zen mezua.

Autobusak egongo dira Altsasuko manifestaziorako

Domekan Altsasun 12:00etan egingo den manifestaziorako autobusak antolatu dituzte. 10:15ean izango da irteera Ibaratik eta 14:15ean itzulera Altsasutik. Arrano eta Ona tabernetan eman daiteke izena. *Hau ez da justizia* lelopean egingo dute manifestazioa. Altsasuko gazteek 858 egun daramatzate espertxean.

30 euroko sariak emango ditu Txandak udaberrian

Badator udaberrixa kanpaina abiarazi du Txanda elkarteak. Hain zuzen ere, martxoaren 30era bitartean, erosketak elkarteko dendetan egiten dituzten bezeroek saltoki berean trukatzeko 30 euroko erosketa txartel bat irabazi dezakete. Margarita loreen biniloak dituzten establezimenduetan banatzen dituzte txarteltoak.

Oihana Aldai elkarrizketatzen

Txantxiku Ikastolako ikasleak izan dira Goiena telebistako *Galdegazte* saioan. Oihana Aldai futbol atezaina gonbidatu dute eta hari egin dizkiote galderak.

Datorren astean, martxoaren 28an, emitituko duten *Galdegazte* saioan ikusi ahal izango dira gaztetxo oñatiarrak kazetari lanetan; 21:30ean eta 23:30ean izango dira emanaldiak.





Pake Leku erretiratuen elkartearen egoitza San Juan kalean. GOIENA

Aktibo izaten jarraitu gura dute erretiratuek

Gaur, egubakoitza, egingo dute urteko batzar orokorra Pake Leku erretiratu elkarte bazkideek, 17:30ean. 2018ko balorazioa egin eta 2019rako asmoak eztabaidatuko dituzte. Tartean dago herriko artistekin elkarlana sendotzea eta kuota mantentzea

Oihana Elortza OÑATI

Urteko ohiko batzar orokorra egingo dute gaur, egubakoitza, Pake Leku erretiratu elkarte bazkideek. 2019rako dituzten asmoak eztabaidatuko dituzte eta zuzendaritzaren proposamenetako bat izango da Gipuzkoako erretiratuen eta pentsiodunen elkartearen parte hartzea. "Aguijupens-en talde indartsu bat izatea da gura genuena, lurralde barruan erreferente izatea", zehaztu du egun zuzendaritzako kide den Beatriz Igartuak. Talde hori bailara mailako taldea izatea gurako lukete Oñatiko erretiratuek. "Debagoienean badago talde eratu bat, 7.820 kide gaude, eta hori handitzea eta indartzea da gure helburuetako bat, geure aldarrikapenak egiteko eta egitaraua osatzeko geure beharrak eta eskubideak lortzeko", gaineratu du.

Bidaia eta ikastaroak

Herriko talde eta artistekin lan egitea ere bada zuzendaritzaren

asmoa. "Gurera gonbidatu gura ditugu eurek egiten dutena ikusteko eta alde bien arteko elkarlana sendotzeko. Adibidez, Domeketarrok taldearekin lotuta ditugu ekitaldiak. Pake Leku ezagutzera ematea da dugun helburuetako bat", adierazi du Beatriz Igartuak.

Bidaia egiten jarraitzea eta ikastaro gehiago antolatzea dira dituzten beste asmoetako bi. "Joan den urtean, esaterako, egun-pasa joateko lau bidaia antolatu genituen eta iraupen luzeagoko beste hiru. Oso erantzun ona izaten dute bidaiek. Ikastaroetan hamar tailer ezberdin antolatu genituen iaz eta 117 pertsonak eman zuten izena. Gure asmoa da bazkideei galde-

GAUR EGUN, 1.345 BAZKIDE DITU PAKE LEKU ELKARTEAK ETA DENAK DAUDE BATZARRERA DEITUTA

tzea beste zein ikastaro egiteko interesa duten, eta horixe antolatzea, posible bada", dio Igartuak. Ikusi Makusi antzerki taldearen antzezlanak eta Aloña abesbatzaren kontzertuak ere kontuan izatekoak direla gaineratu du. Baita hitzaldiak ere.

Kuota mantendu

Diru kontuez ere jardungo dute gaurko bileran. 30.000 euroren bueltakoa izaten da elkartearen bolumena. "Iaz mantenuan hainbat gastu izan genituen, eta eraikineko oztoko arkitektonikoak kentzea ere bada 2019rako dugu erronketako bat. Udalak urtero ematen du dirulaguntza bat, eta asko eskertzen diogu. Dugun beste sarrera egonkorra kuota da. 60 urtetik gorako edonori izan daiteke Pake Leku bazkide eta 12 euroko kuota dute guztiek, 85 urtetik gorakoek izan ezik. Horiek ez dute ordaindu beharrik, baina botorik ere ez. Kuota mantentzea proposatuko dugu", dio Igartuak.



NIRE USTEZ

JOSUNE ODRIOZOLA

Garailerik indartsuena

Egun triste samarrak datozen honetan, zaila da ditugun on guztien azterketa egitea. Tartetxo bat hartu, eta onura eta gaitzak balantzan jarri beharrean, gaitzak pisu gehiagorekin beherantz egiten duela besterik ez zaigu burutik pasatzen.

Argi dago indartsuena ez dela indar fisiko gehien duena. Ahulena, une oro negarrez dabilena ere ez. Balantza hori aztertu, positibo ematen duela ikusi, eta ostean kalteei aurre egiteko gai den oro da garaile bakarra bizitzan.

Inoiz ez dakigu gure barruko indarra norainokoa izan daitekeen, bizitzak frogan jartzen gaituen unera arte. Eta momentu hori heltzean, ezin gara joko honen galtzaile izan. Negarrak ere garrantzitsuak dira. Indarra hartzen baitugu barruko amorruak uxatzean.

Ama, bizitzak balantza hori aztertzeko aukera eman zizun behin, eta zuk, froga bikaineko batekin gaingitu zenuen. Oraingo honetan ez zara gutxiago izango, eta ez diozu bizitzari joko hau irabazten utziko, garaile izena zurea delako.

Aitziber Fernandez da PSE-EE alderdiko alkategaia

Aitziber Fernandez (Oñati, 1975) da Alderdi Sozialistaren hautagaia Oñatiko alkate izateko. "Erronka da. Urteetan ez da alkategai sozialista oñatiarrik egon eta herritarrendako ere aukera ona da", adierazi du Fernandezek. Artearen Historian da lizentziaduna Aitziber Fernandez eta egun Gasteizko Michelin enpresan egiten du lan.



Aitziber Fernandez. A.F.

GORA ETA BEHERA



Oinezkoen pasabidean aparkatu

San Lorentzoko auzoko bizilagun bati ez zaio batere zentzuzkoa iruditu kamioia espaloi gainean aparkatzea: "Justu ikusmen zailtasunak dituztenen pasabidean, eta ez behin bakarrik".



Dwingi Dwingi taldeko kideak, Oñatiko Film Laburren Rallyan, saria eskuetan dutela. IMANOL SORIANO

'Odolusteak', Dwingi Dwingi-ren film laburra

'Crowdfunding' kanpainaren hasierako helburua astebetean bete dute Dwingi Dwingi taldekoek. Bertan bildutako dirua 'Odolusteak' film laburraren gastuei aurre egiteko bideratuko dute. Irailean aurkeztuko dute film laburra, Oñatin

Amaia Igartua OÑATI

Film Laburren Rallyan esperientzia handikoak dira Dwingi Dwingi taldea osatzen dutenak. Aipatzekoak dira Oñatiko Film Laburren Rallyan eskuratutako ikusleen hiru sari, 2015eko bigarren saria eta azken edizioiko lehen saria.

Aurten, Oñatiko jendearen parte hartzearekin eta elkarlanarekin sortu, ekoiztu eta grabatuko den hogeita minutu inguru iraungo duen film laburra egitea erabaki dute.

"Oñatiko Film Laburren Rallyan, hiru minutuko film laburra egiten dugu hamar ordutan urtero. Baina beti izan dugu buruan film labur luzeago bat egitea. Aurreko bi urteetan *2057 Odisea bat kanposantuan* eta *Lope* filmek Oñatin izandako harrera positiboa ikusita, eta aurreko film rally edizioetan, gainera, hainbat sari irabazi ondoren, aurten denbora hartu dugu eta animatu egin gara", azaldu du Dwingi Dwingi taldeko Mikel Maiztegik.

'Crowdfunding' kanpaina

Bestetik, *Odolusteak* film laburrak izango dituen gastuei aurre egiteko, *crowdfunding* kanpaina jarri dute abian; *Verkami* atarian, hain zuzen.

"*Crowdfunding* kanpaina oso ondo joan da. Oso azkar lortu genuen gure helburua, eta, denbora luze geldu egon den arren, asteburuan sare sozialetan eta Whatsappen kanpaina txiki bat egin ostean berriz ere lortu dugu igoera bat", adierazi du Maiztegik.

"Jendeari eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen. Hasieran ezarritako helburua gainditu dugun arren, baliabide gehiago izatera bideratuko dugu bildutako dirua; alokatu-

HERRITARREN PARTE HARTZEAREKIN EGINDAKO FILM LABURRA IZANGO DA

tako materiala, atrezzoak, dietak, soinu teknikaria, eta abar", gaineratu du.

'Odolusteak'

"Film laburraren istorioa pentsatuta genuen aurretik, eta, gutxi gorabehera, idatzita dago. Orain, gidoi teknikoagoa egiten ari gara, baina ezin dugu jakinarazi zer izango den *Odolusteak*", azpimarratu du Mikel Maiztegik.

"Proiektu honetan herriko jendeak parte hartzea nahi dugu. Herritarren parte hartzearekin egindako film laburra izango da *Odolusteak*", gaineratu du.

Apiril amaierarako gidioa amaituta izatea dute helburu eta maiatzetik ekainera bitartean egingo dituzte film laburraren grabaketak.

Hain zuzen ere, irailean, Oñatiko jaien bueltan, herriko antzoki batean aurkeztuko dute *Odolusteak* film laburra, baina oraindik ez dute data eta toki zehatzik.

VIII. Bertso Txapelketako lehen finalaurrekoa jokatu da bihar

Hiru saio izango ditu txapelketak; bi finalaurreko eta finala; lehenengo finalaurrekoa bihar jokatu da

A.1 OÑATI

VIII. Txinparta Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa jokatu da bihar, zapatua, 17:30ean, Antixena gaztetxean.

Biharko finalaurrekoan, Ander Lizarralde *Pertzi*, Urko Egaña, Gorka Larrea *Txapel*, Maider Arregi, Joseba Lasagabaster *Baltza*, Beñat Alberdi, Bittor Zubiagirre eta Xabier Pascual *Pascu* arituko dira.

Bigarren finalaurrekoa, berriz, martxoaren 30ean, zapatua, jokatu da, Eltzia topagunean, 17:30ean. Eta finala Oñatiko gaztelekuan jokatu da, apirilaren 13an, 18:00etan.

Herritarrek ere gaiak proposatu ahal izango dituzte aurtengo edizioan. Horretarako, biharko aurrera, apirileko lehen asteburura bitartean, herriko hainbat tabernatan gai-kutxak egongo dira herritarren eskura,

gai proposamenak bertan aurkeztu ahal izateko. Finalera begira, gai-jartzaile taldeak proposamen guztiak bildu, landu eta egokitu egingo ditu.

Arteak Ireki eta Korrika

Bertsolari Txapelketako finalaurrekoak bat egingo du bihar, zapatua, Euskal Herriko hainbat herritan -Oñati, tartean- egingo duten Arteak Ireki ekimenarekin.

Bertsolari Txapelketako finala, berriz, Korrika herritik igarotzen den egunean izanda, apirilaren 13an, txapelketak Korrikako egitarauarekin bat egingo du.

Errepidea itxita

Bailaratik gerturatzen diren tzentz, Elorregitik Oñatira itxita egongo da errepidea 16:35etik 18:20ra bitartean.

Beratu Jaialdiak bigarren edizioa hartuko du

Hurrengo asteburuan egingo dute Beratu jaialdia. Eta, asteburuko agenda ekintzaz gainezka datorren arren, bigarren edizioak asteazkenean irekiko ditu ateak.

Hain zuzen ere, asteazkenean, hilaren 27an, *Lou. Dantzan jota ke, hankak lehertu nahian* dokumentalaren emanaldia egingo dute, arratsaldeko zaz-

pietan, kultura etxean. Sarrera 3 euro da.

80ko hamarkadan emakumeek agertokietan hartzen zuten egin-kizunari buruzkoa da, euskaraz abesteko hautua hartu zuten eta jarrerak eta estetikak zuen garrantziaz, eta Lou Olangua abeslaria da hizpide.

Hurrengo zapatuan, hilak 30, Elena Setien, Vulk eta Atom Rhumba arituko dira Oñatiko gaztelekuan, 21:30ean. Sarreraren aurre-salmenta *Onati.eus* atarian da, 10,50 eurotan.

Gaur gauean, hainbat kontzertu Pakon eta Antixenean

Gaur, gaueko hamarretan hasita, Pako tabernak eta Antixena gaztetxeak kontzertuak hartuko dituzte.

Pako tabernan, Sindy Berbenas taldea arituko da, eta, horren ondoren, DJ Motherfucker izango da protagonista.

Antixena gaztetxean, berriz, Kepa Zelaia oñatiarrak eskainiko du kontzertua.

Mekalki Aloña Mendik etxean jokatu du biharko partidua

Hogeita batgarren jardunaldia jokatu dute bihar Aitor Ugarteren mutilek, 18:00etan, Zubikoa kiroldegian, eta DKS izango dute aurkari.

Aurreko jardunaldian Cafes Aitona Askatuak taldearen aurka 64-77 irabazi ostean, sailkapeneko bigarren postuari eusten diote oñatiarrek, puntutan lehenengoarekin berdinduta.



HEGOTIK IPARRERANTZ

GOIENA TELEBISTA, 'AITOR SARASUARI OMENALDI EKITALDIA'

MARTXOAREN 23AN, ZAPATUAN, 18:00ETAN ETA 22:15EAN.

MARTXOAREN 24AN, DOMEKAN, 13:00ETAN ETA 20:00ETAN.

KANTALDIAK, ANTZERKIA, BERTSOAK ETA DANTZAK

goiena

Zu hemen zaude.

"Penaz, baina ezin izango dut txapela defendatu"

BEÑAT ARNAIZ TRIATLETA

DUATLOIA 2017ko irabazleak gorritz markatuta zeukan biharko hitzordua, baina, azken orduan, kale egingo du: "Penaz nago, Oñatikoa nire lasterketa txukunena da eta"

Xabier Urzelai ARRASATE

Bihar, 16:00etan hasita, Oñatiko duatloia 27. aldia jokatu dute. Distantzia motzeko Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketa izango da, eta puntako atletak izango dira irteera puntuan. 2017an lasterketa irabazi zuen Beñat Arnaiz zen faboritoetako bat, baina aretxabaletarra ez da irteera puntuan egongo. Duela hilabete Lizarran egindako lasterketatik errekuiperatu ezinda dabil Arnaiz.

Zer moduz zaude?

Penatuta, zapatuan ez naizelako niretako horren berezia den lasterketako irteera puntuan egongo. Egutegian gorritz neukan markatuta Oñatiko duatloia, baina ez nago ondo, ez nago lasterketa bat egiteko moduan.

Zer duzu, bada?

Uste dut mononukleosiak jota nagoela ostera ere. Analisi batzuen emaitzen zain nago, baina sintoma hauek ondo ezagutzen ditut, kirol apur bat egin eta lur jota geratzen naiz.

Duela lauzpabost urte arazo bera izan zenuen.

Bai; ez dakit ostera ere makal harrapatu nauen edo... Duela hilabete Lizarran egindako lasterketaren ondoren [irabazi egin zuen] hasi nintzen konturatzen ez nengoela ondo; lasterketaren



Arnaiz, 2016an. Orduan, podiumera igo zen, eta 2017an irabazi egin zuen. GOIENA

"OÑATIKOA MIMOZ PRESTATZEN DUTEN LASTERKETA DA; NIRETAKO, ERREFERENTZIAZKOA"

ostean, bazirudien kamioi bat gainera pasa zitaidala. Orduan, ezin izan naiz ondo entrenatu, nekatuta nabil. Lasai errekuiperatzeko asmoa dut, atleta baten egunerokotasunetik apur bat aldentuta.

Zer du Oñatiko lasterketak?

Oñatin egiten duten guztia berezia da, San Silvestre probatik hasita, eta duatloia mimoso prestatzen dute. Niretako, erreferentziatzeko lasterketa da.

Parte-hartze polita izango du ostera ere aurtengo probak.

Maila oso ona duten atleta gazteak nabarmenduko nituzke; adi horiekin. Ruben Ruzafa egongo dela irakurri dut, hainbatetan kros triatloian munduko txapel-dun izan dena, badakit Araba-Trialdetik ere atleta onak datoze-la... Polita izango da.



Aretxabaletakoak Beti Gazteren kontrako partiduan; 2-2 egin zuten. IMANOL SORIANO

Jaitsierako mamuak, neurri handian, uxatu ditu UDAK

FUTBOLA Mondrak Hondarribian jokatu du eta Bergarak Zarautzen; Aretxabaletak, berriz, etxean

X.U. BERGARA

Ohorezko Erregional Mailan asteburuan etxean jokatu duen ordezkarri bakarra da Aretxabaleta (33). Bergarak (38) Zarautzen jokatu du eta Mondrak (39) Hondarribian, eta bi talde horiek egin dituzte, neurri handian, kategoriari eusteko etxerako lanak –garaipen bat behar dute–, nahiz eta liga amaierara arte sailkapenaren erdiko postuetako purgatorioan ibiltzera kondenatuta dauden.

Aretxabaletaren egoera, baina, duela gutxira arte, bestelakoa zen. Atzealdean murgilduta, eta

berdegunean egiten zuten esfortzuaren ordainetan saririk jaso barik, Santanoren taldeak erreakzionatzeko beharra zeukan.

Otsailaren 17a ezker, ondo

UDAKoak otsailaren 17an hasi ziren erreakzionatzen, Hernaniren zelaian hiru puntuak batuz. Ondoren etorri dira Mutrikuren, Oiartzunen eta Deusto Donostiaren kontrako garaipenak, eta Gal-en baino ez dute galdu, Real Unionen kontra. Oraindik beste esprint bat geratzen zaie. Etzi, Amaikak Bat izango da bisitari Ibarran.

Mikel Linazisoro Espainiako Kopan agintzen dabil

ESKALADA Bergarakoa ez da hirugarren jardunaldian egongo asteburu berean Europakoan egongo delako

X.U. BERGARA

Espainiako Eskalada Kopako bigarren proba jokatu zuten joan den asteburuan, eta Euskal Selektzioako kide Mikel Linazisorok (Bergara, 2000) ez zuen kontrariorik izan. Txapela jantzeko faboritoa zen gizonezkoen mailan, eta ez zuen hutsik egin.

Podiumean da jada

Espainiako Kopa amaitzeko jardunaldi baten faltan, bertako podiuma ziurtatuta utzi zuen Linazisorok joan den zapatuan. Bergarakoa gaixorik izan zen

asteburu osoan Fuenlabradako (Madril) Awesome aretoan egin zuten proban, baina, behin katuoinak jantzi ostean, inor ez zen Bergarakoaren maila berean egon.

Ez da hirugarren proban egongo

Espainiako Kopako hirugarren proba maiatzaren 11n jokatu dute, Plasencian (Extremadura). Baina Linazisoro ez da hitzordu horretan egongo, asteburu berean eskalatazailerik bergararra gazte mailako Europako Kopan izango da eta.

Gaztetxoaren duatloia, goizean

Goizean gaztetxoaren esku egongo da motorrak berotzen hastea. Hala, benjaminen, alebilen eta infantilen lasterketak egingo dituzte, 10:30ean hasita.

Lehenengo, benjaminen txanda izango da, 10:50ean abiatuko dira alebinak eta 11:30ean kadeteak; probako distantziak adinaren arabera izango dira.



Kategoria txikietan lasterketak oso neurtuta egongo dira. GOIENA



Emakume Master Cup txapelketan esku hartu duen pilotari kuadrilla; tartean, Uxue Osés eta Madalen Etxegarai irabazleak. I. S.

Emakumezko pilotarien harrobia goraka doa

PILOTA Domekan Zumarragan jokaturako Emakume Master Cup-eko finalean, Aloña Mendiko Pilota Saila saritu zuten, Oñati txapelketara pilotari gehien eraman dituen herria izan delako. "Duela bi urte eta erdi hasitako lanaren emaitza da", dio Josu Osak

Xabier Urzelai OÑATI

June Ugarte, Oihane Aizpurua, Eider Plazaola, Nerea Plazaola, Karmele Egaña, Eider Quintas, Jaione Uranga, Irati Usandizaga, Nerea Uriarte, Irati Blazquez eta txapelketa irabazi duten Maddalen Etxegarai eta Uxue Osés. Horiek dira domekan amaitu zuten Emakume Master Cup-

en esku hartu duten pilotari oñatiarrak. Hamabi izan dira, guztira: "Gure pilotarien txapelak besteko albiste pozgarria da errekonozimendu hori; alegia, ikustea duela bi urte eta erdi hasitako lanak ze emaitza eman duen", dio Aloña Mendiko pilota saileko ordezkari Josu Osak. Oñatikoak botilero lanak egin

zuten Zumarragako finalean, eta bertatik bertara bizi izan du Oñatin egongo den emakumezko pilotarien gorakada.

Herri mailako txapelketa batetik

Herri mailan antolatutako pilota txapelketa bat izan zen garrantiatik sua piztu zuena: "Txapelketa hartan hamazazpi ema-



Etxegarai, pilota astintzeko unean, Osés eta kontrarioak begira dituela. I. S.

Txapelak etxera ekarri dituzte

Emakume Master Cup Txapelketako txapelak –promozio mailan– etxera ekarri zituzten Madalen Etxegarai eta Uxue Osések. Aldapa gora jarri zitzaient partidua (2-8), baina euren maila erakusten hasi zirenean buelta eman zioten partiduari. Kronika, *Goiena.eus* atarian.

kumezko eman zuten izena, kopuru polita zen. Hortik abiatuta entrenamenduak antolatzen hasi ginen, eta taldea gorpuztu zenean, urtebete geroago, txapelketetan jokatzeko hastea erabaki genuen. Horregatik, Zumarragan jasotako errekonozimenduhori etorkizunerako oinarria izan behar da, eta ez Oñatin bakarrik. Ikusten ari gara poliki-poliki geroago eta emakumezko gehiago dabilzala pilotarekiko interesa erakusten, edo garai batean izan zutena berreskuratzen".

Hurrengo, Antzuolan

Hala, Oñatiko pilotariek Antzuolan izango dute hurrengo erronka: "Maiatzean Antzuolan jokaturako txapelketan izena eman dute hainbatek, ea txapelketa horrek harrera polita duen pilotazaleen artean".

"OÑATIN BAKARRIK EZ, EMAKUMEZKOAK LEKU ASKOTAN HASI DIRA PILOTAN JOKATZEN"

AUTOMOBILISMOA Castro eta Urkiola irabazle Goierriko proban

Goierriko rallysprintaren seigarren edizioa egin zuten joan den asteburuan, eta Aingeru Castro eta Alaitz Urkiola izan ziren azkarrenak. TC1-etik hasi ziren BMW M3 autoarekin denbora onenak egiten, eta Enrique Barrenetxea-Arandok eta Anartz Onandiak (EVO IX), batetik, eta Joseba Iraolak eta Sheila Lafuentek (Porsche 911 GT3), bestetik, ezer gutxi egin ahal izan zuten euren kontra.

Baina zirkuituko bigarren zatian eman zuten Castrok eta Urkiolak kolpe erabakigarria, eta zazpi segundoko alde iza tera iritsi ziren hor. Hirugarren zatian, berriz, aldeari egin zioten eta garaipena lortu zuten.

ESKUBLAIOA Fagor Industrial, aurreko bien itzalean

Euskadiko Txapelketako hirugarren postuan dago Fagor Industrial, lider dagoen Txikipoliten eta Urdulizen atzetik –eta Basaurirekin berdinduta–. Hala, geratzen diren hiru jardunaldietan aurreko postu horietan egoteko garrantzitsua da zapatuan Hondarribiaren bisitaren aurrean emaitza ona lortzea, bosgarren dagoen Corazonistas ere gain-gainean dago eta.

Hain zuzen, bigarren postuan dagoen Urdulizen kantuan jokaturako du zortzigarren dagoen Ford Mugarri Arrasatek. Bi hilabetez bolada txarrean egon eta gero, zuri-moreek arnasa eman dieten bi garaipen esku-ratu dituzte.

PILOTA Elezkanok eta Rezustak eskura dute finalerako azken tren

Eskuz Binakako Txapelketako finalerako sailkatu edo ez. Hori izango dute jokoan domekan (17:00) Atanoko pilotalekuko kantxara salto egingo duten lau pilotariek. Izan ere, ligaxkako hirugarren jardunaldira begira kontu gutxi egin behar dira Zabaletarekin eta Irribarriarekin finalean zeintzuk egongo diren aurreikusteko: 22ra iristen direnak.

Bi bikoteek –Elezkano II.a eta Rezusta eta Altuna III.a eta Martija– garaipen bana dute txapelketan elkarren kontra jokaturako lehietan: Elezkano II.a-Rezusta 22-17 irabazi zuten lehena eta Altuna III.a-Martijak bigarrena: 22-8.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGION.

Eibar-Mondra

Zapatua. 17:45. Unbe.

Aretxabaleta-Amaikak

Domeka. 16:30. Zubieta.

Zarautz-Bergara

Zapatua. 16:00. Asti.

ERREGIONAL PREFERE.

Aretxabaleta-Mondra

Zapatua. 16:30. Ibarra.

Zestoa-Aloña

Zapatua. 16:00. Iraeta.

Antzuola-Lazkao

Zapatua. 16:00. Estala.

EMAKU. OHOREZKO E.

Eibar-Leintz Arizmendi

Zapatua. 17:45. Unbe.

Bergara-Zumaiako

Zapatua. 12:00. Ipintza.

EMAKUM. GORENGO M.

Beti Gazte-Aloña Mendi

Zapatua. 16:30. Lesaka.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Scalibur-Eskoriatza

Domeka. 18:15. Basauri.

Scorpio-Mondrate

Zapatua. 16:45. Ermua.

Aretxabaleta-Gernika

Zapatua. 17:00. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

Eskoriatza-Otxartabe

Zapatua. 18:00. M. Muñoz.

EMAKUMEZKOAK

Tolosaldeia-Eskoriatza

Gaur. 20:30. Tolosa.

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Easo-MU

Zapatua. 20:00. Donostia.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

Urgatzi-MU

Domeka. 12:00. Gasteiz.

GIPUZKOAKO SENIOR.

Mekalki Aloña-DKS

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

SENIOR BIG. MAILA

AIB-Bergara Soraluze

Zapatua. 20:00. Irun.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Añorga-Eskoriatza

Zapatua. 16:00. Donostia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKE.

Urduliz-Ford Mugarri

Zapatua. 20:00. Urduliz.

Fagor Indust.-Urdaneta

Zapatua. 17:45. Zubikoa.

EMAKU. EUSKADIKO TX.

Uhialdea-Aloña Men.

Domeka. 11:00. Lakua



Debagoieneko artista ugari, zapatuan, Arteak Ireki plataformak Arrasaten egindako agerraldian. IMANOL SORIANO

Musikaren indarra, dekretu berriaren aurka

Musikak mezua helarazteko indarra izan du beti, eta indar hori baliatuko du Arteak Ireki dinamika bihar, tabernetako kontzertuak mugatzeko asmoa duen dekretuari desadostasuna azaltzeko; Debagoieneko kasuan, bost herritan egongo dira ekintzak

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Azken hilabeteetan musikarien, tabernarien, antzezleen, bertso-larien eta zuzeneko kultur eman-kizunak gustuko dituztenen haserrea eragin du dekretu batek.

Hain zuzen, tabernetako emaldiak –musika, antzerki, DJ saio, bakarriketa edo bertso saio– urtean hamabi izatera mugatzeko asmoa duen dekretuak. Haserre hori guztia era eraginkorrean kanalizatzeko, Arteak Ireki plataforma sortu dute. Sare sozialetan indarrak batzen hasi ostean, kaleetara salto egiteko, aktibazio kulturalerako eguna deitu dute biharko, Euskal Herri osoan.

Aurkezpena, Arrasaten

Gipuzkoa mailako aurkezpena Arrasaten egin zuten pasa den zapatuan. Bertan, Jon Zubiaga musikari eta aktoreak eta Mari Asun Pagoagak hartu zuten hitza, atzean Debagoieneko askotariko artistak zituztela.

Jaurlaritzaren dekretuak bi hilabete baino gutxiagoko epean taberna eta edukiera txikiko lokaletan kultur ekintzak murriztuko lituzkeela eta "ez zegoen lekuan arazoa sortu" dutela salatu zuten, eta dekretuak, euren ustez, dituen gabeziak agerian utzi: "Araudi honek berdin eragingo die herri, auzo eta hiriei, bereizketarik gabe. Bilbo edo Arrasate, Agurain eta Durango,

ostalaritzaren zati handi batek eta agente kultural guztiek lur honek sekula ezagutu ez duen murrizketa jasango dute".

Ekintzak Debagoiengan

Euskal Herri mailan 30 herriekin egin dute bat deialdiarekin: kontzertuak, agerraldiak eta beste-lakoak antolatu dituzte.

Debagoiengan, bost herritan egongo dira ekintzak: Aramaion, Eskoriatzan, Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin. Azken honetan, adibidez, ondorengo arrazoiak eman dituzte Arteak Irekiren deiarri baiezkoarekin erantzuteko. "Artistez gain, komertzio txikiei eta tabernei egindako eraso dela uste dugu".

Debagoieneko herrietako ekintzak

BERGARA

- **13:00** Kalejira musikatua Herriko Plazatik Irala kalera.
- **13:30** Irala kalean, *Arteak irekiko ditugu!* Dantza, musika, arte plastikoak...

OÑATI

- **12:00** Herriko Plazan, elkarretaratzea eta manifestu irakurketa.
- **12:30** Pako Tabernan, herriko musikarien kontzertua.
- **17:30** Bertso saioa gaztetxean.

ARAMAIO

- **12:00** Poteo musikatua.
- **14:00** Luntxa eta mikro irekia. Janaria norberak eroan beharko du.
- **16:00** Kontzertuak.
- **22:00** Triki poteoa eta bertsoak.

ESKORIATZA

- **11:30** Erdigunetik, *Sortzen duguna izango gara* performancea.
- **22:30** Inkernun Trigger bakarlariaren kontzertua. Aurretik, trikitilariak eta Gariren kontzertu akustikoa.

ARETXABALETA

- **12:00** Herriko Plazan elkarretaratzea *Kulturaren kontrako erasorik ez!* lelopean.

'Liluraren laborategia' magia ikuskizuna, bihar, Amaia antzokian

Sun magoaren azken lanak askotariko osagaiak ditu lapikoan: antzezpena, ikusleen parte hartzea, zuzeneko musika eta, nola ez, magia.

Magiaren sekretuak ezagutzeko bidaia moduko bat da, familiar gozatzeko aproposa dena. Ordu bete inguruko iraupena duen saioak Ladelai magoaren trikimailuak prestatzen dituzten zientzialarien laborategian du oinarria.

Lebitazioa, agerpenak, hipnosia eta askotariko efektu magikoak ikusi ahalko dira ikuskizunean zehar, eta, adi egon, Ladelai magoak ikusleak protagonista bihurtzeko joera handia izaten baitu. Juanjo Otero da ikuskizunaren zuzendaria, eta haren aginduetara arituko dira Sun magoa, Na Gomez eta baita Maria Urcelay antzezle bergararra ere.

Saioa 17:00etan hasiko da, Arrasateko Amaia antzokian, eta sarrerak bost euroren truke eskuratu ahalko dira.

Bi piano joleren eta Andoni Egañaren arteko talka, Bergaran

Eta zer gehiago? ikuskizunak Bergarako Seminarixoa galdialdia egingo du. Bihar, zapatua, izango da, 19:00etan.

Bertan, bi piano joleren doinuek Andoni Egañaren hitzekin egingo dute talka. Musika gozoa bizitzan hartu beharreko erabakien paradigmeekin nahastuko dute, ikuskizun berezi bezain interesgarri bat taularatuta.

TXILLARDEGIREN KLIKA

GOIENA TELEBISTA, DOKUMENTALA

MARTXOAREN 26AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

21. KORRIKARAKO KOTE CAMACHOK EKOIZTUTAKO DOKUMENTALA

goiena
Zu hemen zaude.



Argazkigintza garaikidea gerturatzeko jaialdia

Apirilean egingo dute Argi Festibala, eta berrikuntza askorekin dator; besteak beste, bihar, zapatua, Erika Goyarrolak egingo duen 'Irudi fotografikoa eta afektuak' hitzaldia; Eltzia Topagunean izango da, 12:00etan, eta guztiontzako zabalik dago

Aitziber Aranburuzabala OÑATIX

Argazkigintza garaikidea zabaltea du helburu Oñatiko Ilunpetan argazki taldeak eta Arantzazu Gaur Fundazioak bi urtean behin antolatzen duten Argi Festibalak; laugarrena da aurten, eta apirilaren 5ean hasiko dute.

Egonaldia, hasita

Hazten doa jaialdia, egitarauari eta arloko profesionalen artean duen jarraipenari begiratuta; horren erakusle, Arantzazuko Gandiaga Topagunean egingo duten erakusketarako 164 proposamen jaso zituztela.

Elisa Gallego Picard eta Antonio Guerra argazkilariak aukeratu zituen epaimahaiak; eta egubakoitza ezker, Arantzazun dira hamabost egunerako. "Arantzazu beti izan da hezkuntzarako eta transmisiorako espazio, eta artisten babesleku, eta ideia hori berreskuratu dugu egonaldiarekin. Bi artista aukeratu ditugu, euren lanak oso proposamen fotografiko ezberdinak direlako, eta egonaldirako baldintza egokiak zituztelako", azaldu du Argi Festibaleko Itziar Bastarrikak.

Apirilaren 12an zabalduko dute, eta, bitartean, Gallegoren eta Guerraren eginbeharreko erakusketa diseinatzea izango



Gallego eta Guerra artistak, erdian, jaialdiaren antolatzaileekin. ARGIFESTIBALA

dela azaldu du: "Aurrelan bat eginda datoz, baina bien artean proposamen bat landu behar dute; bien lanak erakutsiko dituzte, eta, akaso, Arantzazun sortutako lanen bat ere bai".

Herritarrei zabalik

Erakusketako komisario Jon Cazenave izango dute gidari, eta beste bi adituren laguntza ere bai: Juan Pablo Huercanosena eta Erika Goyarrolarena. "Izen handiko artistak dira. Erakusketan laguntzera eta aholkuak ematera datoz, eta guztiontzako

zabalik dauden hitzaldi bana ematera ere bai. Gure helburua da herrira ekartzea Arantzazun dagoena, eta herria beste modu batera hurbiltzea Arantzazura".

Aurreko astean, Jorge Oteiza Museoko Fundazioko zuzendariorde Huercanos gonbidatu zuten, eta bihar, zapatua, Eltzia Topagunean, 12:00etan, Erika Goyarrola izango da: "Lau arloren bidez, -familia albuma, gorputz propioa, paisaiaren subjektibazioa eta keinua- argazkigintzak emozioak adierazteko duen ahalmena aztertuko du".

Maite Larbururen lan berriaren aurkezpena gaur Seminarixoan

'Hezurren azpian' diskoaren lehen kontzertua eskainiko du, 22:30ean; sarrerak zortzi eurotan daude salgai

A. A. BERGARA

Neighbour taldearekin bi disko egin ostean, *Hezurren azpian* bakarkako lehen lana du Larburuk (Hernani, 1979). Herbehereetan bizi izan da urteetan eta Euskal Herrira itzuli da orain

dela gutxi; hori horrela, Josh Cheathamekin osatzen zuen Neighbour bikote artistikoaren ibilbidea eten egin behar izan dute; hala ere, bikotearen musika ezaugarriak nabarmenak dira hernaniarren lan berrian,

hirugarren lanerako izan behar ziren kantuekin osatu du-eta bakarkako lana.

Ogibidez, musikaria da Larburu, aitzinako musikagintzan aditua, baina pop estilotik gertuago daude diskoetan jasotako kantuak. Kantatzeaz gainera, biolina, gitarra elektrikoa eta klasikoa, xilofonoa eta kortintxoak jotzen ditu; eta taularen gainean lagun izango ditu Carlos Toroncher klarinete baxuarekin eta perkusioan Aida Torres eta Beñat Iturrioz.


Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko martxoko sariak!



SPC Heaven 10.1 tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



Korrika

Korrikako materiale

Parte hartzeko sariaren izena: Korrika



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: klub@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen (DP) IS/IGD legearen arabera, aldirosten dugu zure datu pertsonal Gaiena Foruakotik. Jeltzuzuzen lituzueg automatizatu baten bidezko dirala. Datu bilera zure helburu bakarra da indarrez dagoen sustapena gaituzte. Eskubide izango dituzu datuaren partetik, baliu zuzentzeko edo ezarazteko, helbide horretara datuak klub@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

GOIKO BENTA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte!

☎ 943 25 05 05 ✉ klub@goiena.eus



KLUBA Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Egin zaituz Goiena Klubeko bazkide! Urte osoa, 56 € bakarrik!
Eta bazkideen artean, astero zozketak, deskontuak...
Deitu: 943 25 05 05 • klub@goiena.eus

goienakluba[™]
Euskara irabazle, donak irabazle!



BERGARA
Kenar Da Silva Moreno
Martxoaren 23an, 8 urte. Zorionak! Espero dugu egun polita pasatzea. Muxu eta besarkada potolo bat, etxekoan partetik. Batez ere, Alaine.



ARETXABALETA
Paule Otxandategi Lasagabaster
Martxoaren 22an, 5 urte. Zorionak, Paule! Ederto ospatu zure eguna! Besarkada bat eta patxo pilo bat, danon partetik!



OÑATI
Enara Guridi Murua
Martxoaren 22an, 10 urte. Urte askotarako, Enara! Gozatu egunaz, etxekoekin eta lagunekin!



BERGARA
Izar Unamuno Unamuno
Martxoaren 22an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako, Izar!



BERGARA
Sare Larrañaga Barrenetxea
Martxoaren 19an, 8 urte. Sare! Zorionak, politt hori! Patxo, danon partetik!



ARRASATE
Uxue Belategi Galdos
Martxoaren 16an, 2 urte. Zorionak, *txikitxo!* Primeran pasatu genuen eguna lagunaz inguratuta. Segi irribarretsu eta bazterrak alaitzen. Besarkada handi bat, etxeko guztien partetik eta Goiatzen eta Maddiren patxo erraldoia.



ARRASATE
Joseba Aranburuzabala Rueda
Martxoaren 15ean, 11 urte. Zorionak, Joseba! Ondo pasatu zure egunean. Patxo handi bat, familia osoaren partetik.



ELGETA
Amets Agirre Osa
Martxoaren 15ean, 7 urte. Pila bat maite zaitugun guztien partetik, zorionak eta ondo pasatu, Amets!



OÑATI
Maiane Barrena eta Naia Intxausti
Zorionak, Maiane eta Naia! Martxoaren 11n bixon urtebetetzea ospatuko dugu. Egun polita pasatu eta muxu handi bat, etxekoan partetik.

TXUTXU-MUTXUAK



1. Sagardotegian, elkarrekin
Futbol zelaietatik harago, Bergara Kirol Elkarteko bi futbol talde nagusiek badakite ospakizunak elkarrekin egiten. Aurreko asteburuan sagardotegian egon ziren.



2. Elkartrukean
Bergarako Mariaren Lagundikoeak Herbehereetako Warnsveld herrikoekin elkartrukean dihardute. 28 ikasle eta hiru irakasle egon dira. Bueltakoa hilaren 23tik 30era egingo dute.



3. 100 urte bete dituz!
Bizente Murgoitio bergararrak 100 urte bete zituen martxoaren 15ean. Etxekoekin ospatzeaz gain, Elena Lete alkatearen eta beste udal ordezkari batzuen bisita jaso zuen.



4. Egun ederra, kontu kontari
Zortzigarren mailan Arrasateko San Viator ikastetxean elkarrekin ibili ziren hainbat lagunak bazkaria egin zuten zapatuan, Arteagan. Ordu txikietan bukatu zuten parranda.

5. 43 bolari Aretxabaletan
Bittor Astigarragak irabazi zuen Uratz Alde elkarteak antolatuko txapelketa. Aretxabaletako eta kanpoko bolariak elkartu ziren San Jose eguneko bolo-jaurtiketan.


ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



IMANOL SORIANO

'HEGOTIK IPARRERANTZ' IKUSKIZUNA

'Saio berezia' Zapatuan, 18:00/22:15 eta domekan, 13:00/20:00



GOIENA

ASKOTARIKO GAIEI BURUZKO EZTABAIDA

'Harira eztabaida' Egubakoitza, 23:00

EGUBAKOITZA, 22

- 10:00 Hemen Debagoiena
- 11:00 Galdegazte: Reyes Azkoitia
- 11:30 Hemen Debagoiena
- 12:30 Ajoarriero: Bakartxo Ruiz
- 13:00 Elkarrizketa: Maria Rivero
- 13:30 Hemen Debagoiena
- 14:30 Albisteak
- 14:45 123 Hemen da Miru
- 15:15 Hemen Debagoiena
- 16:15 Albisteak
- 16:30 Ur eta Lur
- 17:00 Albisteak
- 17:15 Huhezinema: Gazi gozoak
- 17:45 Albisteak
- 18:00 Hemen Debagoiena
- 19:00 Huhezinema: Gazi gozoak
- 19:30 Galdegazte: Reyes Azkoitia
- 20:00 Hemen Debagoiena
- 21:00 Huhezinema: Gazi gozoak
- 21:30 Elkarrizketa: Mikel Urdangarin
- 22:00 Hemen Debagoiena
- 23:00 Harira eztabaida

ZAPATUA, 23

- 09:00 123 Hemen da Miru
- 09:30 Txantxariak 5
- 10:00 Kantari Gasteiz 12
- 10:30 123 Hemen da Miru
- 11:00 Hemen Debagoiena
- 12:00 Elkarrizketa: Kauldi Odriozola
- 12:30 Huhezinema: Gazi gozoak
- 13:00 Hemen Debagoiena
- 14:00 Elkarrizketa: Maria Rivero
- 14:30 Asteko errepasoa
- 15:00 Hemen Debagoiena
- 16:00 Harira eztabaida
- 16:45 Elkarrizketa: Mikel Urdangarin
- 17:15 Hemen Debagoiena
- 18:00 Ikuskizuna: Hegotik iparrerantz
- 20:15 Elkarrizketa: Mikel Urdangarin
- 20:45 Huhezinema: Gazi gozoak
- 21:15 Harira eztabaida
- 22:15 Ikuskizuna: Hegotik iparrerantz

DOMEKA, 24

- 09:00 Txantxariak 5
- 09:30 Kantari Gasteiz 12
- 10:00 123 Hemen da Miru
- 10:30 Txantxariak 5
- 11:00 Kantari Gasteiz 12
- 11:30 123 Hemen da Miru
- 12:00 Hemen Debagoiena
- 13:00 Ikuskizuna: Hegotik iparrerantz
- 15:15 Hemen Debagoiena
- 16:00 Elkarrizketa: Kauldi Odriozola
- 16:30 Hemen Debagoiena
- 17:30 Asteko errepasoa
- 18:00 Huhezinema: Gazi gozoak
- 18:30 Ajoarriero: Bakartxo Ruiz
- 19:00 Harira eztabaida
- 20:00 Ikuskizuna: Hegotik iparrerantz
- 22:15 Galdegazte: Reyes Azkoitia
- 22:45 Elkarrizketa: Mikel Urdangarin
- 23:15 Elkarrizketa: Kauldi Odriozola
- 23:45 Hemen Debagoiena

EGUBAKOITZA, 22

MIKEL URDANGARINI ELKARRIZKETA

'Elkarrizketa' 21:30

ASTELEHENA, 25


ASTE BUKAERAKO KIROL HITZORDUAK

'Harmailatik' 21:30/23:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: goiena.eus/telebista Edo eskanatu aldameneko qr kodea.

MARTITZENA, 26



GOIENA

'TXILLARDEGIREN KLIKA' DOKUMENTALA

21:30/23:30

EGUENA, 28

KAZETARI GAZTEAK, OIHANA ALDAIREKIN

'Galdegazte' 21:30/23:30

OROIGARRIA

Zorione Arana Abarrategi



2019ko martxoaren 15ean hil zen.

Ortzi izarrez apaintzen, loak hartzean, eguzkia agurtzean... Ez zaitugu ahaztuko.



Osarteneko lankideak. Arrasaten, 2019ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA

Zorione Arana Abarrategi



Ikastolako gurasoa

2019ko martxoaren 15ean hil zen.

Gure bihozmina adierazten diegu etxekoei.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak. Leintz bailaran, 2019ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA

Zorione Arana Abarrategi



2019ko martxoaren 15ean hil zen.

Emandako laguntzagatik.



Lana Kooperatiba. Oñatin, 2019ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA

Zorione Arana Abarrategi



2019ko martxoaren 15ean hil zen.

Zori, zure ahotsa ixildu da, baina zure indarra eta kementa gure bihotzean betirako izango dira.

Eskerrik asko.

Ugarte familiakoek. Arrasaten, 2019ko martxoaren 22an.

ESKER ONA

Maria Piedad Astigarraga Galfarsoro



2019ko martxoaren 12an hil zen, 82 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, martxoaren 23an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerrik asko.

Oñatin, 2019ko martxoaren 22an.

ESKER ONA

Martina Garro Iriarte



2019ko martxoaren 16an hil zen, 91 urte zituela.

Egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi, familiaren izenean bihotzez besarkada haundi bana.

Ondra meza martxoaren 24an, domekan, izango da, 12:00etan, Aramaioko Martin Donearen elizan. Etorriko zareten guztioi alde zuretik eskerrik asko.

Aramaion, 2019ko martxoaren 22an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ
Egubakoitza, 22 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Zapatua, 23 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Domeka, 24 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Astelehena, 25 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Martitzena, 26 SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Eguaztena, 27 ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguena, 28 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

BERGARA EGUNEZ
Egubakoitza, 22 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 23 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 24 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 25 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 26 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 27 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 28 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

ORATI EGUNEZ BAKARRIK
Egubakoitza, 22 JULDAN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 23 JULDAN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 24 JULDAN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 25 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 26 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 27 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 28 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2019ko abuztuaren 30era arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

BERGARA GAUEZ EGUNERO
(22:00etatik 09:00etara)
2019 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: CDF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

URTEURRENA

Tomas Iturbe Maiztegi



'Kostei'

2018ko martxoaren 24an hil zen, 90 urte zituela.

Zuk ereindako bideari jarraitzen diogu.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 24an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2019ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA




Zorione Arana Abarrategi 


2019ko martxoaren 15ean hil zen.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Iria, Arana, Otxoa, Barrutia, Axpe, Etxagibel eta Bengoa familiak.
Arrasaten, 2019ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA




Zorione Arana Abarrategi 


2019ko martxoaren 15ean hil zen.

Eskerrik asko, amatxo.

Roberto, Urtzi eta Ane.
Arrasaten, 2019ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA



Antonio Rodriguez Ruiz 

2016ko martxoaren 15ean hil zen, 68 urte zituela.

*Baratzak ez du fruiturik eman,
atsedena hartu zinuaretik...
Baina landatutako haziek,
sendo jarraitzen dute, lorazain maitea.*

Bergaran, 2019ko martxoaren 22an.

OROIGARRIA



Zorione Arana Abarrategi 

2019ko martxoaren 15ean hil zen.

Ez zaittugu ahaztuko.

Zure kuadrilla.
Arrasaten (Garagartza), 2019ko martxoaren 22an.

ESKER ONA



Zorione Arana Abarrategi 

2019ko martxoaren 15ean hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2019ko martxoaren 22an.

ESKER ONA



Elena Zabalo Ugarte
Luis Mendizabalen alarguna

2019ko martxoaren 16an hil zen, 91 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2019ko martxoaren 19an.

ESKER ONA



Gregoria Iribekanos Garaizabal

2019ko martxoaren 16an hil zen, 90 urte zituela.

Egun hauetan, babesa eta gertutasuna adierazi diguzuen guztioi,
familiaren izenean, bihotz-bihotzez, besarkada handi bana.

Ondra meza martxoaren 24an, domekan, izango da,
11:00etan, Angiozarko Mikel Goiaingeruaren elizan.
Etorriko zareten guztioi alde zurretik eskerrik asko.

Bergaran (Angiozar), 2019ko martxoaren 22an.

ESKER ONA




Santi Ezkurra Gracia


2019ko martxoaren 16an hil zen, Donostian, 58 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan horrenbeste eratan
maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuenoi.
Besarkada handi bana guztioi, familiaren partez.

Bergaran, 2019ko martxoaren 22an.

ESKER ONA



Carmelo Martinez Udaber 

2019ko martxoaren 17an hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2019ko martxoaren 22an.

URTEURRENA



Jeronimo Zabalo Zabalo

2018ko martxoaren 20an hil zen, 85 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 24an,
11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiari.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Antzuolan, 2019ko martxoaren 22an.

URTEURRENA



Maximo Aristi Gabilondo 

2018ko martxoaren 18an hil zen, 86 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 24an,
11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokiari.

Beti izango zara gure bihotzetan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Antzuolan, 2019ko martxoaren 22an.

OROILORE
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua
izan, zuek
nahi duzuen
hileta-zerbitzua
aukeratzeko
eskubide osoa
duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza
dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENeko EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 22

ARRASATE 'Emakume komikigileak'

Mai Egurtza komikigileak saio berezia egingo du gazteekin. *Kulturaten, 11:30ean.*

ELGETA 'Ipuinen ordua'

Boluntarioen eskutik, hiru saio: 17:00etan, 8-9 urtetik aurrerakoendako; 17:20an, 5-6 urtetik aurrerakoendako; eta 18:00etan, 2-3 urtekoendako. *Liburutegian.*

OÑATI Sukaldaritza tailerra

Txipistin zerbitzuko eta topalekuko erabiltzaileek elkarrekin egingo dute. *Topalekuan, 17:00etan.*

OÑATI Gaileren dekorazio txapelketa

Kuboko erabiltzaileendako. *Kuboa, 17:00etan.*

OÑATI Pake Lekuren batzarra

Urteko ohiko batzar nagusia egingo dute. *Santa Anan, 17:30ean.*

ARRASATE Biodantza saioa

Ireki, herritar guztiendako. *Mesedeetako ikastetxean, 18:15ean.*

ESKORIATZA 'Pumori, mendiaren alaba' dokumentala

2001ean Himalaiara joan eta izotz-jauzi batek harrapatuta bertan hil ziren Arrueren, Aiertzaren, Artiedaren, Arkauzen eta Nietoren istorioa kontatzen du. Sarrerak, bost euro. Batutako dirua Nepalera bideratuko da. *Zaldibarren, 19:00etan.*

ARETXABALETA 'Erraiak' ikus-entzunezkoa

Ekain Martinez De Lizarduyk zuzendutako lana. Sarrerak, hiru euro. *Zaraia aretoan, 19:00etan.*

OÑATI Kepa Zelaiaren kontzertua

Azkenaldian sortutako kantuak aurkeztuko ditu. *Gaztetxean, 22:00etan.*

BERGARA VIII. Tapoi Fest

Arrotzak, Optika, Managaitz eta Fly Shit taldeak eta DJ Mugu. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ELGETA Tributu jaialdia

Bribibibli (Extremoduro), Los Platero (Platero Y Tu) eta Triscando En La Hierba (Marea) taldeen kontzertua. Sarrerak, hamabi euro. *Espaloian, 22:00etan.*

BERGARA Maite Larburu

Hernaniko bakarlarik *Hezurren azpian* lana aurkeztuko du. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 22:00etan.*

OÑATI Sindy Berbenas eta DJ Motherfucker

Zuzeneko emanaldia. Debalde. *Pako tabernan, 22:00etan.*

ZAPATUA 23

ANTZUOLA Mairuaren Alarde berrituaren hausnarketa saioa

Landuko diren gaiak, besteak beste, Alardearen antolaketa eta funtzionamendua, parte hartzaileak, harremanak eta Alardeaz dauden iritziak. Irekia. *Olaran etxean, 09:30ean.*

OÑATI Maskulinitate tailerra

Gizonezko izaera hegemonikoak zalantzan jarri eta beste eredu batzuetaz hausnartzeko saioa. *Gaztetxean, 10:00etan.*

OÑATI 'Dibertsioa familian' Arrikutzen

X. Koben Egunaren harira, espeleotxiki saio berezia familiendako. Aurrez eman behar da izena: 943-08 20 00. *Arrikutzen, 10:30ean.*

OÑATI Duetloi txikia

10:30ean, benjaminak; 10:50ean, alebinak; eta 11:30ean, infantilak eta kadeteak. *Foruen plazan.*

ARRASATE AEDren eta Txatxilipurdiren urteurrenak

11:30ean, mural margotzea, irratsaioa, ipuin kontaketa...; 12:00etan, *Artean 3* erakusketara

bisita; 13:30ean, konpartsak eta dantza taldeak; 14:00etan, Ekiñe Casadoren emanaldia; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan, jolasak; 17:00etan, *Buah txabal!* antzezlanak; eta 18:00etan, Konpost taldea. *Seber Altuben.*

ARETXABALETA Aitor M. Vinagret ipuin kontalaria

Kokitoren amona saioa egingo du 4-10 urte arteko umeendako. *Liburutegian, 11:30ean.*

ESKORIATZA Sagardotegira irteera

Eingeinke Elkarteko ospakizuna, Aramaioko Untzueta sagardotegian. *Akeitako geltokian, 14:00etan.*

OÑATI Oñatiko duatloia

Distantzia motzeko Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak. *Foruen plazan, 16:00etan.*

ESKORIATZA Swing ikastaroa

Hastapen ikastaroa. *Pilotalekuan, 17:00etan.*

OÑATI Gaileren dekorazio txapelketa

Kuboko erabiltzaileendako. *Kuboa, 17:00etan.*

ARRASATE 'M8-k utzitakoak' erakusketa

Gaztetxoendako. *Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.*

OÑATI VIII. Txinparta Bertsolari Txapelketa

Lehen finalaurrekoan, Ander Lizarralde *Pertzi*, Urko Egaña, Gorka Larrea *Txapel*, Maider Arregi, Joseba Lasagabaster, Beñat Alberdi, Bittor Zubiagirre eta Xabier Pascual *Pasku* bertsotan. *Gaztetxean, 17:30ean.*

BERGARA 'Eta zer gehiago?' ikuskizuna

German Ormazabal eta Xabier Lizaso piano jotzaileak eta Andoni Egaña bertsolari eta idazlea. Sarrerak, zortzi euro. *Seminarixoa, 19:00etan.*

BERGARA VIII. Tapoi Fest

Woth It, Hagendas, Aceswords eta Tropical Ice Land taldeak eta DJ



SUN MAGOAK

ARRASATE 'Liluraren laborategia' haur antzerkia

*Nork asmatzen dituen esku jokoak? Nork fabrikatzen ditu? Nork erabakitzen du jendaurrean egin daitezkeenak? Zenbat truko mota dago? Galdera horiek guztiak erantzungo ditu Sun magoak. Sarrerak, bost euro. *Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.**

Naturistak. Sarrerak, bost euro. Afarirako sarrerak (20:30), bi euro gehiago. *Gaztetxean, 22:00etan.*

ESKORIATZA Trigger

Arteak Ireki egitasmoaren bueltan, trikitilariak, Gari Barandiaranen emanaldi akustikoa eta Eñaut Zubizarretaren kontzertua. *Inkernun, 22:30ean.*

DOMEKA 24

OÑATI Santoñara irteera

Buciero mendira joango dira Aloñakoak, Faro del Caballo eta Faro del Pescador ezagutzeko aukerarekin. *Postetxeko geltokian, 07:00etan.*

ELGETA Mendi irteera eta sagardotegian bazkaria

Kantsatzeke mendi taldekoak Adarrara joango dira. *Mendizaleen plazan, 08:00etan.*

OÑATI Arrikruzteko sarrerak erdi prezioan

Kobazuloen Egunaren harira, sarrera merkeagoak eta oparien zozketa. *Arrikutzen, 10:30ean.*

ELGETA Berbalagunak, Intxortara

Bi ordu inguruko bisita egingo dute bailarako taldeetako kideek, museoa hasita. *Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:30ean.*

ARAMAIO Bisita mitologikoa

Amillena elkartaren eskutik, pertsonaia mitologikoak eta kondairak izango dituzte hizpide. *Bizente Goikoetxea plazan, 11:00etan.*

BERGARA 'Emakumien biharra' erakusketa

Herriko komertzioetako emakume langileen lanak ikusgai. *Aroztegin, 12:00etan.*

OÑATI Rafa Rueda

Korrika Kulturalaren barruan. Sarrerak, bost euro. *Gaztetxea, 12:30ean.*

ARRASATE 'M8-k utzitakoak' erakusketa

Gaztetxoendako. *Erdiguneko gaztegunean, 17:00etan.*

ARRASATE 'Familia jolasean'

0-8 urte arteko seme-alabak dituzten familiendako ekintzak. *Okendoko ludotekan, 17:00etan.*

BERGARA 'Bergararrak kontalari' saioa

Saritutako ipuinak kontatuko dituzte etxeko kontalariak. Debalde. *Seminarixoa, 18:00etan.*

BERGARA 'Bizitza defendatzen dituzten ahotsak eta bakearen eraikuntza Kolonbian' hitzaldia

Danilo Huertas eta Carlos Alfredo Nastacuas kolonbiarrek egingo dute berba hango egoeraz. *Gaztetxean, 18:00etan*

ASTELEHENA 25

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ESKORIATZA Eskulanak
Txotxongiloak eta tenperekin marrazkiak egingo dituzte umeek.
Ludotekan, 17:00etan.

ARETXABALETA 'N-estetika' erakusketa
Lesagibel eskultorearen lanak.
Arkupan, 17:00etan.

OÑATI 'Zaporeak' erakusketa
Hotz Oñati taldearen eta Zaporeak GKEren arteko elkarlana.
Kultura etxean, 18:00etan.

MARTITZENA 26

OÑATI Teknologia berriei buruzko tailerra
Gurasoendako ikastaroaren lehen saioa.
Euskaldun Berria gelan, 18:15ean.

ARRASATE Ipuin kontaketa
4 urtetik gorakoendako saioa Amaia Arriaranekin.
Santa Marinako auzo bibliotekan, 18:00etan.

ARETXABALETA Musika emanaldia
Leizarra musika eskolako saioa: biolin, pandero eta akordeoi doinuak.
Zaraia aretoan, 18:00etan.

OÑATI 'Neoextractivismo y patriarcado colonial: una mirada desde el feminismo del sur' hitzaldia
Tania Cruz Hernandezen hitzaldia.
Osoko bilkuren aretoan, 18:30etan.

BERGARA Helduendako ipuin kontaketa
Julian Morenoren saioa.
Liburutegian, 19:00etan.

ARRASATE 'La noche de los 12 años' pelikula
Drama.
Amaia antzokian, 20:30ean.

EGUAZTENA 27

BERGARA 'Robotak gure lagun minenak' hitzaldia
Elena Lazkanok egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoa, 10:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baseritarren eta garaiko produktuen salmenta.
Oxironon, 18:00etan.

ESKORIATZA San Pedro jaiak antolatzeko batzar irekia
Kultura Sailaren deia, elkarteen, taldeen eta eragileen proposamenak entzuteko. Irekia.
Kultura etxean, 18:00etan.

BERGARA 'XVI. mendeko emakumeak Euskal Herrian' hitzaldia
Iraitz Agirrek egingo du berba, Jardunek gonbidatuta.
Irizar jauregian, 19:00etan.

ARRASATE Zinegoak 2019
Film laburren emanaldia.
Kulturaten, 19:00etan.

OÑATI 'Lou. Dantzan jo ta ke, hankak lehertu arte' dokumentala
Beratu jaialdia. Lehen ekintza.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA 'Girl' pelikula
Lukas Dhonten pelikula, zineklubean. Sarrerak, hiru euro.
Zabalotegin, 20:00etan.

EGUENA 28

ARRASATE Sasoibide irteera
Biteri-Monterron-San Balerio-Mietzerreka elkartea-Zabortegia-Bizkaia etorbidea-Zarugalde-Biteri ibilaldia egingo dute.
Biteri plazan, 10:00etan.

ARETXABALETA Mandalak margotzeko saioa
Idoia Elexpuru margolariaren saio bikoitza harrietan mandalak marrazten ikasteko: gaur, martxoak 28, umeendako; eta bihar, helduendako.
Udaletxe zaharrea, 17:00etan.

ARETXABALETA Mandalak margotzeko saioa
Idoia Elexpuru margolariaren saio bikoitza harrietan mandalak marrazten ikasteko: gaur, martxoak 28, umeendako; eta bihar, helduendako. Aurrez eman behar da izena.
Udaletxe zaharrea, 17:00etan.

ARRASATE 'Artean 3' erakusketa: bisita gidatua
Bilduman parte hartu duten egileek emango dituzten azalpenak. Irekia.
Kulturaten, 17:30ean.

OÑATI 'Ostegun kontalariak'
Maite Francoren saioa, 3-5 urte arteko umeendako. Aurrez jaso behar ziren gonbidapenak.
Haur liburutegian, 18:00etan.

ESKORIATZA Ipuin kontaketa
Lur Kortaren saioa 4 urtetik gorako umeendako.
Bibliotekan, 18:00etan.

ARRASATE 'Artean 3' erakusketa: dokumentala
Todas las mujeres que conozco emango dute.
Kulturaten, 18:30ean.

ARRASATE Literatura solasaldia
Ana Malagon idazlearen *Gelditu zaitzte gurekin* liburuari buruzko solasaldia egingo dute Alex Gurrutxaga koordinatzailearekin.
Kulturaten, 18:30ean.

BERGARA Erramu Zapatuko bazkaria: txartelak salgai
Apirilaren 13an egingo duten ekitaldirako sarrerak gaur ipiniko dituzte salgai. 450 lagunendako lekua egongo da.
Irala kalean, 19:00etan.

OÑATI 'Blues Beale Street', zineklubean
Barry Jenkins zuzendariaren pelikula. Sarrerak, bost euro.
Kultura etxean, 20:00etan.

ARRASATE Javier Escobedo & The City Lighs taldea
Kooltur Ostegunetako kontzertua. Power-popa eta pop melodikoa lantzen du Escobedoren taldeak. Sarrerak, bost euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Destroyer
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Mirai
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

70 binlandens
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Corgi: la mascota de la reina
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA**ARKUPE**

Podras perdonarme algun dia
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Uno mas en la familia
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ**GORBEIA**

4 latas
Egubakoitza: 20:20, 22:30.
Zapatua: 18:55.
Domeka: 20:25.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Alita
Egubakoitza: 17:50.
Zapatua: 21:00.
Domeka: 11:45, 18:55.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Asterix
Domeka: 11:45.

Bohemian Rhapsody
Egubakoitza eta zapatua: 20:30.
Domeka: 19:30.

Capitana Marvel
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 17:30, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Como entrenar a tu dragon
Egubakoitza: 18:25, 20:30, 22:30.

Zapatua: 16:20, 18:25, 20:30, 22:30.
Domeka: 12:15, 16:20, 18:25, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Dolor y gloria
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:40, 22:00.
Domeka: 17:20, 19:40.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

El niño que pudo ser rey
Egubakoitza: 17:30, 19:50.
Zapatua: 16:50, 19:00.
Domeka: 12:15, 17:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Escape room
Egubakoitza: 18:30, 20:30, 22:30.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Como entrenar a tu dragon
Egubakoitza: 18:25, 20:30, 22:30.

Mula
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00.

BOULEVARD

Dolor y gloria
Egunero, egubakoitza izan ezik: 12:40, 15:45, 18:05, 20:30, 22:45.
Egubakoitza: 15:45, 17:50, 22:10.

Nosotros
Egunero, martitzena izan ezik: 13:20, 16:35, 19:05, 21:30, 00:00.
Martitzena: 13:20, 16:35, 19:05.

Capitana Marvel
Egunero: 13:30, 16:45, 19:30, 22:14.
Zapatua eta domeka: 12:25, 18:15, 21:15.
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 12:245, 15:45, 18:15, 21:15.

KRITIKA

Las herederas ★★★★★

Zuz.: Marcelo Martinessi. **Herr.:** Paraguay (2019). **Aktoreak:** Ana Brun, Margarita Irun, Ana Ivanova. **Iraupena:** 97 minutu.

Sentsazio berriak**ANTONIO ZABALA**

Las herederas pelikula pertsonaiei buruzko filma da. Ez dago istorio harrigarririk, ezta ekintza gehiegirik. Marcelo Martinessiren helburua Chelaren erretratu barnekoia egitea da. Chelak eta Chiquitak 60 urte pasatxoko bikotea osatzen dute. Dirua izan dute, baina gaur egungo egoera ekonomikoa larria denez, euren etxeko objektu baliotsuak saltzen hasi beharko dute. Ondorioz, Chiquita denboraldi baterako kartzelara doa, eta Chelak, bikoteko pertsona ahulenak, bere kabuz moldatu beharko du, bizitzari eta egoerei aurre egiten. Martinessik oso ondo islatzen ditu, Ana Brunen interpretazio bikainaren laguntzarekin, pertsonaiaren sentimenduak

eta jasaten dituen aldaketak. Pertsonaia filmeko eszena guztietan dago, eta zuzendariak garrantzi handia ematen die pertsonaiaren lehen planoari. Nahiz eta *scope*-n filmatuta egon, pertsonaiak dira istorioaren ardatz nagusia. Ez dira gauzak azpimarratzen. Begiradak, keinuak, janzteko moduaren aldaketak... elkarriketak baino adierazgarriagoak dira. Ikusleak pertsonaiaren jarraipena egiten du eta oso ondo sumatzen du Chelarengan gertatzen diren aldaketak guztiak. Hasieran, Chiquitaren babesean bizi da; gero, ia nahi gabe, lanean hasiko da. Etxetik irteatek eta mundura zabaltzeak sentimendu eta sentsazio berriak ekarriko dizkio.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Herrigintza eta euskalgintza

Definizio klasikoan, euskal herritar da Euskal Herrian bizi dena eta bertako herritar izan nahi duena. Hortik abiatuta, herrigintza da Euskal Herria kohesionatzea identitate propioaren inguruan, herritarren kontzientzia sustatuz, pertsonen eta egituren arteko sareak ehunduz, egitasmoko kolektiboa sendotuz...

Euskal herritarren parte bat gara euskaldunon tribua, hau da, Euskal Herrian euskara hegemoniko izatea nahi dugunon komunitatea. Eta euskalgintzaren dema da identitate propioaren eraikuntza euskararen hegemonia sustatzea.

Kasu batean zein bestean arrakastaren neurria da gehiengo zabalak lortzeko gaitasuna: Euskal Herria indartzen da jende askok euskal herritar izatea hautatzen duenean; eta euskararen egoera hobetzen da hegemoniari bidean askoren atxikimendu efektiboa irabazten duen neurrian.

Gauzak horrela begiraturata, bistan geratzen da zoru komunaren eta egitasmoko partekatuen garrantzia, agerikoa da barne konfrontazioaren gaintik –edo azpitik– lokarri sendoak behar ditugula herri garapenerako. Estaturik gabeko herrietan da beharrezkoen *estatu politika*. Hau ez genuke sekula ahaztu behar.

BUKATZEKO

Mikel Laskurain eta Jon Olivares, 'Patria' telesailean

Fernando Aranbururen 'Patria' eleberria telesail bilakatuko du HBO Espainiak, eta, hain zuzen ere, bi bergarar izango dira 2020an Europa osoan eta Amerika osoan estreinatuko den zortzi atalez osatutako ikus-entzunezkoan

Aitor Agiriano ARRASATE

2016an Aranburuk kaleratutako eleberrian oinarrituta, Euskal Herriko gatazka armatuaren ondorioz familiek elkarrekiko duten gero eta gorroto handiagoa izango du ardatz nagusi telesaileak. HBOk gaztelaniaz egingo duen lehen lana izango da, baina euskaraz ere entzungo da pantailaz bestalde.

Aitor Gabilondo donostiarra da egokitzapenaren sustatzaile. gidoilari nagusi eta produktore eragilea. Zuzendariak, berriz, Pablo Trapero eta Felix Viscarret izango dira.

Filmaketa martxan dago

Martxoaren 20an, pasa den eguaztenean, hasi ziren eleberria ardatz duen telesaile grabatzen. Sorluzen izan da errodatan egunotan lantaldea eta 1980ko eta 1990eko hamarkadako herri baten itxura hartu du. Donostia, Elgoibar eta Madril ere plato bihurtu eta bertan filmatuko dute uztailean bitartean.

Bergararrak, aita-emeak

Aktore euskaldunek hezurramituko dituzte istorioko pertsonaia nagusiak. Horien artean, Mikel Laskurain eta Jon Olivares bergararrak aita-emeak



Jon Olivares eta Mikel Laskurain. ARGAZKIAK: UBANE MADERA



Laskurain, Irureta eta Olivares.



Lantaldea Sorluzen grabatzen.

izango dira pantailan. "Oso eskola ona izango da; alde batetik, lagun dezente dauzkadalako inguruan eta, bestetik, hau futbolearen lehen mailan jokatzeko bezala delako", dio Laskurainek. Jon Olivareserentzat, berriz, bere lehen lan handia izango da HBOren produkzioa: "Madrildik deitu zidaten aurrez egindako lanekin materiala bidaltzeko esanez. Astebetean bi-hiru bidaiara egin behar izan nituen bertara eta Gabonetan jaso nuen baiezkoa. Sinistu ezinik egon nintzen hasieran, etorriko zitzaidanaz ondo jabetu gabe".

ETAn sartzen den gazte baten rola hartuko du Olivaresek, Joxe Mari, eta bere aitaren papera antzetzeko du Laskurainek, Joxian. Biak ere kontziente dira eleberria argitaratutakoan izan zuten eta egun izaten ari den oihartzunaz. Eta biek diote, gainera, telesailek ere emango duela zeresana: "Gai delikatua da, jende asko zain eta gogotsu dago ikusteko eta proiektuarekiko presioa ekar dezake horrek. Baina gure lana ahalik eta ondoen egingo dugu. Azken hori gorripatzeko izan dadila zeresan hori", diote.

Aktore handiak izango dituzte lagun: Ane Gabarain (Miren), Elena Irureta (Bittori) Jose Ramon Soroiz (Txato), Iñigo Aranbarri (Xabier), Susana Abaitua (Nerea), Loreto Mauleon (Arantxa) eta Eneko Sagardoy (Gorka), besteak beste.

Beldurra, ilusioa, urduritasuna, poztasuna, ziurtasunik eza... emozio nahasketa ari da bizi izaten Olivares; eta, ziklistan on batek esango lukeen moduan, sentsazio onak dauzka Laskurainek.

GALDEGAZTE

GOIENA TELEBISTA

MARTXOAREN 28AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN

OÑATIKO TXANTXIKU IKASTOLAKO IKASLEEK ELKARRIZKETATUKO DUTE OIHANA ALDAI, REALEKO ATEZAINA, JOKIN BEREZIARTUAK GIDATUTA.

goiena
Zu hemen zaude.

